

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 450/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko apirilaren 23koa, Erkidegoko aduana-kodea (aduanakode modernizatua) finkatzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «REGLAMENTO (CE) N° 450/2008 DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2008, por el que se establece el código aduanero comunitario (código aduanero modernizado)» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 145/1, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)

ERREGELAMENDUAK

450/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko apirilaren 23koa, Erkidegoko aduana-kodea (aduanakode modernizatua) finkatzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 26., 95., 133. eta 135. artikulua, Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura ⁽³⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako Erkidegoa aduana-batasunean oinarritzen da. Erkidegoko operadore ekonomikoen eta aduana-agintarien interesari erantzuteko, komeni da gaur egun aduanei buruz dauden legeak Erkidegoko aduana-kode batean (aurreratzean «kodea») jasotzea. Kode horretan jaso behar dira Erkidegoaren eta haren aduanalurraldetik kanpo dauden herrialde eta lurraldeen arteko merkantzien merkataritza arautzeko Erkidegoan finkatzen diren neurri arantzelarioak eta gainerako politika komunak aplikatzen direla ziurtatzeko behar diren xedapen eta prozedura orokor guztiak, barne-merkatuaren kontzeptutik abiatuz betiere. Aduanei buruzko araudia hobeto egokitu beharra dago inportazioari ezartzen zaizkion kargen bilketa arautzen duten xedapenetara, baina indarrean dauden zerga-arauen irismena aldarazi gabe.

(2) «Erkidegoen finantza-interesak babestea. Iruzuraren aurkako borroka. 2004-2005erako ekintza-plana» izenarekin Batzordeak argitaratutako Jakinarazpenari jarraiki, lege-esparrua egokitu egin behar da, interes haiek babesteko.

(3) Kontseiluaren 2913/92 (EEE) Erregelamendua —1992ko urriaren 12koa, Erkidegoaren aduana-kodea onartu zuena ⁽⁴⁾— 1980ko hamarkadan estatu kide bakoitzean aplikatutako aduana-erregimenak bateratuta osatu zen. Onartu zenetik, aldaketa ugari eta sakonak izan ditu Erregelamendu hark, fede ona babesteko, segurtasun-baldintzak aintzat hartzeko eta bestelako behar zehatzei erantzuteko. Gaur egun, kodea berriro aldatu beharra dago, azken urteotan Erkidegoan eta nazioartean izandako lege-aldaketa sakonei erantzun ahal izateko; adibide batzuk: Ikatzairen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren mugaeguneratzea, 2003ko eta 2005eko bat-egite aktak indarrean sartzeari, Aduana Erregimenak Sinplifikatzeko eta Bateratzeko Nazioarteko Hitzarmena Zuzentzeko Protokoloa (aurreratzean «Kiotoko Hitzarmen Berrikusia»), Erkidegoak Kontseiluaren 2003/231/EE Erabakiaren bidez onartu zuena ⁽⁴⁾. Aduana-erregimenak arrazionalizatzeko garaia iritsi zaigu eta, horrekin batera, kontuan hartu behar dugu deklarazio eta tramitazio elektronikoen nagusitu direla eta paperez egindakoak salbuespen direla gaur egun. Horregatik guztiatik, ez da aski oraingo kodea aldatzea, eta goitik behera berrikusi beharra daukagu.

(1) C 309 EO, 2006/12/16koa, 22. or.

(2) Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko abenduaren 12koa, Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2007ko urriaren 15koa (C 298 E EO, 2007/12/11koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko otsailaren 19koa.

(3) L 302 EO, 1992/10/19koa, 1. or. Azkenik 1791/2006 (EE) Erregelamenduak (L 363 EO, 2006/12/20koa, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

(4) L 86 EO, 2003/04/03koa, 21. or. 2004/485/EE Erabakiak (L 162 EO, 2004/04/30koa, 113. or.) aldatutako Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(4) Kodean zuzenbide-esparru bat jaso behar da, Kontseiluaren 2006/112/EE Zuzentarauko —2006ko azaroaren 28koa, balio erantsiaren zergaren sistema komunari buruzkoa⁽¹⁾— xedapenak aplikatu behar zaizkion aduana-lurraldeko aldean eta lurralde horren barruan xedapenok aplikatzekoak ez diren aldean arteko merkantzia-merkataritzari nahiz xedapen horiek aplikatu behar ez zaizkien aldean arteko merkataritzari aduana-legeriako zenbait xedapen aplikatzearen. Aipagai ditugun merkantziak Erkidego barruko merkantziak direla kontuan hartuta, eta Erkidego barruko merkataritza horretan aplikatzen diren neurriek izaera fiskala dutenez, bidezkoa da merkantzia horiei aplikatu beharreko aduana-izapideetan dagozkion prozedura sinplifikatuak onartzea, aplikazio-neurrien bidez.

(5) Legebidezko merkataritza errazteko eta iruzurraren aurka borrokatzeko, aduana-erregimen eta prozedura sinple, bizkor eta uniformeak onartu behar dira. Horrenbestez, Batzordearen «merkataritzarako eta aduanetarako ingurune sinplifikatua eta paper-euskarririk gabea» izeneko Jakinarazpenarekin bat etorritik, komeni da aduana-legeria sinplifikatzea, teknologia eta tresna modernoak erabili ahal izateko, legeria horren aplikazio uniformeari bultzada bat emateko eta aduana-kontrolatan aplika daitezkeen ikuspegiak modernizatzeko, aduana-izapide erraz eta eraginkor batzuetarako oinarriak finkatzearen, horrela. Aduana-erregimenak bateratu edo parekatu egin behar dira, eta haien kopurua ekonomikoki bidezkoa den kopurura murriztu behar da, horren bidez, enpresen lehiakortasuna areagotzeko.

(6) Barne-merkatua sendotu, merkataritzarako oztupoak murriztu, nazioarteko inbertsioak bultzatu eta Erkidegoaren kanpo-mugetako segurtasun eta babesa gero eta gehiago ziurtatu beharra dago. Faktore horiek guztiek aduana-agintarien zeregina aldarazi dute, eta garrantzi handiagoa eman diete hornikuntza-katean. Gainera, egiten duten nazioarteko merkataritzaren jarraipen eta kudeaketaren ondorioz, herrialdeen eta enpresen arteko lehiakortasunaren akuilu handi bihurtu dira. Aduana-araudiak, beraz, egoera ekonomiko berria eta aduana-agintariak bete beharreko zeregin berria islatu behar ditu.

(7) Merkataritza bultzatu eta, aldi berean, aduana-kontrolen eraginkortasuna ziurtatzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabili behar dira ezinbestean, bat etorritik Europako Parlamentuak eta Kontseiluak aduanetan eta merkataritzan paperik ez erabiltzeari buruz hartzekoak diren Erabakiarekin. Teknologia horiek enpresen kostuak eta gizartearentzako arriskuak murrizten laguntzen dute. Horrenbestez, Erabaki hori aplikatu ahal izateko zuzenbide-esparrua finkatu behar da kodean, aduana- eta merkataritza-salerosketa guztiak elektronikoki bideratu behar direla eta aduana-salerosketa egiteko erabilitako informazio- eta komunikazio-sistema guztiek estatu kide guztietako operadore ekonomiko guztiei aukera berberak eman behar dizkietela dioen printzipio juridikoari dagokionez bereziki.

(8) Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzearekin batera, estatu kideek aduana-kontrolak modu bateratu eta normalizatuan egin behar dituzte, Erkidego osoan pareko kontrol-maila dagoela ziurtatu eta Erkidegoan sartzeko nahiz handik ateratzeko gunetan lehiakortasunaren aurkako jarrerarik ez dagoela ziurtatzearen.

(9) Enpresen jarduera bultzatu eta, aldi berean, Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen eta handik ateratzen diren merkantzien gaineko kontrol-maila egokia bermatzearen, datuak babesteko aplikatu beharreko xedapenez gain, komeni da operadore ekonomikoek ematen duten informazioa partekatzea kontrol horretan parte hartzen duten aduana-agintariekin eta gainerako agintari eta erakundeekin (polizia, muga-zaindariak, albaitaritza-agintariak, ingurumen-agintariak, adibidez). Horrekin batera, erakunde desberdinek egindako kontrolak bateratu behar dira, operadore ekonomikoek informazioa behin bakarrik aurkeztu behar izan dezaten, eta merkantziak aldi berean eta leku berean kontrola ditzaten erakunde edo agintari horiek.

(10) Enpresa-mota jakin batzuen jarduerak erraztearen, pertsona guztiek eskubidea izango dute aduana-agintariekiko harremanez arduratzeko ordezkari bat izendatzeko. Estatu kide bateko inongo legek ezin du ordezkartza-eskubide hori galarazi. Gainera, finkatuta daudenaz bestelako estatu kideetan ere beren zerbitzuak emateko baimena izango dute operadore ekonomiko baimenduaren estatutua jasotzeko irizpideak betetzen dituzten aduana-ordezkariek.

(1) L 347 EO, 2006/12/11koa, 1. or. Azkenik 2008/8/EE Zuzentarauak (L 44 EO, 2008/02/20koa, 11. or.) aldatutako Zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(11) Era berean, operadore ekonomiko zuzen eta fidagarriek, «operadore ekonomiko baimenduak» diren aldetik, administrazio-simplifikazioari ahalik eta etekin handiena atera ahal izan beharko diote eta, segurtasun-eta babes-premiak alde batera utzi gabe, aduana-kontrol murriztagoez baliatu ahal izan beharko dute, halaber. Horrela, «adua-simplifikazioaren» barruan baimendutako operadore ekonomikoen estatutua eta «segurtasun eta babesaren» esparruan baimendutako operadore ekonomikoen estatutua eskuratu ahal izango dituzte, biak batera nahiz bata edo bestea.

(12) Aduana-legeak oinarritzat hartuta, pertsona batengan edo gehiagorengan ondorio juridikoak dituzten aduana-agintariek hartutako erabaki guztiek, hau da, haien egintza ofizial guztiek (agintari haiek emandako informazio loteslea barne), xedapen berberak bete beharko dituzte. Erabaki horiek Erkidego osoan izango dute balioa eta, aduana-legeriarekin nahiz legeria hori interpretatzeko xedapenekin bat ez badatoz, erabakiok ezabatu, aldatu —besterik dioen xedapenik egon ezean— edo atzera bota ahal izango dira.

(13) Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunarekin bat etorritik, aduana-agintariek hartutako erabakien aurka helegitea aurkezteko eskubideaz gain, haien kalterako erabakirik hartu aurretik, pertsona guztiei eskubidea onartu behar zaie esateko dutena aditzera emateko.

(14) Aduana-erregimenak ingurune elektroniko batean arrazionalizatzeko, estatu kideetako aduana-agintariek erantzukizunak partekatu behar dituzte. Barne-merkatu osoan zigor eraginkor, neurritsu eta eragozleak aplikatzen direla ziurtatu behar da.

(15) Aduana-agintariek Erkidegoko legeria ondo aplikatzen dela ziurtatzeko duten betebeharraren eta operadore ekonomikoek bidezko tratua jasotzeko duten eskubidearen arteko oreka lortzeko, agintari haiek kontrol-ahalmen handiak izan behar dituzte, eta operadore ekonomikoek gora jotzeko eskubidea gauzatu ahal izan beharko dute.

(16) Erkidegoarentzako, bertako herritarrentzako nahiz bere bazkide komertzialentzako arriskuak murriztearen, estatu kideetan aduana-kontrolak modu bateratuan aplikatzeko garaian, arriskuak kudeatzeko esparru komuna hartu beharko da oinarritzat, eta hura aplikatzeko sistema elektronikoa erabili. Dena den, esparru komun hori estatu kide guztietan ezartzeak ez du ekarriko estatu kideek merkantzien ausazko kontrolak ez egitea.

(17) Merkantzien merkataritzari inportazio- eta esportazio-eskubideak eta bestelako neurriak aplikatzeko oinarritzat hartu beharreko faktoreak ere finkatu behar dira. Era berean, merkataritzaren premien ondorioz beharrezkoa gertatzen denean, Erkidegoaren barruko jatorri-probak egiteko xedapen argiak onartu behar dira.

(18) Inportazioari lotutako aduana-zorrrak sortzen diren zuzenbide-esparrua zehazteko arazoak saihesteko, komeni da halako zorrrak eragiten dituzten kasu guztiak multzokatzea, aduanan garraio askerako izapidetutako merkantzia baten deklarazioa edo salbuespen partziala duen aldi baterako inportazio-deklarazioa aurkezten den kasuetan izan ezik. Neurri hori aplikatu behar zaie esportazioari lotutako aduana-zorrei ere.

(19) Aduana-agintarien zeregin berriari jarraiki, barne-aduanek eta mugetako aduanek elkarrekin jardun eta erantzukizunak partekatu behar dituztela kontuan izanik, aduana-zorra zorduna finkatuta dagoen lekuan sortuko da kasu gehienetan, leku horretako eskumeneko aduana baita haren jarduerak ongien ikuska ditzakeena.

(20) Gainera, Kiotoko Hitzarmen berrikusiarekin bat etorritik, aduana-zorra non sortu den erabaki eta eskubideak jasotzeko, bi estatu kideren edo gehiagoren arteko lankidetzaren administrazioa beharko den kasu gutxi batzuk aurreikusi beharko dira.

(21) Erregimen berezien kasuan, guztiek ere berme bakarra erabili ahal izateko eta berme horrek hainbat salerosketa babesteko xedapenak onartu beharko dira (berme orokorra).

(22) Erkidegoaren eta estatu kideen finantza-interesak ahalik eta ongien babestearren, bermearen barruan geldituko dira bidalketaren barruan edo aurkeztutako deklarazioaren barruan dauden baina adierazi gabe edo gaizki adierazita dauden merkantziak ere. Helburu berari jarraiki, fidatzaileak bere gain hartu beharko du

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

jasotzearen ondoren egindako kontrolen ondorioz ordaindu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ere.

(23) Finantza-interes horiek berak babestu eta iruzurrezko jardunak oztopatzeko, komeni da berme orokorra pixkanaka aplikatzen joateko xedapenak onartzea. Iruzurra gertatzeko arrisku handia dagoen kasuetan, berme hori erabiltzea galarazi beharko da aldi baterako, esku hartzen duten operadore ekonomikoen egoera zehatza kontuan hartuta.

(24) Bestalde, aduana-legeria urratzearen ondorioz sortutako aduana-zorren kasuan, kontuan hartu beharko da eragileen fede ona, zordunaren zabarkeriaren ondorioak ahalik eta gehien murriztearekin batera.

(25) Erkidegoko merkantzien estatutua eta hura galtzea eragiten duten gorabeherak zehazteko modua finkatu behar da, bai eta, merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik aldi baterako atera arren, estatutu hori aldatuko ez den kasuak erabakitze modua ere.

(26) Operadore ekonomikoek arriskuan oinarritutako onarpen-kontrolak egiteko behar den informazio guztia aldeztetik aurkeztuz gero, merkantziak arinago jasotzeko aukera bultzatu beharra dago. Kontrol fiskal eta komertzialak, nagusiki, eragileak lokalak dauzkan lekuko eskumeneko aduanak egin behar ditu.

(27) Aduana-deklarazioei eta merkantziak aduana-erregimen jakin batean sartzeari aplikatu beharreko xedapenak modernizatu eta arrazionalizatu egin behar dira: aduana-deklarazioak bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dira, oro har, eta deklarazio sinplifikaturako eredu bakarra finkatu beharko da.

(28) Kiotoko Hitzarmen berrikusiak aduana-deklarazioak merkantziak iritsi aurretik aurkeztu, erregistratu eta kontrolatzea bultzatzen du, batetik, eta deklarazioa aurkezteko lekua merkantziak fisikoki daudenaz bestelako lekua izateko aukera ematen du, bestetik. Hori dela eta, komeni da izapidea operadore ekonomikoa dagoen lekuan zentralizatzea. Izapide zentralizatu horri jarraiki, aukera eman beharko da deklarazio sinplifikatuak erabiltzeko, deklarazio osoa eta eskatutako gainerako dokumentuak aurkezteko epea atzeratzeko, aldiroko deklarazioak aurkezteko eta ordainketak atzeratzeko.

(29) Erkidego osoan lehiarako baldintza neutroak daudela ziurtatzearen, aduana-agintariek merkantziak suntsitzeari nahiz lagatzeari buruzko arau batzuk finkatu behar dira Erkidego osoan. Orain arte estatu-mailan arautzen ziren halakoak.

(30) Erregimen berezien kasuan (igarotza, gordailua, norako berezia eta perfektionamendua), arau komun eta erraz batzuk finkatu behar dira, kasu bakoitzari buruzko arau zehatz batzuekin batera, eragileak erregimen egokia errazago aukeratu, okerrak saihestu eta merkantziak jaso ondorengo bilketa eta itzulketen kopurua murriztearren.

(31) Berme bakarra izanik eta zaintza-aduana bakarretik igarota, hainbat erregimen berezitarako balio duten baimenak eman behar dira, eta aduana-zorren sorrera arautzen duten arau errazak finkatu behar dira halako kasuetarako. Erregimen berezi batean sartutako merkantziak, eta haietatik sortutako produktuak, aduana-zorra sortzen den unean balioztatu behar dira, funtsean. Dena den, merkantzia horiek erregimen berezian sartzen diren unean balioztatu ahal izango dira, hori egiteko arrazoi ekonomikoak dauden kasuetan. Printzipio horiek manipulazio-forma arruntei ere aplikatu behar zaizkie.

(32) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2005 (EE) Erregelamenduak —2005eko apirilaren 13koa, Kontseiluaren 2913/92 (EEE) Erregelamendua (Erkidegoko aduana-kodea onartu zuena) aldatzen duena⁽¹⁾— kodean segurtasun-neurri handiagoak sartu dituzenez, merkantziak zona franko batean sartzeari aduana-erregimen bihurtuko da eta merkantzia horiei sarrerako kontrolak eta erregistro-kontrolak egingo zaizkie aduanan.

(33) Birresportatzeko xedea jada beharrezkoa ez denez, perfektionamendu aktiboa eteteko erregimena aduana-kontrolpeko eraldaketa-erregimenarekin batuko da eta perfektionamendu aktiboa itzultzeko erregimena

(1) L 117 EO, 2005/05/04koa, 13. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ezabatu egingo da. Suntsiketa ere perfektionamendu aktiboko erregimen bakar horren barruan sartuko da, hura aduanak berak edo aduanaren zaintzapean egiten den kasuetan izan ezik.

(34) Bestalde, Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen diren Erkidegoko merkantziei aplikatu beharreko segurtasun-arauak aplikatu beharko zaizkie Erkidegokoak ez diren merkantzien birresportazioari ere. Atal honetaz ari garela, merkantzia-mota guztiei oinarritzko xedapen berberak aplikatu beharko zaizkie, baina beharrezko kasuetan salbuespenak onartuko dira, merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik bakarrik igarotzen diren kasuetan, esate baterako.

(35) Erregelamendu hau aplikatzeko beharrezko aplikazio-neurriak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin — 1999ko ekainaren 28koa, Batzordearen esku utzitako betearazte-eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatu zituen⁽²⁾— bat etorri onartu beharko dira.

(36) Kode hau aplikatzeko neurriak hartzea komeni da, halaber. Arau horiek 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 5. artikuluetan finkatutako kudeaketa- eta arautze-prozedurekin bat etorri onartu behar dira.

(37) Batzordeari eskumen batzuk eman behar zaizkie kode hau eraginkortasunez aplikatzeko baldintzak eta beharrezko irizpideak finka ditzan. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, edo hura funtsezkoak ez diren alderdi berriekin osatzen dutenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(38) Erabakiak hartzeko prozesu eraginkorra bermatzearen, komeni da aduana-legeriarekin zerikusia duten nazioarteko hitzarmenen babesean edo haiei jarraiki eratutako adituen komite eta lan-taldeetan Erkidegoak hartu beharreko jarrera prestatzearekin zerikusia duten alderdiak aztertzea.

(39) Gardentasuna ziurtatzearen, aduana-araudia sinplifikatu eta arrazionalizatu beharra dago, eta kodean sartu beharko dira orain banatuta dauden Erkidegoko egintzetan jasotako xedapen batzuk. Horrenbestez, 2913/92 (EEE) Erregelamenduaz gain, beste Erregelamendu hauek ere indarrrik gabe geldituko dira: Kontseiluaren 3925/91 (EEE) Erregelamendua —1991ko abenduaren 19koa, Erkidego barruko hegaldiak egiten dituzten pertsonen fakturatutako ekipajeei, haien eskuko ekipajeei eta Erkidego barruko itsas bidaiak egiten dituzten pertsonen ekipajeei aplikatu beharreko kontrol eta izapideak ezabatzeari buruzkoa⁽³⁾— eta Kontseiluaren 1207/2001 (EE) Erregelamendua —2001eko ekainaren 11koa, Erkidegoan jatorri-probak luzatzea edo ematea eta Europar Erkidegoaren eta herrialde jakin batzuen arteko lehentasunezko trukeak arautzen dituzten xedapenak aplikatuz esportatzaile baimendua izateko baimen jakin batzuk luzatzea errazteko prozedurei buruzkoa⁽⁴⁾—.

(40) Erregelamendu honen helburua —Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen diren eta handik ateratzen diren merkantziei aplikatu beharreko xedapen eta prozedurak finkatzea, aduana-batasunak ondo funtziona dezan barne-merkaturako funtsezko oinarri gisa— lortzea estatu kideen esku bakarrik ez dagoenez eta, ondorioz, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak hainbat neurri har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioarekin bat etorri. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez da joaten helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

AURKIBIDEA

Orrialdea

I. TITULUA	XEDAPEN OROKORRAK	7
1. KAPITULUA	Aduanei buruzko legeen aplikazio-eremua, aduanen egitekoa eta definizioak	7

(2) L 184 EO, 1999/07/07koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.) aldatutako Erabakia.

(3) L 374 EO, 1991/12/31koa, 4. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1882/2003 Erregelamendua (L 284 EO, 2003/10/31koa, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

(4) L 165 EO, 2001/06/21ekoa, 1. or. Azkenik (EE) 75/2008 Erregelamendua (L 24 EO, 2008/01/24koa, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. KAPITULUA	<i>Pertsonen eskubide eta betebeharrak, aduanei buruzko legeriaren barruan</i>	10
1. ATALA	Informazioa ematea	10
2. ATALA	Aduana-ordezkaritza	11
3. ATALA	Operadore ekonomiko baimendua	12
4. ATALA	Aduanei buruzko legeak aplikatzearen inguruko erabakiak	13
5. ATALA	Zigorrak	15
6. ATALA	Baliabideak	15
7. ATALA	Merkantzien kontrola	16
8. ATALA	Dokumentu eta datuak gordetzea. Kargak eta kostuak	17
3. KAPITULUA	<i>Dibisak aldatzea eta epeak</i>	18
II. TITULUA	INPORTATZEKO ETA ESPORTATZEKO ESKUBIDEAK APLIKATZEKO OINARRITZAT HARTUTAKO ELEMENTUAK ETA MERKANTZIEN MERKATARITZARAKO BESTE NEURRI BATZUK	18
1. KAPITULUA	<i>Aduana-tarifa bateratua eta merkantzien sailkapen arantzelarioa</i>	18
2. KAPITULUA	<i>Merkantzien jatorria</i>	19
1. ATALA	Lehentasunezkoa ez den jatorria	19
2. ATALA	Lehentasunezko jatorria	19
3. KAPITULUA	<i>Merkantzien balioa aduanan</i>	20
III. TITULUA	ADUANA-ZORRA ETA BERMEAK	21
1. KAPITULUA	<i>Aduana-zorren jatorria</i>	21
1. ATALA	Inportazioari lotutako aduana-zorra	21
2. ATALA	Inportazioari lotutako aduana-zorra	22
3. ATALA	Inportatzeko eta esportatzeko garaian sortutako aduana-zergei dagozkien xedapen komunak	23
2. KAPITULUA	<i>Badagoen edo sor litekeen aduana-zerga baten bermea</i>	24
3. KAPITULUA	<i>Eskubideak kobratzea eta itzultzea eta inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa barkatzea</i>	26
1. ATALA	Inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa finkatzea, aduana-zorra jakinaraztea eta zorra sortzea	26
2. ATALA	Inportazio- eta esportazio-eskubideen zenbatekoa ordaintzea	28
3. ATALA	Inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa itzultzea eta barkatzea	30
4. KAPITULUA	<i>Aduana-zorra amaitzea</i>	31
IV. TITULUA	ERKIDEGOKO ADUANA-LURRALDEAN SARTUTAKO MERKANTZIAK	32
1. KAPITULUA	<i>Sarrera-deklarazio laburtua</i>	32
2. KAPITULUA	<i>Merkantziak iristea</i>	33
1. ATALA	Merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzea	33
2. ATALA	Merkantziak aurkeztea, deskargatzea eta aztertzea	35
3. ATALA	Aurkezpenaren osteko izapideak	35
4. ATALA	Igarotza-erregimen baten babespean ibilitako merkantziak	35
V. TITULUA	ADUANA-ESTATUTUARI, MERKANTZIAK ADUANA-ERREGIMEN BATEAN SARTZEARI ETA MERKANTZIAK EGIAZTATU, JASO ETA LAGATZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK	36
1. KAPITULUA	<i>Merkantzien aduana-estatutua</i>	36
2. KAPITULUA	<i>Merkantziak aduana-erregimen batean sartzea</i>	36
1. ATALA	Xedapen orokorrak	36
2. ATALA	Aduana-deklarazio normalak	37
3. ATALA	Aduana-deklarazio sinplifikatuak	38
4. ATALA	Aduana-deklarazio guztiei aplikatu beharreko xedapenak	38
5. ATALA	Beste sinplifikazio batzuk	39
3. KAPITULUA	<i>Merkantziak egiaztatu eta jasotzea</i>	40
1. ATALA	Egiaztatzea	40
2. ATALA	Jasotzea	41
4. KAPITULUA	<i>Merkantziak lagatzea</i>	41

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

VI. TITULUA	GARRAIO ASKERAKO IZAPIDEA ETA INPORTAZIO-ESKUBIDEAK	ORDAINTZEKO
SALBUESPENA	42	
1. KAPITULUA	<i>Garraio askerako izapidea</i>	42
2. KAPITULUA	<i>Inportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena</i>	42
1. ATALA	<i>Itzulerako merkantziak</i>	42
2. ATALA	<i>Itsas arrantza eta itsasotik ateratako produktuak</i>	43
3. ATALA	<i>Aplikazio-neurriak</i>	43
VII. TITULUA	ERREGIMEN BEREZIAK	43
1. KAPITULUA	<i>Xedapen orokorrak</i>	43
2. KAPITULUA	<i>Igarotza</i>	46
1. ATALA	<i>Kanpo- eta barne-igarotza</i>	46
2. ATALA	<i>Erkidegoko igarotza</i>	47
3. KAPITULUA	<i>Gordetzea</i>	47
1. ATALA	<i>Xedapen komunak</i>	47
2. ATALA	<i>Aldi baterako gordetzea</i>	48
3. ATALA	<i>Aduanako gordetegia</i>	49
4. ATALA	<i>Zona frankoak</i>	49
4. KAPITULUA	<i>Norako bereziak</i>	50
1. ATALA	<i>Aldi baterako inportazioa</i>	50
2. ATALA	<i>Amaierako norakoa</i>	51
5. KAPITULUA	<i>Perfekzionamendua</i>	51
1. ATALA	<i>Xedapen orokorrak</i>	51
2. ATALA	<i>Perfekzionamendu aktiboa</i>	52
3. ATALA	<i>Perfekzionamendu pasiboa</i>	52
VIII. TITULUA	MERKANTZIAK ERKIDEGOKO ADUANA-LURRALDETIK ATERATZEA	53
1. KAPITULUA	<i>Aduana-lurraldetik ateratzen diren merkantziak</i>	53
2. KAPITULUA	<i>Esportazioa eta birresportazioa</i>	54
3. KAPITULUA	<i>Esportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena</i>	55
IX. TITULUA	ADUANA-KODEAREN KOMITEA ETA AZKEN XEDAPENAK	56
1. KAPITULUA	<i>Aduana-kodearen komitea</i>	56
2. KAPITULUA	<i>Azken xedapenak</i>	56
ERANSKINA	BALIOKIDETZA-TAULAK	58

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. KAPITULUA

Aduanei buruzko legeen aplikazio-eremua, aduanen egitekoa eta definizioak

1. artikulua

Xedea eta aplikazio-eremua

1. Erregelamendu honen bidez Erkidegoaren aduana-kodea (aurrerantzean «kodea») finkatzen da. Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen diren eta handik ateratzen diren merkantziei aplikatu beharreko xedapen eta prozedura orokorrak jasotzen dira bertan.

Erkidegoko aduana-lurralde osoan uniformeki aplikatuko da kodea, beste esparru batzuetan aplikatu beharreko zuzenbidea, nazioarteko hitzarmenak eta Erkidegoko araudiak alde batera utzi gabe.

2. Aduana-legeriako zenbait xedapen Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo aplikatu ahal izango dira, esparru bereziak arautzen dituzten arauak eta nazioarteko hitzarmenek hori aurrekusten duten kasuetan.

3. Aduana-legeriako zenbait xedapen, bertan jasotako prozedura sinplifikatuak barne, 2006/112/EE Zuzentarauko xedapenak aplikatu behar zaizkion Erkidegoko aduana-lurraldeen eta hura aplikatzekoa ez den

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

lurralde horren zatien arteko merkantzien merkataritzari eta xedapen horiek aplikatzekoak ez diren lurralde horren zatien arteko merkataritzari aplikatuko zaizkie.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta lehen lerrokadan aipatutako xedapenak eta haiek aplikatzeko izapide sinplifikatuak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira. Merkantzien merkataritzan estatu kide bakarrak parte hartzen duen kasuetan, aintzat hartu beharko dira neurri horietan egoera horri dagozkion gorabehera bereziak.

2. artikulua

Aduana-agintarien egitekoa

Erkidegoaren nazioarteko merkataritza ikuskatzeko ardura izango dute aduana-agintariek, eta lagundu egin beharko dute merkataritza bidezkoa eta irekia lortzen, barne-merkatuaz kanpoko alderdiak aplikatzen, merkataritza-politika komuna eta merkataritzarekin zerikusia duten gainerako politika komunak betearazten eta hornikuntza-katearen segurtasun osoa bermatzen. Aduana-agintariek dagozkien neurriak hartu beharko dituzte, helburu hauek lortzeko:

- a) Erkidegoaren eta estatu kideen finantza-interesak babestea;
- b) Erkidegoa merkataritza bidegabetik eta legez kanpoko merkataritzatik babestea, legebidezko merkataritza-jarduerak babestearekin batera;
- c) Erkidegoaren eta bertako biztanleen segurtasuna eta babesa eta ingurumenaren babesa bermatzea eta, hala dagokionean, elkarlan estuan jardutea beste agintari batzuekin;
- d) oreka egokia lortzea aduana-kontrolak egitearen eta legebidezko merkataritza erraztearen artean.

3. artikulua

Aduana-lurraldea

1. Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen dira ondoren aipatzen diren lurraldeak, lurraldeon itsasoekin, barne-urekin eta aire-espazioarekin batera:

- Belgikako Erresumako lurraldea,
- Bulgariako Errepublikako lurraldea,
- Txekiar Errepublikako lurraldea,
- Danimarkako Erresumako Lurraldea, Faroe uharteak eta Groenlandia izan ezik,
- Alemaniako Errepublika Federaleko lurraldea, Heligoland uhartea eta Buesingen lurraldea izan ezik (1964ko azaroaren 23an Alemaniako Errepublika Federalak eta Suitzako Konfederazioak sinatutako Tratatuak),
- Estoniako Errepublikako lurraldea,
- Irlandako lurraldea,
- Heleniar Errepublikako lurraldea,
- Espainiako Erresumako lurraldea, Ceuta eta Melilla izan ezik,
- Frantziako Errepublikako lurraldea, Kaledonia Berria, Mayotte, Saint Pierre eta Mikelune, Wallis eta Futuna, Polinesia Frantziarra eta Frantziaren lurralde austral eta antartikoak izan ezik,
- Italiako Errepublikaren lurraldea, Livigno eta Campione d'Italia udalerrak eta Luganoko aintzirako ur nazionalak (Ponte Tresaren eta Porto Ceresioren arteko eremuko muga politikoaren eta itsasertzaren artekoak) izan ezik,
- Zipreko Errepublikaren lurraldea, 2003ko Bat-egite Aktako xedapenekin bat etorritik,
- Letoniako Errepublikako lurraldea,
- Lituaniako Errepublikako lurraldea,
- Luxenburgoko Dukerri Handiko lurraldea,
- Hungariako Errepublikako lurraldea,
- Maltako lurraldea,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- Herbehereetako Erresumako europar lurraldea,
- Austriako Errepublikako lurraldea,
- Poloniako Errepublikako lurraldea,
- Portugalgo Errepublikako lurraldea,
- Errumaniako lurraldea,
- Esloveniako Errepublikako lurraldea,
- Eslovakiako Errepublikako lurraldea,
- Finlandiako Errepublikako lurraldea,
- Suediako Erresumako lurraldea,
- Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuko lurraldea, Anglonormandar uharteak eta Man Uharteak.

2. Aplikatzekoak diren hitzarmen eta itunak kontuan hartuta, aduana-lurraldearen zatitzat hartzen dira jarraian aipatzen diren estatu kideen lurraldetik kanpoko lurraldeak, lurraldeon itsasoa, barne-urak eta aire-espazioa barne:

a) FRANTZIA

Monakoko lurraldea, Parisen 1963ko maiatzaren 18an sinatutako aduana-hitzarmenean (*Journal officiel de la République française*, 1963/09/27koa, 8.679. or.) zehaztutako moduan;

b) ZIPRE

Erresuma Batuaren burujabetza-eremuen mendeko Akrotiriko eta Dhekeliako lurraldea, 1960ko abuztuaren 16an Nikosian sinatutako Zipreko Errepublika Eratzeko Tratatuan (*United Kingdom Treaty Series*, 4. zk. (1961), Cmnd. 1252) zehaztutako moduan.

4. artikulua

Definizioak

Kode honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

1) «aduanagintariak»: aduana-legeria aplikatzeko eskumena duten estatu kideetako aduanetako administrazioak, bai eta estatu-mailako legeek legeria horretako xedapen jakin batzuk aplikatzeko gaitutako beste edozein agintari ere;

2) «aduanalegeria»: arau hauek osatutako lege-multzoa:

a) kodea eta Erkidego-mailan (eta, hala badagokio, estatu-mailan) hura aplikatzeko onartzen diren xedapenak;

b) aduana-tarifa bateratua;

c) Erkidego-mailako aduana-frankizien erregimena ezartzeari buruzko legeak;

d) Erkidegoan aplikatu beharreko aduana-xedapenak jasotzen dituzten nazioarteko hitzarmenak;

3) «aduanakontrolak»: aduana-agintariak egindako egintza zehatzak ziurtatzeko behar bezala aplikatzen direla aduana-legeria eta Erkidegoko aduana-lurraldearen eta beste lurralde batzuen artean dabilen merkantzien sarrera, irteera, igarotza, transferentzia, gordailutzea eta amaierako norakoari buruzko nahiz aduana-lurraldean Erkidegoaz kanpoko merkantziak eta amaierako norakoari dagokion erregimenean sartutako merkantziak egoteari eta ibiltzeari buruzko gainerako xedapenak;

4) «pertsonek»: pertsona fisiko nahiz juridikoak eta, pertsona juridikoa izan gabe ere, Erkidegoko nahiz estatuetako legeei jarraiki egintza juridikoak egiteko ahalmena duten pertsona-elkarteak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- 5) «operadore ekonomikoa»: bere lanbide-jardueran, aduana-legeriak araututako jardueretan parte hartzen duen pertsona;
- 6) «adua-na-ordezkar-ia»: aduana-legeriari jarraiki beharrezkoak diren egintza eta izapideak egiteko eta aduana-agintarieki-ko harremanetan jarduteko beste norbaitek izendatutako pertsona;
- 7) «arriskua»: Erkidegoko aduana-lurraldearen eta Erkidegoaz kanpoko beste lurralde edo herrialde batzuen artean dabil-tzan merkantzien sarrera, irteera, igarotza, transferentzia eta amaierako norakoarekin nahiz Erkidegoko estatuturik ez daukaten merkantziak egotearekin erlazioa daukan gertakari bat gertatzeko probabilitatea, gertakari horrek honako ondorioetako bat baldin badauka:
- a) Erkidegoko nahiz estatu-mailako xedapenak behar bezala ezin aplikatu ahal izatea;
 - b) Erkidegoaren eta estatu kideen finantza-interesak arriskuan jartzea;
 - c) Erkidegoaren eta bertako biztanleen segurtasun eta babeserako, osasun publikorako, animalia eta landareen osasunerako, ingurumenerako nahiz kontsumitzaileentzako mehatxua izatea;
- 8) «adua-na-izapideak»: aduana-legeria betetzeko pertsona jakin batek eta aduana-agintariek egin beharreko eragiketa guztiak;
- 9) «deklarazio laburtua» (sarrera-deklarazio laburtua eta irteera-deklarazio laburtua): pertsona batek aduana-agintariei, finkatutako modu eta moldean, eta hori gertatzen den unean bertan edo alde z aurretik, merkantzia jakin batzuk Erkidegoko aduana-lurraldean sartuko direla edo handik aterako direla jakinarazten dieneko egintza;
- 10) «adua-na-deklarazioa»: pertsona batek, finkatutako modu eta moldean, merkantzia batzuk aduana-erregimen jakin batean sartzeari nahi duela adierazten dueneko egintza (hala badagokio, aplikatu beharreko xedapen bereziak aipatu beharko ditu);
- 11) «deklarazio-egilea»: deklarazio laburtua nahiz birresortazio-jakinarazpena aurkeztu edo bere izenean aduanan deklarazio bat egiten duen pertsona, edo deklarazioa beste inork eginez gero deklarazioaren arduradun gisa agertzen den pertsona;
- 12) «adua-na-erregimena»: merkantziak kode honi jarraiki sailkatzeko edozein erregimen, hau da:
- a) garraio askerako izapidea;
 - b) erregimen bereziak;
 - c) esportazioa;
- 13) «adua-na-zorra»: indarrean dagoen aduana-legeriari jarraiki merkantzia zehatz batzuk inportatu nahiz esportatzeagatik ordaindu beharreko eskubideen zenbatekoa ordaintzeko betebeharra;
- 14) «zorduna»: aduana-zorra duen edozein;
- 15) «inportazio-eskubideak»: merkantziak inportatzeagatik ordaindu beharreko aduana-eskubideak;
- 16) «esportazio-eskubideak»: merkantziak esportatzeagatik ordaindu beharreko aduana-eskubideak;
- 17) «adua-na-estatutua»: merkantzia baten estatutua, Erkidegoko merkantzia edo Erkidegoz kanpoko merkantzia gisa;
- 18) «Erkidegoko merkantziak»: irizpide hauetakoren bat betetzen dutenak:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) Erkidegoko aduana-lurraldean eskuratuak izatea osorik, eta ez izatea haren aduana-lurraldetik kanpoko inongo herrialde edo lurraldetatik inportatutako batere merkantziarik. Osorik Erkidegoko aduana-lurraldean eskuratutako merkantziek ez dute Erkidegoko merkantzien estatuturik izango, 101. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatiarekin bat etorritik finkatutako kasuetan, kanpo-igarotzako, gordetzeko, aldi baterako inportazioko nahiz perfektionamendu aktiboko erregimen batean sailkatutako merkantzietatik eskuratzen badira;

b) Erkidegoko aduana-lurraldean sartzea lurralde horretatik kanpoko beste herrialde edo lurralde batzuetatik, eta garraio askerako izapidetzea;

c) Erkidegoko aduana-lurraldean eskuratzea edo ekoiztea, b) idatz-zatian aipatutako merkantziekin bakarrik edo a) eta b) idatz-zatietan aipatutako irizpideekin bat datozen merkantziekin;

19) «Erkidegoz kanpoko merkantziak»: 18. puntuan jasota ez dauden merkantziak edo Erkidegoko merkantzien aduana-estatutua galdu dutenak;

20) «arriskuak kudeaketa»: arriskuak sistematikoki hautematea eta haien eragina murrizteko behar diren neurri guztiak aplikatzea. Jarduera hauek egingo dira, besteak beste: datuak eta informazioa bildu, arriskuak aztertu eta ebaluatu, neurriak proposatu eta hartu, prozesuaren eta emaitzen jarraipena egin eta aldiro-aldiro berrikusi; guztia ere nazioarteko, Erkidego-mailako nahiz estatu-mailako iturri eta estrategiak oinarritzat hartuta.

21) «merkantziak jasotzea»: aduana-agintariek merkantziak dagokien aduana-erregimenaren helburu zehatzetarako erabiltzeko moduan jartzen dituzteneko egintza;

22) «aduanazaintza»: aduana-agintariek aduana-legeria betetzen dela ziurtatzeko egindako lanak. Hala badagokio, zeregin horri lotuta merkantziei aplikatu beharreko gainerako xedapenak ere betetzen direla ziurtatuko da;

23) «itzulketa»: ordaindutako inportazio- edo esportazio-eskubideak itzultzea;

24) «barkamena»: ordaindu gabeko inportazio- edo esportazio-eskubideak ordaindu beharrik ez izatea;

25) «produktu eraldatuak»: perfektionamendu-erregimenen barruan egindako eraldaketa-eragiketetatik ateratako produktuak;

26) «Erkidegoko aduana-lurraldean finkatutako pertsona»:

a) pertsona fisikoen kasuan, ohiko bizilekua Erkidegoko aduana-lurraldean duen edozein pertsona;

b) pertsona juridikoen eta pertsona-elkarteen kasuan, egoitza, enpresaren helbidea edo merkataritza-establezimendu iraunkorren bat Erkidegoko aduana-lurraldean duen edozein pertsona;

27) «aduanako aurkezpena»: aduana-agintariei jakinaraztea merkantziak aduanara nahiz haiek finkatutako edo baimendutako beste edozein lekutara iritsi direla eta aduana-kontrolak egiteko prest daudela;

28) «merkantzien titularra»: merkantzien gaineko jabetza edo haiek erabiltzeko antzeko eskubidea duen edo haien gaineko kontrol fisikoa duen pertsona;

29) «erregimenaren titularra»: aduanan deklarazioa egiten duen pertsona edo deklarazioaren arduradun gisa agertzen dena, edo aduana-erregimen baten barruan pertsona horren eskubide eta betebeharrak laga zaizkion pertsona;

30) «merkataritza-politikako neurriak»: merkataritza-politika komunaren barruan hartzen diren neurri ez-arantzelarioak (merkantzien nazioarteko merkataritza arautzeko Erkidego-mailako xedapenak izaten dira halakoak);

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

31) «eraldatze-eragiketak»: honako hauetako edozein:

- a) merkantziak manipulatzeari, haiek muntatu edo mihizatzea edo beste merkantzia batzuetan txertatzea barne;
- b) merkantziak eraldatzea;
- c) merkantziak suntsitzea;
- d) merkantziak konpontzea, zaharberritzea eta prest jartzea barne;
- e) produktu eraldatuaren zati ez izan arren produktu hori ekoizten laguntzen edo ahalbidetzen duten merkantziak erabiltzea, prozesuan halakoak guztiz nahiz zati batean kontsumitu arren (ekoizpenerako laguntzak);

32) «etekin-koefizientea»: perfektionamendu-erregimen batean jasotako merkantzien kopuru jakin bat eraldatuz lortzen den produktu eraldatuaren kopuru edo ehunekoa;

33) «mezua»: informazio-teknologiak eta ordenagailu-sareak erabiliz, pertsona, bulego edo agintari batetik bestera igorritako datuak jasotzen dituen eta finkatutako formatuan egin den jakinarazpena.

22. KAPITULUA

Pertsonen eskubide eta betebeharrak, aduanei buruzko legeriaren barruan

1. atala

Informazioa ematea

5. artikulua

Datuak trukatzeari eta gordetzei

1. Aduana-legeriari jarraiki aduana-agintarien artean eta haien eta operadore ekonomikoen artean trukaturako datu, laguntza-dokumentu, erabaki eta jakinarazpen guztiak bitarteko elektronikoen bidez egin behar dira. Aduana-legeriari jarraiki gorde beharreko datu horiek ere bitarteko berak erabiliz gordeko dira.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta lehen letrorikadan aipaturako xedapenen salbuespenak finkatzen dituztenak.

Neurri horietan finkatuko da datuak elektronikoki trukatu beharrean papera nahiz bestelako bitartekoren bat noiz erabil daitezkeen jakinarazpenak egiteko eta jakinarazpenok zein baldintzatan egin behar diren, alderdi hauek kontuan hartuta, bereziki:

- a) aduana-agintarien informatika-sistemek aldi baterako huts egitea;
- b) eragile ekonomikoen informatika-sistemek aldi baterako huts egitea;
- c) paperezko dokumentuen erabilera arautzen duten nazioarteko itun eta hitzarmenak;
- d) informatika-sistemak erabiltzeko aukerarik eta informazio elektronikoa eskuratzeko bitartekorik ez duten bidaiariak;
- e) deklarazioak ahoz nahiz beste edozein egintzaren bidez egiteko betekizun praktikoak.

2. Aduana-legeriak berariaz besterik ez badiu, Batzordeak beharrezko neurriak onartuko ditu, 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, honako hauek finkatzeko:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) aduana-legeria aplikatzeko, aduanek trukatu beharreko mezuak;

b) aduana-legeriari jarraiki trukatu beharreko mezuek jaso beharreko datuak eta izan beharreko formatu komuna.

Lehen lerrokadako b) idatz-zatian aipatutako datuek arriskuak aztertzeko eta aduana-kontrolak behar bezala egiteko behar den informazioa eman beharko dute, eta, hala dagokionean, datuok bat etorri beharko dute nazioarteko merkataritza-jardunekin eta araeekin.

6. artikulua

Datuak babestea

1. Aduana-agintariak beren zereginak betetzean eskuratutako informazio konfidentzial guztia (berez hala delako edo izaera hori eman zaiolako) sekretu profesionala gordetzeko betebeharrak babestuta egongo da. 26. artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoa alde batera utzi gabe, eskumeneko agintariak ezin izango dute informazio hori zabaldu, informazioa eman duen pertsonaren nahiz agintariaren berariazko baimenik izan ezean.

Informazio hori, halere, baimenik gabe zabaldu ahal izango da, aduana-agintariak horretara behartuta nahiz baimenduta daudenean, auzibideren baten barruan edo indarrean dauden xedapenei jarraiki (datuak babesteari buruzkoak, bereziki).

2. Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko herrialde nahiz lurraldeetako aduana-agintariak eta eskumeneko agintariak datu konfidentzialak zabaldu ahal izango zaizkie, bakarrik, datuon babes-maila egokia bermatzen duten nazioarteko hitzarmenen barruan.

3. Informaziorik zabaldu edo jakinarazteko garaian, datuak babesteari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko dira.

7. artikulua

Informazio osagarria trukatzea aduana-agintarien eta operadore ekonomikoen artean

1. Arriskuak hauteman eta prebenitzeko elkarren arteko lankidetzak lortzearren, aduana-agintariak eta operadore ekonomikoek trukatu ahal izango dituzte aduana-legeriak berariaz eskatzen ez dituen informazioak ere. Truke hori hitzarmen idatzi baten baitan egin daiteke, eta aduana-agintariak operadore ekonomikoaren informatika-sistemetan sartzeko baimena ematea jaso daiteke hitzarmen horretan.

2. 1. paragrafoan aipatutako lankidetzak-esparruaren barruan, konfidentzialtzat hartuko da alderen batek besteari emandako informazio guztia, alde bietan besterik adosten ez badute behintzat.

8. artikulua

Aduana-agintariak informazioa ematea

1. Interesa duen edozeinek aduana-legeriaren aplikazioari buruzko informazioa eskatu ahal izango die aduana-agintariak. Eskaera horri ezetz esan ahal izango die aduana-agintariak, merkantzien nazioarteko merkataritzaren barruan egitekoa den jardueraren batekin zerikusirik ez badu.

2. Aduana-agintariak harremanetan egongo dira etengabe operadore ekonomikoekin eta merkantzien nazioarteko merkataritzan parte hartzen duten gainerako agintariak. Era berean, beharrezko gardentasuna bultzatuko dute eta aduana-legeria, administrazio-ebazpen orokorrak eta eskaera-orriak mugarik gabe zabalduko dituzte, ahal dela, Internet bidez eta gasturik eragin gabe.

9. artikulua

Informazioa ematea aduana-agintariei

1. Aduana-kontroletan nahiz aduana-izapideak egiten zuzenean nahiz zeharka esku hartzen duten pertsona guztiak eskatutako informazio eta dokumentazio guztia eman beharko diete aduana-agintariei, finkatutako epearen barruan eta modu egokian. Era berean, izapide eta kontrol horiek egiteko beharrezko laguntza guztia eman beharko dute.

2. Aduanan deklarazio laburtu bat edo deklarazio bat, jakinarazpen bat edo baimen bat lortzeko nahiz beste edozein erabakitarako eskaera aurkezten duten pertsona guztiak alderdi hauek zaindu beharko dituzte:

a) deklarazio, jakinarazpen nahiz eskaeran jasotako informazioa osoa eta zehatza dela;

b) agintariei aurkeztutako edo haien esku jarritako dokumentuak benetakoak direla;

c) hala badagokio, merkantziei dagokien erregimenetik nahiz baimendutako aduana-eragiketak egitetik sortutako betebeharrak guztiak betetzen direla. Lehen lerrokadan adierazitakoa bete beharko da aduana-agintariak eskatutako edo haiei aurkeztutako beste edozein informazio ematean ere.

Deklarazioa, jakinarazpena edo eskaera aurkezten duena edo informazioa ematen duena interesdunaren aduana-ordezkarria izanez gero, ordezkarri horrek ere lehen lerrokadan aipatutako hori bera bete beharko du.

10. artikulua

Sistema elektronikoa

1. Estatu kideak Batzordearekin batera arituko dira aduanen artean informazioa trukatzeko eta ondorengo xehetasunei buruzko informazioa batera erregistratu eta gordetzeko sistema elektronikoak garatu, mantendu eta erabiltzeko:

a) aduana-izapideak betetzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten operadore ekonomikoei buruz;

b) aduana-erregimenari eta operadore ekonomiko baimenduaren estatutuari buruzko eskaerei eta baimenei buruz;

c) 20. artikuluari jarraiki hartutako erabaki eta eskariei buruz;

d) 25. artikuluan aipatutako arriskuen kudeaketa komunari buruz.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

a) informazioa jasotzeko erabili beharreko formatu eta eduki normalizatuak;

b) Estatu kideetako aduana-agintariak informazio hori gordetzeko modua;

c) jarraian aipatzen direnak informazio hori eskuratzeko arauak:

i) operadore ekonomikoek,

ii) eskumeneko beste agintari batzuek, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

2. atala

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aduana-ordezkaritza

11. artikulua

Aduana-ordezkaria

1. Edonork izenda dezake aduana-ordezkarri bat.

Ordezkaritza hori zuzenean egiten bada, aduana-ordezkarriak hura izendatu duen pertsonaren izenean eta haren kontura jardungo du. Ordezkaritza zeharkakoa denean, berriz, bere izenean jardungo du ordezkarriak baina izendatu duen pertsonaren kontura.

Aduana-ordezkariek Erkidegoko aduana-lurraldean finkatuta egon behar dute.

2. Aduana-ordezkariek finkatuta dauden estatu kidean zerbitzuak emateko bete beharreko baldintzak ezarri ahal izango dituzte estatu kideek, Erkidegoko zuzenbidearekin bat etorritik. Dena den, estatu kideek irizpide ez hain zorrotzak ezartzea badaukate ere, 14. artikuluko a)-d) idatz-zatietan finkatutako irizpideak betetzen dituzten aduana-ordezkarri guztiek beren zerbitzuak eskaintzea izango dute finkatuta daudenaz bestelako estatu kide batean ere.

3. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

a) zein kasutan salbuetsi daitekeen 1. paragrafoko hirugarren lerrokadan finkatutako baldintza betetzetik;

b) 2. paragrafoan aipatutako baimena zein kasutan eman eta onartu ahal izango den;

c) artikulua hau garatzeko beste edozein arau onartuko da, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik.

12. artikulua

Ordezkatzeko ahalordea

1. Aduana-agintariekiko harremanean, ordezkatutako pertsonaren izenean diharduela adieraziko du aduana-ordezkarriak. Ordezkaritza hori zuzena edo zeharkakoa den azaldu beharko du. Pertsonaren batek aduana-ordezkarri diharduela jakinarazten ez badu edo hala diharduela esan baina horretarako ahalorderik ez badu, ulertuko da pertsona horrek bere izenean eta bere kontura diharduela.

2. Aduana-ordezkarri diharduen edozeini haren ordezkatuak eman dion ordezkatzeko ahalmenaren frogak aurkezteko eskatu ahal izango diote aduana-agintariek.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta lehen lerrokadan aipatutako xedapenen salbuespenak finkatzen dituztenak.

3. atala

Operadore ekonomiko baimendua

13. artikulua

Eskaera eta baimena

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erkidegoko aduana-lurraldean finkatuta egon eta 14. eta 15. artikuluetan finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiek «operadore ekonomiko baimenduaren» estatutua eskatu ahal izango dute.

Aduana-agintariak ematen dute estatutu hori, hala badagokio eskumeneko beste agintari batzuekin kontsultatu eta gero. Estatutu hori berrikusi egingo da.

2. Operadore ekonomiko baimenduaren estatutuak bi baimen-mota biltzen ditu: «aduanen sinplifikazioari» jarraiki baimendutako operadore ekonomikoarena eta «segurtasun eta babesari» jarraiki baimendutako operadore ekonomikoena. Lehen baimenarekin, operadore ekonomikoek prozedura sinplifikatu batzuk erabil ditzakete, aduana-legeriari jarraiki. Bigarren baimen-motak segurtasun- eta babes-alorreko erraztasunak ematen dizkie baimenen titularrei.

Bi baimen horiek aldi berean eduki daitezke.

3. 14. eta 15. artikuluetan agindutakoari jarraiki, eta dagozkion aduana-kontrolak alde batera utzi gabe, estatu kide guztietako aduana-agintariak onartzen dute operadore ekonomiko baimenduaren estatutua.

4. Operadore ekonomiko baimenduaren estatutua onartutakoan, eta aduana-legeriak prozedura sinplifikatu zehatzetarako finkatutako baldintzak betez gero, prozedura horretaz baliatzeko aukera emango diete aduana-agintariak operadoreari.

5. Operadore ekonomiko baimenduaren estatutua eten edo atzera bota ahal izango da, 15. artikuluko 1. paragrafoko g) idatz-zatian finkatutako baldintzen arabera.

6. Operadore ekonomiko baimenduen estatutua eskuratu eta gero izandako gorabehera guztien berri eman beharko diete aduana-agintariak, gorabehera horiek estatutuaren jarraipen edo edukian eraginik izanez gero.

14. artikulua

Estatutua ematea

Operadore ekonomiko baimenduaren estatutua emateko irizpideak hauek dira:

- a) aduana- eta zerga-betekizunak betetzen ibilbide egokia izatea;
- b) merkataritza-erregistroak eta, hala badagokio, garraio-erregistroak kudeatzeko sistema egokia izatea, aduana-kontrolak behar bezala egiteko modukoa;
- c) kaudimen frogatua;
- d) 13. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorriz, operadore ekonomiko baimendu batek aduana-legerian finkatutako prozedura sinplifikatuak erabili nahi dituenean, egiten duen jarduerarekin erlazio zuzena duten gaitasun edo kualifikazio profesional egokiak izatea;
- e) 13. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorriz, operadore ekonomiko baimendu batek aduana-kontrolako segurtasun-alorreko erraztasunez baliatu nahi duenean, segurtasun- eta babes-maila egokiak erakustea.

15. artikulua

Aplikazio-neurriak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta ondorengoei buruzko arauak finkatzen dituztenak:

- a) operadore ekonomiko baimenduaren estatutua ematea;
- b) operadore ekonomiko baimenduaren estatutua berrikusi beharreko kasuak;
- c) operadore ekonomiko baimenduek baimena ematea prozedura sinplifikatuak erabiltzeko;
- d) estatutua eta baimenok emateko eskumeneko aduana-agintaria identifikatzea;
- e) operadore ekonomiko baimenduei aduana-kontrolatuko segurtasun- eta babes-alorrean eman dakizkiekeen erraztasunen ezaugarriak eta irismena;
- f) beste aduana-agintari batzuekin kontsultatzea eta haiei informazioa ematea;
- g) operadore ekonomiko baimenduaren estatutua eten edo atzera botatzeko baldintzak;

nazioarteko hitzarmenak bereziki kontuan izanik, operadore ekonomiko baimenduen multzo jakin batzuek Erkidegoko aduana-lurraldean finkatuta egoteko baldintza zein kasutan ez duten bete behar; 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

2. Neurri horietan alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- a) 25. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki onartutako neurriak;
- b) aduana-legeriak araututako jardueretan izandako parte-hartze profesionala;
- c) egiten den jarduerarekin erlazio zuzena duten gaitasun eta kalifikazio profesional egokiak izatea;
- d) operadore ekonomikoak nazioartean onartutako eta dagozkion nazioarteko itunekin bat etorritik emandako ziurtagiri bat izatea.

4. atala

Aduana-legeria aplikatzearekin zerikusia duten erabakiak

16. artikulua

Xedapen orokorrak

1. Aduana-agintariei aduana-legeria aplikatzeari buruzko erabaki bat eskatzen dien pertsona orok aurkeztu beharko du erabaki hori hartzeko haiek eskatutako informazio guztia. Erabaki hori hainbat pertsonak eskatu ahal izango dute, eta haien guztientzat hartu ahal izango da, aduana-legerian finkatutako baldintzekin bat etorritik.

2. Aduana-legeriak besterik ez badio, 1. paragrafoan aipatutako erabakiak aduana-agintariak erabakia hartzeko behar duten informazio guztia eskuratu eta lau hilabeteko epean hartu beharko dituzte, eta erabaki horren berri luze gabe eman beharko diote eskatzaileari.

Dena den, epe hori agortu aurretik erabakirik hartzerik ez badute, aduana-agintariak ezintasun hori eragin duten arrazoien berri eman beharko diote eskatzaileari, eskatutako erabakia hartzeko beharko duten denbora osagarria zehaztearekin batera.

3. Aduana-legerian nahiz hartutako erabakian besterik esaten ez bada, erabaki horrek eragina izango du eskatzaileak hartutako erabakiaren jakinarazpena jasotzen duen edo jasotzen duela ulertzen den egunetik

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

aurrera. 24. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan izan ezik, hartutako erabakiak egun horretatik aurrera betearazi ahal izango dituzte aduana-agintariak.

4. Inorentzako kaltegarria den erabakirik hartu aurretik, hartu nahi den erabaki hori hartzeko arrazoiak jakinarazi beharko dizkiete aduana-agintariak interesdunei, eta azken horiek erabakiaren gainean oharrak egiteko aukera izango dute, jakinarazpena egiten zaien egunetik hasi eta finkatzen den epea amaitu arte. Epe hori amaitutakoan, hartutako erabakiaren eta erabaki horren arrazoiaren berri emango zaie interesdunei. Hartzen den erabakian 23. artikuluan finkatutako helegite-eskubidea aipatu beharko da.

5. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak: a) 4. paragrafoko lehen lerrokada zein kasutan ez den aplikatuko, eta ez aplikatzeko baldintzak;

b) 4. paragrafoko lehen lerrokadan aipatutako epea, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko da.

6. Beste esparru batzuetan erabakiak baliogabetu edo ezerezteko kasuak eta baldintzak arautzen dituzten xedapenak alde batera utzi gabe, erabaki bat hartu duten aduana-agintariak edozein unetan izango dute erabaki hori bertan behera utzi, aldatu nahiz atzera botatzea, aduana-legeriarekin bat ez badator.

7. Aduana-agintariren batek agintari judizial diharduen kasuetan izan ezik, artikuluko honetako 3., 4. eta 6. paragrafoak eta 17., 18. eta 19. artikuluko aplikatuko zaizkie aduana-agintariak hartzen dituzten erabakiei ere (interesdunak aurretik eskaririk egin gabe), 67. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki, aduana-zorra jakinarazi behar den kasuetan bereziki.

17. artikulua

Erabakien balioa Erkidegoan

Besterik eskatzen edo esaten ez bada, aduana-agintariak aduana-legeak aplikatzeko diren edo lege horietan oinarrituta hartzen dituzten erabakiek Erkidegoko aduana-lurralde osoan izango dute balioa.

18. artikulua

Aldeko erabakiak ezabatzea

1. Jarraian aipatzen diren hiru baldintzak gertatuz gero, aduana-agintariak ezabatu egingo dituzte hartutako erabaki baten xede ziren pertsonen aldekoak diren erabakiak:

a) hartutako erabakia informazio osatugabe edo okerrean oinarrituta egotea;

b) eskatzaileak informazioa okerra edo osatugabea zela jakitea edo jakin behar izatea, eta

c) informazioa osoa eta zuzena izan balitz, erabakia beste bat izatea.

2. Erabaki bat ezabatuz gero, erabakiaren xede den pertsonari horren berri eman beharko zaio.

3. Aduana-legeriarekin bat etorritik hartutako erabakian besterik agindu ezean, hasierako erabakiak eragina zuen egun beretik izango du eragina ezeztapenak.

4. 184. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kudeatze-prozedurarekin bat etorritik, artikuluko hau aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak, erabaki bat pertsona bati baino gehiagori zuzentzen zaion kasuetan, bereziki.

19. artikulua

Aldeko erabakiak baliogabetzea eta aldatzea

1. Interesdunaren aldeko erabaki bat baliogabetu egin daiteke hura hartzeko finkatutako baldintza bat edo gehiago bete ez bada edo betetzeari utzi bazaio, 18. artikuluan aurreikusitako kasu desberdinetan.
2. Aduana-legeriak besterik ez badio, hainbat pertsonaren aldeko erabaki bat baliogabetzea erabaki hark finkatutako betebeharrak bete ez dituen pertsonari bakarrik eragin dakioke.
3. Erabaki bat baliogabetu edo aldatuz gero, horren berri eman beharko zaio erabakiaren xede den pertsonari.
4. 16. artikuluko 3. paragrafoa aplikatuko zaio erabakia baliogabetzeko edo aldatzeko erabakiari. Dena den, erabakiaren xede den pertsonaren bidezko interesak babesteko beharrezkoa den kasu berezietan, aduana-agintariak atzeratu ahal izango dute erabakiaren baliogabetze nahiz aldaketa indarrean jartzeko data.
5. 184. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kudeatze-prozedurarekin bat etorriz, artikulua hau aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak, erabaki bat pertsona bati baino gehiagori zuzentzen zaion kasuetan, bereziki.

20. artikulua

Informazio lotesleari buruzko erabakiak

1. Formalki hala eskatzen zaienean, informazio arantzelario lotesleari buruzko erabakiak (aurrerantzean «IAL erabakiak») edo jatorriari buruzko informazio lotesleari buruzko erabakiak (aurrerantzean «JIL erabakiak») eman beharko dituzte aduana-agintariak.

Eskaera horri ezezkoa emango zaio kasu hauetan:

a) merkantzia berei buruzko erabaki bat eskatu duenean titularrak berak nahiz haren izenean diharduen beste pertsona batek, aduana berean edo beste aduana batean, eta, JIL erabakien kasuan, jatorria eskuratzea ekarri zuten baldintza berak betetzen direnean;

b) erabakiak ez duenean zerikusirik IAL nahiz JIL erabakietarako aurreikusitako xedeekin, ez eta aduana-erregimen batean aurreikusitako norakoekin ere.

2. IAL eta JIL erabakiak merkantzien sailkapen arantzelariorako eta jatorria finkatzeko baino ez dira izango lotesleak.

Erabaki horiek aduana-agintariak erabakiaren titularrarekin lotuko dituzte, baina erabakia indarrean sartu ondoren betetzen dituzten aduana-izapideei dagokienez bakarrik.

Erabaki horiek erabakiaren titularra aduana-agintariekin lotuko dute, era berean, baina titular horrek erabakiaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik edo jaso duela ulertzen den egunetik aurrera bakarrik.

3. IAL eta JIL erabakiek hiru urteko balioa izango dute, erabakia indarrean sartzen denetik.

4. IAL edo JIL erabaki bat aduana-erregimen jakin batean aplikatzeko, erabakiaren titularrak hau frogatu beharko du:

a) IAL erabakien kasuan, deklarazioan zehaztutako merkantziak erabakian azaldutakoarekin bat datozela bete-bete;

b) JIL erabakien kasuan, dagozkion merkantziak eta jatorria eskuratzeko bete beharreko baldintzak erabakian azaldutako merkantzia eta baldintzekin bat datozela bete-bete.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. 16. artikuluko 6. paragrafoan eta 18. artikuluan finkatutakoa gorabehera, IAL eta JIL erabakiak ezeztatu egingo dira eskatzaileek emandako informazioa okerra edo osatugabea baldin bada.

6. IAJ eta JIL erabakiak 16. artikuluko 6. paragrafoan eta 19. artikuluan adierazitako moduan baliogabetuko dira.

Dena den, erabaki horiek ezin izango dira aldatu.

7. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, Batzordeak neurriak hartu ahal izango ditu artikuluko 1-5. paragrafoak aplikatzeko.

8. 19. artikuluko agindutakoa alde batera utzi gabe, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

a) IAL edo JIL erabaki batek balioa galtzeko baldintzak eta unea;

b) a) idatz-zatian aipatutako erabakia, haren balioa mugaeguneratu aurretik eta erabaki hartan oinarrituta egindako kontratu lotesleetan erabiltzen jarraitzeko baldintzak eta epea;

c) Batzordeak zein baldintzatan eskatu ahal izango dien erabaki bat ezeztatu edo aldatzeko estatu kideei, gai berari buruzko beste erabaki batzuetan jasotakoaz bestelako informazioa ematen duen informazio lotesleari buruz,

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

9. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta informazio lotesleari buruzko beste erabaki batzuk zein baldintzatan hartu behar diren finkatzen dutenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

5. atala

Zigorrak

21. artikulua

Zigorrak jartzea

1. Estatu kide bakoitzak zigor batzuk finkatu beharko ditu Erkidegoko aduana-legeria urratzen den kasuetarako. Zigor horiek eraginkorrak, neurritsuak eta eragozleak izan behar dute.

2. Zigor administratiboak jartzen direnean, aukera hauetakoren bat nahiz biak egongo dira, besteak beste:

a) aduana-agintariak ezarritako diru-zigorrak, aplikatzekoa den zigor penalaren ordeko ordainketa osagarri batekin batera, hala dagokionean;

b) zigortutakoak daukan edozein baimen baliogabetu, eten edo aldatzea.

3. 188. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki Erregelamendu hau aplikatzeko finkatzen den egunetik hasi eta sei hilabeteko epean, 1. paragrafoan aipatzen diren estatu-mailako xedapenen berri eman beharko diete estatu kideek Batzordeari, eta eragina duten aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiote, berehala.

6. atala

Baliabideak

22. artikulua

Agintari judizialek hartutako erabakiak

23. eta 24. artikulua ez zaizkie aplikatuko agintari judizialek edo haien ordeztuak aduana-agintariak onartutako aduana-legeriaren aplikazioari buruzko erabakiak ezeztatu, atzera bota nahiz aldatzeko aurkeztutako helegiteei.

23. artikulua

Helegitea aurkezteko eskubidea

1. Aduana-agintariak aduana-legeria aplikatzeari buruz hartutako erabakiren batek zuzenean eta bakarka eragiten dien pertsona orok dauka erabaki horren kontra egitea. Era berean, helegitea jartzeko eskubidea izango du aduana-agintariari erabaki bat eskatu eta 16. artikuluko 2. paragrafoan finkatutako epean erabakirik jaso ez duen orok.

2. Helegite-eskubidea bi fasetan egin daiteke, gutxienez:

a) hasieran, aduana-agintariaren, agintari judizialen edo estatu kideek horretarako izendatutako beste edozein organoren aurrean;

b) horren ondoren, organo nagusi independente baten aurrean. Estatu kideetan indarrean dauden xedapenen arabera, agintari judiziala nahiz organo espezializatu baliokidea izan daiteke organo hori.

3. Helegitea erabakia hartu edo eskatu den estatu kidean aurkeztu beharko da.

4. Helegitea aurkezteko aplikatutako prozedurei jarraiki aduana-agintariak hartutako erabakiak berehala berresten edo zuzentzen direla bermatu beharko dute estatu kideek.

24. artikulua

Erabakiak etetea

1. Helegite bat aurkezteak ez du dagokion erabakia eteterik ekarriko.

2. Dena den, helegitea jaso duen erabakia aduana-legeriarekin bat ez datorrela edo interesdunari kalte konponezina egin dakiokela pentsatzeko arrazoi sendoak daudenean, erabaki hori osorik nahiz zati batean eten ahal izango dute aduana-agintariak.

3. 2. paragrafoan aipatutako kasuetan, helegitea jaso duen erabakiak esportazio- nahiz inportazio-eskubideak ordaintzeko betebeharrak finkatzen badu, erabakia etetea berme bat jarri beharko da, ebaluazio dokumentatua egin eta berme horrek interesdunari arazo ekonomiko nahiz sozial handiak eragin diezazkiokeela ikusten den kasuetan izan ezik. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, artikuluko honetako lehen paragrafoa aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak.

7. atala

Merkantzien kontrola

25. artikulua

Aduana-kontrolak

1. Aduana-agintariak beharrezkotzat jotzen dituzten aduana-kontrol guztiak egin ahal izango dituzte.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Kontrol horietan neurriok hartuko dira bereziki: merkantziak aztertu, laginak hartu, deklarazioetan jasotako datuak egiaztatu, beharrezko dokumentuak daudela eta egiazkoak direla egiaztatu, operadore ekonomikoen kontuak eta bestelako erregistroak egiaztatu, jendeak fakturatuta edo esku-fardel gisa daramatzan merkantzia eta ekipajeak eta garraiobideak ikuskatu eta ikerketa ofizialak eta antzeko egintzak egin.

2. Ausazkoak ez diren aduana-kontrolatan arriskuen azterketa bat egingo da, bereziki, eta datuak elektronikoki tratatzeko teknikak erabiliko dira horretarako, estatu-, Erkidego- eta, hala badagokio, nazioarte-mailan finkatutako irizpideak oinarritzat hartuta, arrisku horiek identifikatu eta ebaluatu eta arrisku horiei aurre egiteko neurriak garatzearen.

Arriskuak kudeatzeko esparru komuna garatu, mantendu eta erabiliko dute estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan jardunez, informazioa eta arrisku-azterketak trukatzeko aduana-administrazioen artean. Esparru horren bidez, arriskuak ebaluatzeko irizpide komunak, kontrol-neurriak eta lehentasunez kontrolatu beharreko esparruak finkatuko dituzte, besteak beste.

Informazio eta irizpide horietan oinarritutako kontrolak egingo dira, alde batera utzi gabe 1. paragrafoarekin, paragrafo honekin eta indarrean dauden beste xedapen batzuekin bat etorritik egindako gainerako kontrolak.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoan finkatutakoa alde batera utzi gabe, 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, xehetasun hauek finkatzen dituzten neurriak onartuko ditu Batzordeak:

- a) arriskuak kudeatzeko esparru komuna;
- b) irizpide komunak eta lehentasunez kontrolatu beharreko esparruak;
- c) aduana-administrazioen artean trukatu beharreko informazioa eta arrisku-azterketak.

26. artikulua

Agintarien arteko lankidetzak

1. Aduana-kontrola egiten zaien merkantziei aduana-agintariez bestelako eskumeneko beste agintari batzuek ere beste kontrol batzuk eginez gero, aduana-agintariak, beste agintari haiekin elkarlan estuan jardunez, saiatuko dira bigarren kontrol horiek aduana-kontrolak egiten diren leku eta une berean egin daitezela (kontrol zentralizatuak), eta aduana-agintariak izango dira hori lortzeko koordinazio-lanak egiten dituztenak.

2. Atal honetan aipatzen diren kontrolei dagokienez, aduana-agintariak eta aduana-agintariez bestelako eskumeneko agintariak, Erkidegoko aduana-lurraldearen eta beste lurralde batzuen artean ibiltzen diren merkantzien (posta-trafikoa barne) sarrerari, irteerari, igarotzeari, transferentziari, gordetzeari eta amaierako norakoari buruzko, Erkidego aduana-lurraldean dauden Erkidegoaz kanpoko merkantziei eta haien joan-etorriari buruzko, amaierako norakoari dagokion erregimenean sartutako merkantziei buruzko eta kontrol guztien emaitzei buruzko datuak trukatu ahal izango dituzte beren artean eta Batzordearekin, arriskuak gutxitu eta iruzurrari aurre egiteko. Aduana-agintariak eta Batzordeak ere datuak trukatu ahal izango dituzte, Erkidegoko aduana-legeria uniformeki aplikatzen dela bermatzeko.

27. artikulua

Jasotzearen ondorengo kontrola

Aduana-deklarazioetan nahiz deklarazio laburtuetan jasotako informazioa zehatza dela egiaztatzearen, merkantzia bat jaso eta gero, merkantzia horrekin zerikusia duten eragiketei nahiz merkantzia horien gaineko eragina duten ondorengo nahiz aurretiko eragiketa komertzialei buruzko datu eta dokumentu guztiak egiaztatu ahal izango dituzte aduana-agintariak. Agintari horiek merkantzia horiek aztertu eta haien laginak hartu ahal izango dituzte, halaber, oraindik hori egitea dagoen kasuetan. Ikuskapenak egin ahal izango dira merkantziaren titularraren nahiz haren ordezkariaren lokaletan, eragiketa horietan komertzialki eta zuzenean nahiz zeharka

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

jardun duen edo diharduen beste pertsona baten lokaletan, edo datu eta dokumentu komertzialok bere esku dituen beste edozein pertsonaren lokaletan.

28. artikulua

Erkidego barruko hegaldi eta gurutzaldiak

1. Erkidego barruko hegaldiak edo Erkidego barruko itsas gurutzaldiak egiten dituzten eskuko nahiz fakturatutako ekipajeari kontrolak eta aduana-izapideak egin ahal izango zaizkie, baina aduana-legeriak hori agintzen duenean bakarrik.

2. 1. paragrafoan aipatutakoaz gain, honako hauek ere egin ahal izango dira:

a) segurtasun- eta babes-kontrolak;

b) debeku eta murrizpenei lotutako kontrolak.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, Batzordeak artikulua hau aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu, aduana-izapideak eta kontrolak jarraian aipatzen direnei egiteko kasuak eta baldintzak finkatzeko:

a) honako hauek fakturatutako ekipajeak eta haien eskuko ekipajeak:

i) Erkidegoaz kanpotik datorren aireontzi batean, Erkidegoko aireportu batean eskala egin eta hegaldia Erkidegoko beste aireportu batera jarraitzekoak diren pertsonak,

ii) Erkidegoko aireportu batean eskala egin eta hegaldia Erkidegoaz kanpoko beste aireportu batera jarraitzekoak diren pertsonak,

iii) itsasontzi berean hainbat ibilbide eginez, bidaia Erkidegoaz kanpoko portu batean hasi edo amaitzen duen edo halako batean eskala egiten duen itsas zerbitzua erabiltzen duten pertsonak,

iv) aisialdiko ontzi batean edo aireontzi turistiko nahiz komertzial batean doazen pertsonak;

b) eskuko ekipajea edo fakturatutako ekipajea:

i) Erkidegoaz kanpoko aireportu batetik datorren aireontzi batean iristen denean Erkidegoko aireportu batera eta, azken aireportu horretan, Erkidego barruko hegaldia egiten duen beste aireontzi batera eramaten denean,

ii) Erkidego barruko hegaldia egiten duen aireontzi batean sartzen denean Erkidegoko aireportu batean, Erkidegoko beste aireportu batean, Erkidegotik kanpoko aireportu batera doan aireontzi batean sartzeko.

8. atala

Dokumentuak eta datuak gordetzea. Kargak eta kostuak

29. artikulua

Dokumentuak eta datuak gordetzea

1. Aduana-kontrolak erraztearren, interesdunek 9. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako dokumentazio eta informazio guztia gutxienez hiru urte naturaletan gorde beharko dute, aduana-agintarientzako modu onargarri eta eskuragarrian.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Merkantziak hirugarren lerrokadan adierazitakoez bestelako gorabeheretan izapidetu badira garraio askerako edo esportaziorako, epe hori garraio askerako izapidea edo esportaziorako deklarazioa aduanan onartzen den urte amaieran hasiko da.

Haien amaierako norakoa dela eta, garraio askerako eskubide batzuk salbuetsita edo inportazio-eskubide murriztuarekin izapidetutako merkantzien kasuan, aduana-zaintzapean egoteari uzten dioten urtearen amaieran hasiko da epe hori.

Beste aduana-erregimen batzuetan dauden merkantzien kasuan, erregimen hori amaitzen den urtearen amaieran hasiko da epe hori.

2. 68. artikuluko 4. paragrafoan adierazitakoa alde batera utzi gabe, aduana-zor bati aduanan egindako kontrolean zor hori zuzendu beharra ikusten bada, eta interesdunari behar horren berri ematen bazaio, beste hiru urte luzatuko da dokumentazioa eta informazioa gordetzeko artikuluko 1. paragrafoan finkatutako epea.

Helegitea aurkeztu bada edo auzibideren bat hasi bada, artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako epean gorde beharko da dokumentazioa eta informazioa edo, bestela, helegitea edo auzibidea amaitu arte, bigarren epe hau lehenengoa baino luzeagoa izanez gero.

30. artikulua

Kargak eta kostuak

1. Aduana-agintariak beren eskumeneko aduanetan ordutegi ofizialaren barruan egindako aduana-kontrolengatik nahiz aduana-araudia aplikatuz egindako gainerako egintzengatik ez dute kargarik kobratuko.

Dena den, zerbitzu bereziak emanez gero, kargak kobratu edo kostuak berreskuratu ahal izango dituzte, kasu hauetan bereziki: a) aduanako langileek aduanan ordutegi ofizialetik kanpo edo aduanaz kanpoko lokaletan jardun behar badute;

b) merkantziei buruzko aditu-txostenak eta -azterketak egin behar izanez gero, eta merkantziak eskatzaile bati itzultzeko posta-tarifarik ordaindu behar izanez gero, 20. artikuluan eta 8. artikuluko 1. paragrafoan informazioa emateari buruz aurreikusitako erabakien ondorioz bereziki;

c) merkantziak egiaztatzeko haien azterketa edo laginketarik egin behar izan edo haiek suntsitu behar izan eta aduanako langileak erabiltzeaz bestelako gasturik sortzen bada;

d) merkantzien ezaugarri berezien edo sortu litezkeen arriskuen ondorioz, kontrol-neurri bereziak aplikatu behar izanez gero.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta lehen lerrokadako bigarren paragrafoan esandakoaren salbuespenak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira.

3. KAPITULUA

Dibisak aldatzea eta epeak

31. artikulua

Dibisak aldatzea

1. Jarraian aipatutako arrazoiren batengatik dibisarik aldatu behar izanez gero, aplikatuko den kanbio-tasa Interneten argitaratu eta zabaldu beharko dute agintariak:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) merkantzia batek aduanan duen balioa kalkulatzeko erabilitako faktoreak balio hori finkatzen den estatu kidekoaz bestelako diru batean adierazita daudelako, edo

b) euroak estatu bateko dirutan duen balioa kalkulatu behar delako, merkantziari dagokion sailkapen arantzelarioa eta inportazio- nahiz esportazio- eskubideen zenbatekoa zein den erabakitzeke, Erkidegoko aduana-tarifaren balio-atalaseak barne.

2. 1. paragrafoan aipatutakoez bestelako arrazoiengatik aldatu behar badira dibisak, aduana-araudiari jarraiki, euroak estatuetako dirutan duen balioa urtean behin finkatu beharko da gutxienez.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko hau aplikatzeko neurriak hartuko ditu Batzordeak.

32. artikulua

Epeak

1. Aduana-legeetako xedapenetan epeak, datak nahiz muga-egunak finkatzen badira, epe horiek ezingo dira luzatu eta data edo muga-egun horiek ezingo dira atzeratu edo aurreratu, xedapen haietan besterik esaten ez bada behintzat.

2. Kontseiluaren (EEE, Euratom) 1182/71 Erregelamenduak —1971ko ekainaren 3koa, epe, data eta muga-egunei aplikatu beharreko arauak finkatzen dituena⁽¹⁾— epe, data eta muga-egunei buruz finkatutako arauak aplikatu beharko dira, Erkidegoaren aduana-legeriak besterik ez badio behintzat.

II. TITULUA

**INPORTATZEKO ETA ESPORTATZEKO ESKUBIDEAK APLIKATZEKO OINARRITZAT HARTUTAKO ELEMENTUAK
ETA MERKANTZIEN MERKATARITZARAKO BESTE NEURRI BATZUK**

1. KAPITULUA

Aduana-tarifa bateratua eta merkantzien sailkapen arantzelarioa

33. artikulua

Aduana-tarifa bateratua

1. Ordaindu beharreko inportazio- eta esportazio- eskubideak aduana-tarifa bateratuan oinarrituko dira.

Merkantzien merkataritzarekin zerikusia duten esparru zehatzak arautzeko Erkidegoak dituen beste lege batzuetan finkatutako legeak aplikatuko dira, haien sailkapen arantzelarioarekin bat etorritz, hala badagokio.

2. Aduana-tarifa bateratuak alderdi hauek bilduko ditu:

a) Kontseiluaren (EEE) 2658/87 Erregelamenduan —1987ko uztailaren 23koa, nomenklatura arantzelarioari, estatistikari eta aduana-tarifa bateratuari buruzkoa⁽²⁾— ezarritako merkantzien nomenklatura konbinatua;

b) nomenklatura konbinatuan osorik nahiz zati batean oinarritutako beste edozein nomenklatura, edo nomenklatura horretan azpialt berriak sartzen dituena, eta merkantzien merkataritzan neurri arantzelarioak aplikatzeko helburu zehatza duen Erkidego-mailako egintza batean finkatzen direnak;

(1) L 124 EO, 1971/06/08koa, 1. or.

(2) L 256 EO, 1987/09/07koa, 1. or. Azkenik (EE) 275/2008 Erregelamenduak (L 85 EO, 2008/03/27koa, 3. or.) aldatutako Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- c) aduana-eskubide autonomo, konbentzional nahiz normalak, nomenklatura konbinatuaren mende dauden merkantziei aplikatu beharrekoak;
- d) Erkidegoak bere aduana-lurraldetik kanpoko herrialde nahiz lurraldeekin edo lurralde eta herrialde horien taldeekin sinatutako hitzarmenetan jasotako lehentasunezko neurri arantzelarioak;
- e) Erkidegoak bere aduana-lurraldetik kanpoko herrialde nahiz lurraldeetarako edo lurralde eta herrialde horien taldeetarako bere kasa hartutako lehentasunezko neurri arantzelarioak;
- f) zenbait merkantziei aduana-eskubideak murriztea edo ordaindu behar ez izatea dakarten neurri autonomoak;
- g) c)-f) eta h) idatz-zatietan adierazitako neurriei jarraiki, zenbait merkantziaren ezaugarrien edo amaierako norakoaren ondorioz, merkantzia horietarako tratu arantzelario hobea dakarten xedapenak;
- h) nekazaritzari, merkataritzari nahiz beste esparru batzuei buruzko Erkidegoko araudian jasotako gainerako neurri arantzelarioak.

3. 2. paragrafoko d)-g) idatz-zatietan adierazitako neurrietan jasotako baldintzak betetzen dituzten merkantzien kasuan, neurriok aplikatuko dira paragrafo bereko c) letran aipatutako eskubideen ordean, deklaraziogileak hala eskatuz gero. Hori atzeraeraginez egin ahal izango da, dagozkion xedapenetan nahiz kodean finkatutako epe eta baldintzak betez gero.

4. 2. paragrafoko d)-g) idatz-zatietan aipatutako neurriak edo paragrafo bereko h) letrako salbuespena inportazio- edo esportazio-kopuru jakin batzuetara mugatzen direnean, aplikazio nahiz salbuespen hori finkatutako esportazio- edo inportazio-kopurura iritsi bezain laster etengo da, kontingente arantzelarioen kasuan.

Gehieneko arantzel-mugen kasuan, Erkidegoaren arautze-egintza baten bidez etengo da aplikazio hori.

5. 184. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, Batzordeak neurriak hartuko ditu artikuluko honetako 1. eta 4. paragrafoak aplikatzeko.

34. artikulua

Merkantzien sailkapen arantzelarioa

- 1. Aduana-tarifa bateratua aplikatzeko, merkantzien «sailkapen arantzelarioa» egiteko sailkatu behar den nomenklatura konbinatuan dagokion azpiatal edo azpisaila zehaztuko da.
- 2. Neurri ez-arantzelarioak aplikatzeko, merkantzien «sailkapen arantzelarioa» egiteko sailkatuko duen nomenklatura konbinatuan nahiz Erkidegoko egintzen bidez finkatutako beste edozein nomenklaturan dagokion azpiatal edo azpisaila zehaztuko da. Bigarren nomenklatura erabiliz gero, nomenklatura konbinatuak hartan oinarritu beharko du osorik nahiz zati batean, edo azpiatal gehiago egin beharko ditu hartan.
- 3. 1. eta 2. paragrafoei jarraiki, merkantzia bati egokitzen zaion azpiatal edo azpisaila erabiliko da hari dagozkion neurriak aplikatzeko oinarritzat.

2. KAPITULUA

Merkantzien jatorria

1. atala

Lehentasunezkoa ez den jatorria

35. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aplikazio-eremua

Merkantzien jatorria lehentasunezkoa noiz ez den erabakitzeko xedapenak jasotzen dira 36., 37. eta 38. artikuluetan, honako neurri hauek aplikatzeari dagokionez:

- a) aduana-tarifa bateratua, 33. artikuluko 2. paragrafoko d) eta e) idatz-zatietan adierazitako neurriak izan ezik;
- b) merkantzien merkataritzarekin zerikusia duten esparru zehatzak arautzen dituzten Erkidegoko egintzetan finkatutako neurri ez-arantzelarioak;
- c) merkantzien jatorriarekin zerikusia duten Erkidegoko beste neurri batzuk.

36. artikulua

Jatorria eskuratzea

1. Oso-osorik herrialde edo lurralde batean eskuratutako merkantzien jatorria herrialde edo lurralde hori dela ulertzen da.
2. Ekoizteko herrialde edo lurralde batek baino gehiagok esku hartzen duten merkantzien kasuan, azken eraldaketa sakona jasan duen herrialde edo lurraldea izango da haien jatorria.

37. artikulua

Jatorri-proba

1. Aduana-legeriarekin bat etorritz, aduana-deklarazio batean jatorri bat adieraziz gero, aduana-agintariak merkantzien jatorria frogatzeko eskatu ahal izango diote deklarazio-egileari.
2. Aduana-legeriari nahiz esparru zehatzetarako Erkidegoko bestelako xedapenei jarraiki aurkeztutako jatorri-frogaren inguruan zalantza sakonak egonez gero, jatorri-deklarazioa aplikatzekoa den Erkidegoko legeriarekin bat datorrela egiaztatzeko bestelako proba osagarriak eskatu ahal izango dituzte aduana-agintariak.
3. Merkataritzaren beharrek hala eskatuz gero, jatorria frogatzen duten agiriak egin ahal izango dira Erkidegoan.

38. artikulua

Aplikazio-neurriak

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, 36. eta 37. artikulua aplikatzeko neurriak hartuko ditu Batzordeak.

2. atala

Lehentasunezko jatorria

39. artikulua

Merkantzien lehentasunezko jatorria

1. 33. artikuluko 2. paragrafoko d) eta e) idatz-zatietan adierazitako neurriak edo lehentasun-neurri ez-arantzelarioak aplikatu ahal izateko, artikuluko honetako 2-5. paragrafoetan aurreikusitako lehentasunezko jatorriari buruzko arauak bete beharko dituzte merkantziek.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Erkidegoak bere aduana-lurraldetik kanpoko herrialde edo lurraldeekin sinatutako hitzarmenetan jasotako lehentasun-neurriak aplikatzen bazaizkie merkantziei, hitzarmen horietan finkatuko dira lehentasunezko jatorriari buruzko arauak.

3. Erkidegoak bere aduana-lurraldetik kanpoko herrialde edo lurraldeetarako nahiz 5. artikuluan aipatzen direnez bestelako herrialde- edo lurralde-multzoetarako bere kasa finkatutako lehentasun-neurriak aplikatzen bazaizkie merkantziei, lehentasunezko jatorriari buruzko arauak finkatuko dira Batzordeak 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz.

4. Erkidegoko aduana-lurraldearen eta Ceuta eta Melillaren arteko merkataritza arautzen duen 1985eko Bat-egite Aktako 2. Protokoloan finkatutako lehentasun-neurriak aplikatzen bazaizkie merkantziei, lehentasunezko jatorriari buruzko arauak onartuko dira Protokolo horretako 9. artikuluekin bat etorritz.

5. Erkidegoarekin kidetutako itsasoz bestaldeko herrialde eta lurraldeen alde finkatutako lehentasunezko erregimenetako lehentasun-neurriak aplikatzen bazaizkie merkantziei, lehentasunezko jatorriari buruzko arauak onartuko dira Tratutako 187. artikuluekin bat etorritz.

6. 184. artikuluko 2. artikuluan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko honetako 2-5. paragrafoetan aurreikusitako arauak aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

3. KAPITULUA

Merkantzien balioa aduanan

40. artikulua

Aplikazio-eremua

Aduana-tarifa bateratua eta merkantzien merkataritzarekin zerikusia duten esparru zehatzak arautzen dituzten Erkidegoko xedapenetan finkatutako neurri ez-arantzelarioak aplikatzeko garaian, 41., 42. eta 43. artikuluekin bat etorritz finkatuko da merkantzia horiek aduanan duten balioa.

41. artikulua

Aduanan balioa kalkulatzeko metodoa, salerosketa-balioan oinarrituta

1. Aduanan merkantzien balioa kalkulatzeko oinarri nagusia salerosketa-balioa izango da, hau da, merkantzia horiengatik ordaindutakoa edo Erkidegoko aduana-lurraldera esportatzeko salduz gero haiengatik ordaindu beharko litzatekeena, 43. artikuluari jarraiki hartzen diren neurriekin doituta, hala badagokio.

2. Berez ordaindutako edo ordaindu beharreko prezioa haxe izango da: inportatutako merkantziengatik erosleak saltzaileari edo haren ordeztu diharduen beste bati ordaindu dion edo ordaindu behar dion zenbateko osoa, merkantzia horiek saltzeagatik egindako edo egin beharreko ordainketa guztiak barne hartuta.

3. Salerosketa-balioa aplikatzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) erosleari merkantziak erabiltzea ez galaraztea, murrizketa hauek kenduta:

i) Erkidegoko arauak nahiz agintari publikoek ezarritako edo eskatutako murrizketak,

ii) merkantziak birsaldutako eremu geografikoari dagozkion murrizketak,

iii) merkantzien aduanako balioan eragin handirik ez duten murrizketak;

b) balioztatu beharreko merkantzien balioa finkatzea galarazten duten baldintza edo betekizunak bete behar ez izatea, ez salmentari ez prezioari dagokienez;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) erosleak gero merkantziak birsalduz, inori lagaz nahiz erabiliz lortutako irabaziek saltzailearengan eraginik ez izatea (zeharka nahiz zuzenean), balioa behar bezala doitzerik ez badago 43. artikuluan aurreikusitako neurriekin bat etorriz;

d) loturarik ez egotea saltzailearen eta eroslearen artean, edo lotura horrek prezioan eraginik ez izatea.

42. artikulua

Aduanako balioa kalkulatzeko bigarren mailako metodoak

1. Aduanako merkantzien balioa zehazterik ez badago 41. artikuluekin bat etorriz, artikuluko honetako a)-d) idatz-zatiak aplikatuko dira, hurrenez hurren, balio hura finkatzea lortzen den arte.

c) eta d) idatz-zatiak aplikatzeko hurrenkera aldatu egingo da, deklaraziogileak hala eskatuz gero.

2. 1. paragrafoari jarraiki, hauxe izango da aduanako balioa:

a) merkantziak balioztatu behar diren data berean edo data horretatik gertu, Erkidegoko aduana-lurraldera esportatzeko saltzen diren eta hara inportatzen diren merkantzia berdinen salerosketa-balioa;

b) merkantziak balioztatu behar diren data berean edo data horretatik gertu, Erkidegoko aduana-lurraldera esportatzeko saltzen diren eta hara inportatzen diren antzeko merkantzien salerosketa-balioa;

c) inportatutako merkantzien nahiz inportatutako beste merkantzia berdinen edo antzekoen kopuru osorik handiena, Erkidegoko aduana-lurraldearen barruan saltzaileekin zerikusirik ez duten pertsonen saltzen zaien aleko prezioan oinarritutako balioa;

d) kalkulaturako balioa.

3. 1. paragrafoarekin bat etorriz aduanako balioa kalkulatzetik ez dagoen kasuetan, Erkidegoko aduana-lurraldean eskuragarri dagoen informazioa hartuko da oinarritzat balio hori kalkulatzeko, honako testuotan jasotako printzipio eta xedapen orokorrek bat datozen bitarteko egokiak erabiliz:

a) Aduana Tarifei eta Merkataritzari buruzko Hitzarmen Orokorreko VII. artikulua aplikatzeari buruzko Hitzarmena;

b) Aduana Tarifei eta Merkataritzari buruzko Hitzarmen Orokorreko VII. artikulua;

c) kapitulu hau.

43. artikulua

Aplikazio-neurriak

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorriz, honako hauek arautzeko behar diren neurriak hartuko ditu Batzordeak:

a) aduanako balioa finkatzeko, berez ordaindutako edo ordaindu beharreko prezioari gehitu beharreko elementuak, edo prezio horretatik kanpo utzi beharrekoak;

b) kalkulaturako balioa finkatzeko erabili beharreko elementuak;

c) kasu berezietan, eta erregimen berezi batean erabiliak izan eta gero aduana-zorra sorrarazten duten merkantziei dagokienez, haien aduanako balioa kalkulatzeko metodoak;

d) 41. eta 42. artikuluko aplikatzeko beharrezkoak diren gainerako baldintza, xedapen eta arauak.

III. TITULUA

ADUANA-ZORRA ETA BERMEAK

1. KAPITULUA

Aduana-zorraren jatorria

1. atala

Inportazioari lotutako aduana-zorra

44. artikulua

Garraio askerako izapidea eta aldi baterako inportazioa

1. Inportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten Erkidegoz kanpoko merkantziak honako aduana-erregimenen batean sartzean sortzen dira inportazioari lotutako aduana-zorrak:

- a) garraio askerako izapidea, amaierako norakoari dagozkion xedapenekin bat etorritik ere;
- b) aldi baterako inportazioa, inportazio-eskubideen salbuespen partzialarekin.

2. Deklarazioa aduanan onartzen den unean sortzen da aduana-zorra.

3. Deklarazio-egilea izango da zorduna. Zeharkako ordezkari erabiliz gero, ordezkari pertsona (aduanan aurkeztutako deklarazioaren arduraduna) ere zorduna izango da.

1. paragrafoan aipatutako erregimenen bati buruz deklarazio bat aurkezten denean aduanan, eta deklarazio horretan eskatu beharreko eskubide guztiak edo batzuk ez kobratzea dakarren informazioa jasotzen bada, zorduna izango da deklarazioa egiteko eskatutako informazioa eman eta informazio hori faltsua zela zekien edo jakin beharko zuen pertsona ere.

45. artikulua

Jatorrizkoak ez diren merkantziei buruzko xedapen bereziak

1. Erkidegoaren eta Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko zenbait herrialde edo lurralderen nahiz herrialde eta lurralde horien taldeen arteko lehentasunezko hitzarmen baten barruan, jatorri-proba bat luzatzen edo finkatzen zaien produktuak fabrikatzeko erabilitako merkantzia ez jatorrizkoak inportatzeko eskubideak itzultzeko nahiz salbuesteko debekurik finkatuz gero, inportazioari lotutako aduana-zorra sortuko da jatorrizkoak ez diren merkantzia horientzat, produktu horiei buruzko birresortazio-jakinazpena onartzearen bidez.

2. 1. paragrafoari jarraiki aduana-zorrik sortzen bada, zor horri dagokion inportazio-eskubideen zenbatekoa erabakiko da perfektionamendu aktiboa burutzearen ondorioetarako produktuak fabrikatzeko erabilitako merkantzia ez jatorrizkoen garraio askerako izapidearen deklarazioa aduanan data berean onartzetik sortutako aduana-zorrak izango lituzkeen baldintza berberetan.

3. *Mutatis mutandis*, 44. artikuluko 2. eta 3. paragrafoak aplikatuko dira. Dena den, 179. artikuluan aipatutako Erkidegoz kanpoko merkantzien kasuan, birresortazio-jakinazpenean agertzen den pertsona izango da zorduna. Zeharkako ordezkari erabiliz gero, zorduna izango da ordezkari pertsona (aurkeztutako jakinarazpenaren arduraduna) ere.

46. artikulua

Urraketagatik sortutako aduana-zorra

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Inportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten merkantzien kasuan, honako baldintzaren bat urratuz gero sortuko da inportazioari lotutako aduana-zorra:

a) Erkidegoz kanpoko merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzeari, merkantzia horiek aduana-zaintzatik kentzeari nahiz merkantzia horiek lurralde horretan zirkulatzeari, eraldatzeari, gordetzeari, aldi baterako inportatzeari nahiz erabiltzeari buruz aduana-legerian finkatutako betebeharren bat;

b) merkantziek Erkidegoko aduana-lurraldearen barruan izango duten amaierako norakoari buruz aduana-legerian finkatutako betebeharren bat;

c) Erkidegoz kanpoko merkantziak aduana-erregimen jakin batean sartzeari nahiz, merkantzien amaierako norakoari jarraiki, eskubide batzuk ordaintzetik salbuestea edo inportazio-eskubideen tasa murriztea arautzen duen baldintzaren bat.

2. Aduana-zorra une hauetakoren batean sortuko da:

a) urratuz gero aduana-zorra sortzea dakarren betebeharra betetzen ez den edo betetzeari uzten zaion unean;

b) merkantziak aduana-erregimen batean sartzeko deklarazioa aduanan onartzen den unean, baldin eta gero egiaztatzen bada berez ez dela bete merkantziak erregimen horretan sartzeko edo, merkantzien amaierako norakoari jarraiki, eskubide batzuk ordaindu behar ez izateko nahiz inportazio-eskubideen tasa murrizteko baldintzaren bat.

3. 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aipatutako kasuetan, honako hauetakoren bat izango da zorduna:

a) dagozkion betebeharrak bete behar zituen edozein pertsona;

b) aduana-legeriari jarraiki betebeharrak bete ez dela zekien edo berez jakin behar zuen eta betebeharrak bete behar zuenaren kontura ziharduena edo betebeharra urratzea eragin zuen ekintzan parte hartzen zuen edozein pertsona;

c) merkantziak eskuratu edo bere esku zeuzkan eta merkantzia horiek eskuratzean edo jasotzean aduana-legeak agindutako betebeharren bat bete ez zela zekien edo berez jakin behar zuen edozein pertsona.

4. 1. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako kasuetan, zorduna izango da merkantziak aduana-erregimen jakin batean sartzeko baldintzak bete behar zituen pertsona, merkantziak erregimen horretan deklaratu dituen pertsona edo, merkantzien amaierako norakoari jarraiki, eskubideak ez ordaintzea edo inportazio-eskubideen tasa jaistea erabakitzen duen pertsona. 1. paragrafoan aipatutako erregimenen bati buruzko deklarazioa aurkezten bada aduanan, edo aduana-agintariei aduana-legeriak eskatutako edozein informazio aurkezten denean merkantziak aduana-erregimen jakin batean sartzeko baldintzei buruz, eskatu beharreko eskubide guztiak edo haien zati bat ez jasotzea eraginez ondorioz, zorduna izango da deklarazioa egiteko eskatutako informazioa eman eta informazio hori faltsua zela zekien edo berez jakin behar zuen pertsona.

47. artikulua

Ordaindutako inportazio-eskubideen zati baten kenketa

1. 46. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki aduana-zor bat sortzen denean garraio askerako izapidetutako merkantziak direla eta, eta haien amaierako norakoari jarraiki inportazio-eskubideen tasa murrizten zaienean, aduana-zorrari dagokion inportazio-eskubideen zenbatekoari kenduko zaio merkantziak garraio askerako izapidetu zirenean ordaindutako inportazio-eskubideen zati bat.

Lehen lerrokada *mutatis mutandis* aplikatuko da, merkantzia haiek suntsitzearen ondorioz sortutako hondakinak direla eta aduana-zor bat sortzen denean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. 46. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki aduana-zor bat sortzen denean aldi baterako inportazio-erregimenean sartutako merkantziak direla eta, eta inportazio-eskubideen zati bat murrizten zaienean, aduana-zorrari dagokion inportazio-eskubideen zenbatekoari kenduko zaio zati horren murrizketa eginda ordaindutako inportazio-eskubideen zenbatekoa.

2. atala

Esportazioari lotutako aduana-zorra

48. artikulua

Perfekzionamendu pasiboko esportazioa eta trafikoa

1. Esportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten merkantziak esportazio-erregimenean edo perfekzionamendu pasiboko erregimenean sartzean sortzen da aduanako esportazio-zorra.
2. Aduana-zor hori aduana-deklarazioa onartzen den unean sortzen da.
3. Deklarazio-egilea izango da zorduna. Aduana-deklarazioa beste inork egiten badu titularraren ordeztasunarekin ere zorduna izango da. Ordaindu beharreko eskubide guztiak edo haien zati bat ez ordaintzea dakarren informazioan oinarritutako deklarazio bat aurkezten bada aduanan, zorduna izango da deklaraziorako behar den informazioa ematen duen eta informazio hori okerra zela bazekien edo berez jakin behar zuen pertsona ere.

49. artikulua

Urraketa baten ondorioz sortutako aduana-zorra

1. Esportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten merkantziek aduanako esportazio-zorra sortuko dute, jarraian zehazten den baldintzetakoren bat urratuz gero:
 - a) merkantziak ateratzeko aduana-legerian finkatutako betebeharren bat;
 - b) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik esportazio-eskubide guztiak edo haien zati bat ordaindu behar izan gabe atera ahal izateko finkatutako baldintzaren bat.
2. Aduana-zorra une hauetakoren batean sortuko da:
 - a) merkantziak berez Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen direnean aduana-deklaraziorik gabe;
 - b) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik esportazio-eskubide guztiak edo haien zati bat ordaindu behar izan gabe ateratzeko baimendutakoaz bestelako norako batera iristen direnean;
 - c) aduana-agintariak b) idatz-zatian aipatutako unea zehazterik ez badute, merkantziek eskubideak ordaindu behar ez izateko baldintzak bete direneko frogak aurkezteko finkatutako epea agortzea.
3. 1. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako kasuetan, honako hauetakoren bat izango da zorduna:
 - a) zegokion betebeharra bete behar zuen edozein pertsona;
 - b) zegokion betebeharra bete ez zela zekien edo berez jakin behar zuen eta betebeharra bete behar zuenaren kontura ziharduen edozein pertsona;
 - c) betebeharra urratzeko ekintzan parte hartu zuen eta aduana-deklarazioa nahitaezkoa izan arren aduanan aurkeztu ez zela zekien edo berez jakin behar zuen edozein pertsona.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako kasuetan, zorduna izango da merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik esportazio-eskubide guztiak edo haien zati bat ordaindu gabe atera ahal izateko baldintzak betetzera behartutako edozein pertsona.

3. atala

Inportatzeko eta esportatzeko garaian sortutako aduana-zergei dagozkien xedapen komunak

50. artikulua

Debekuak eta murrizketak

1. Inportazioari nahiz esportazioari dagokion aduana-zorra sortuko da inportatzeko nahiz esportatzeko edonolako debeku nahiz murrizketak dituzten merkantzien kasuan ere.

2. Jarraian zehazten diren kasuetan, aldiz, ez da inolako aduana-zorrik sortuko:

a) Erkidegoko aduana-lurraldean txanpon faltsifikatuak legez kanpo sartuz gero;

b) Erkidegoko aduana-lurraldean eskumeneko agintariak zorrozki ikuskatuz bestelako gai sorgogarrri nahiz psikotropikoak sartuz gero, medikuntzan nahiz zientzian erabiltzeko asmoz;

3. Aduanako lege eta arauak urratuz gero ezarri beharreko zigorrei dagokienez, estatu kide bateko legeriari jarraiki, aduana-zor bat sortu dela ulertuko da, aduana-eskubideak edo aduana-zor bat egotea ezarri beharreko zigorra erabakitzeke moduko oinarria izanez gero.

51. artikulua

Zordun ugari egotea

Aduana-zor bati dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ordaintzeko ardua hainbat pertsonak dutenean, denak izango dira, modu bateratuan eta solidarioki, zor den zenbateko osoaren erantzuleak.

52. artikulua

Inportazio- eta esportazio-eskubideen zenbatekoa kalkulatzeko arau orokorrak

1. Inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa kalkulatu da dagozkion merkantziei dagokien aduana-zorra sortu zen unean haiei aplikatzekoak ziren eskubideak kalkulatzeko arauen arabera.

2. Aduana-zorra zehazki noiz sortu den zehazterik ez badago, erreferentzia gisa hartuko da aduana-agintariak merkantziak aduana-zorra sortu duen egoera batean daudela zehazten duten unea.

Dena den, aduana-agintariak duten informazioari esker, aduana-zorra goian aipatutako ondorio horretara iritsi aurretik sortu dela ikusiz gero, aduana-zorra egoera egiaztatu den unetik gertuen dagoen datan sortua dela ulertuko da.

53. artikulua

Inportazio-eskubideen zenbatekoa kalkulatzeko arau orokorrak

1. Merkantziak gordetzeko kostuak nahiz haiek manipulatzeko ohiko eragiketarak Erkidegoko aduana-lurraldean sortu badira, aduana-erregimen jakin batean sartutako merkantziei dagokienez, kostu horiek edo dagokion balio-handitzea ez dira kontuan hartuko inportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, deklarazio-egileak kostu horien frogak aurkeztuz gero.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Dena den, kontuan hartuko dira inportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko eragiketetan erabilitako Erkidegoz kanpoko merkantzien aduanako balioa, kopurua, ezaugarriak eta jatorria.

2. Aduana-erregimen batean sailkatutako merkantzien sailkapen arantzelarioa aldatzen bada Erkidegoko aduana-lurraldean egindako ohiko manipulazio-eragiketen ondorioz, erregimenean sailkatutako merkantzien jatorrizko sailkapen arantzelarioa aplikatuko zaio deklarazio-egilearen eskaerari.

3. Perfekzionamendu aktiboko erregimenetik sortutako produktu eraldatuengatik aduana-zorrik sortuz gero, datu hauen arabera erabakiko da zor horri dagozkion inportazio-eskubideen zenbatekoa, deklarazio-egilearen eskaerari jarraiki: inportatutako merkantziek haiek perfekzionamendu aktiboko erregimenean aurkezteko aduana-deklarazioa onartzean aduanan zuten balioa, haien kopurua, ezaugarriak eta jatorria.

4. Aduana-legeriak onartzen badu tratamendu arantzelario onuragarria, frankizia bat edo inportazio- nahiz esportazio-eskubideak osorik nahiz zati batean ordaindu behar ez izatea, 33. artikuluko 2. paragrafoko d)-g) idatz-zatiei, 130-133. artikuluei, 171-174. artikuluei nahiz Kontseiluaren (EEE) 918/83 Erregelamenduari — 1983ko martxoaren 28koa, aduana-frankizien EB-mailako erregimena ezartzeari buruzkoa ⁽¹⁾— jarraiki, tratamendu onuragarri, frankizia nahiz ez ordaindu behar izate hori aplikatuko da aduana-zorra Erregelamendu honetako 46-49. artikuluei jarraiki sortua den kasuetan ere, aduana-zorra sortzea ekarri duen urraketa iruzur-saiaketa bat ez baldin bada.

54. artikulua

Aplikazio-neurriak

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

- a) merkantziei aplikatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa kalkulatzea;
- b) erregimen zehatzetarako bestelako neurri bereziak;
- c) 52-53. artikuluetarako salbuespenak, 33. artikuluko 2. paragrafoko h) idatz-zatian aipatzen diren neurri arantzelarioei ihes egitea saihesteko bereziki; halakoak onartuko dira 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorriz.

55. artikulua

Aduana-zerga sortzeko lekua

1. Aduana-zorrak sortuko dira 44., 45. eta 48. artikuluetan aipatzen diren aduana-deklarazioa edo birresportazio-jakinazpena aurkezten diren edo 110. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako deklarazio osagarria aurkeztu behar den lekuan.

Gainerako kasu guztietan, zorra eragin duten ekintzak gertatzen diren lekuan sortuko da aduana-zorra. Leku hori zehazterik ez badago, aduana-agintarien iritziz merkantziak aduana-zorra eragin duen egoeran dauden lekuan sortuko da aduana-zorra.

2. Merkantziak azkendu gabeko aduana-erregimen batean sailkatu badira, eta 1. paragrafoko bigarren eta hirugarren lerroak jarraiki lekua epe jakin batean zehazterik ez badago, merkantziak erregimen horretan sartu ziren lekuan edo, erregimen horrekin bat etorriz, Erkidegoko aduana-lurraldean sartu ziren lekuan sortuko da aduana-zorra.

(1) EO L 105, 1983/04/23koa, 1. or. Azkenik (EE) 274/2008 Erregelamenduak (EO L 85, 2008/03/27koa, 1. or.) aldatutako Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta lehen paragrafoan aipatutako epea finkatzen dutenak.

3. Aduana-agintariak duten informazioari esker, aduana-zorra hainbat lekutan sortu zela ikusiz gero, aduana-zorra leku horietako lehenbizikoan sortu zela ulertuko da.

4. Aduana-zorra egiaztatzen egin zen estatu kidean sortu zela ulertuko da, baldin eta aduana-agintari batek aduana-zorra beste estatu kide batean sortu zela ikusten bada, 46. artikuluari edo 49. artikuluari jarraiki, eta zor horri dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa 10.000 euro baino txikiagoa bada.

2. KAPITULUA

Badagoen edo sor litekeen aduana-zerga baten bermea

56. artikulua

Xedapen orokorrak

1. Kapitulu hau dagoeneko sortuak diren aduana-zorrei eta sor litekeenei aplikatuko zaie, besterik esaten ez bada behintzat.

2. Aduana-zor bati dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ordainduko dela ziurtatzeko berme bat eratzeko eskatu ahal izango dute aduana-agintariak. Dagozkion xedapenek hala finkatuz gero, eskatutako berme horretan indarrean dauden xedapenekin bat datozen beste karga batzuk ere sartu ahal izango dira.

3. Aduana-agintariak berme bat eratzeko eskatuz gero, berme hori zordunari eskatuko zaio edo zordun izan daitekeen pertsonari. Era berean, bermea eskatzen zaionaz bestelako pertsona batek ere eratu ahal izango du bermea.

4. 64. artikuluan finkatutakoa gorabehera, bakarrik merkantzia jakin batzuetarako edo deklarazio jakin batzuetarako bermea eratzeko eskatuko dute aduana-agintariak.

Deklarazio jakin baterako eraturako bermea aduana-zorri dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoari aplikatuko zaio, eta deklarazio horretan jasotako nahiz deklarazio horri jarraiki jasotako merkantzia guztiei dagozkien bestelako kargei, deklarazioa zuzena izan ala ez.

Bermea liberatu ez bada, merkantziak jaso ondorengo kontrolen ondorioz eskatu beharreko beste karga batzuk nahiz inportazio- eta esportazio-eskubideei dagozkien zenbatekoak kobratzeko ere erabili ahal izango da berme hori, bermatutako zenbatekoaren mugen barruan.

5. Artikulu honetako 3. paragrafoan aipatutako pertsonak hala eskatuta, aduana-agintariak baimena eman ahal izango dute bi eragiketa, deklarazio nahiz aduana-erregimen edo gehiagori dagokien aduana-zorri dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoari aurre egiteko berme orokor bat eratzeko, 62. artikuluko 1. eta 2. paragrafoekin bat etorritik.

6. Estatuak, erregio- nahiz udal-mailako gobernu-agintariak eta zuzenbide publikoak araututako bestelako erakundeek ez dute inolako bermerik eratu behariko agintari publiko gisa egiten dituzten jarduerengatik.

7. Bermatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoak ez bada gainditzen Kontseiluaren (EE) 1172/95 Erregelamenduko —1995eko maiatzaren 22koa, Erkidegoaren nahiz estatu kideen eta beste

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

herralde batzuen arteko ondasun-trukeen estatistikei buruzkoa ⁽¹⁾— 12. artikuluekin bat etorritik finkatutako deklarazioen muga estatistikoa, aduana-agintarietako uko egin ahal izango diote bermea eskatzeari.

8. Aduana-agintarietako onartutako nahiz baimendutako bermeek Erkidegoko aduana-lurralde osoan izango dute balioa, berme horiek eman ziren ondorioetarako.

9. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

— artikulua hau aplikatzeko baldintzak,

— artikulua honetako 6. paragrafoan aipatutako gain, bermerik eratu behar ez den bestelako kasuak,

— artikulua honetako 8. paragrafoko salbuespenak onartu behar dira, 184. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez.

57. artikulua

Nahitaezko bermea

1. Bermea eratzea nahitaezkoa bada, eta 3. paragrafoarekin bat etorritik onartutako neurriak gorabehera, dagokion aduana-zorriari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta beste karga batzuen zenbateko zehatzaren mailan finkatuko dute bermearen zenbatekoa aduana-agintarietako, bermea eskatzen den unean zenbateko hori zehatz-mehatz finkatzerik baldin badago.

Zenbateko zehatza finkatzerik ez badago, aduana-zorriari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta dauden nahiz sortu litezkeen beste karga batzuen zenbateko handienez finkatuko dute bermea aduana-agintarietako.

2. 62. artikuluan finkatutako gorabehera, aduana-zorriari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta denboraren arabera gorabeherak izaten dituzten beste karga batzuen zenbatekorako berme orokorra eratzeko bada, bermearen zenbatekoa finkatuko da aduana-zorriari dagokien inportazio- eta esportazio-eskubideen eta beste karga batzuen zenbatekoari uneoro aurre egiteko adinako mailan.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, artikulua honetako 1. paragrafoa aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

58. artikulua

Aukerako bermea

Bermea eratzea aukeran dagoen kasuetan, ziurtasunik ez badago aduana-zor bati dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta beste karga batzuen zenbatekoa finkatutako epean ordaintzeko, aduana-agintarietako berme hori eskatu egingo dute. Berme horren zenbatekoa 57. artikuluan aipatutako maila ez gainditzeko moduan finkatuko dute agintari horiek.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta bermea aukerakoa izango den kasuak finkatzen dituztenak.

59. artikulua

(1) L 118 EO, 1995/05/25eko, 10. or. Azkenik (EE) 1882/2003 Erregelamendua aldatutako Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Bermea eratzea

1. Bermeak jarraian zehazten diren formetako bat izan beharko du:

a) eskudirutan egindako gordailu bat nahiz aduana-agintarietako eskudirutan egindako gordailuaren baliokidetzat onartutako bestelako ordainketa-bideak, eurotan nahiz bermea eskatzen duen estatu kideko dirutan egina;

b) fidatzaile batek sinatutako konpromisoa;

c) aduana-zor bati dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta beste karga batzuen zenbatekoa ordainduko deneko pareko segurtasuna ematen duen beste berme-moduren bat.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta paragrafo honetako lehen lerrokadako c) idatz-zatian aipatutako berme-moduak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira.

2. Eskudirutan egindako gordailu bat edo eskudirutan egindako gordailuaren parekidetzat onartutako ordainketa-bideren bat erabiliz eratutako bermea, berme hori eskatzen duen estatu kidean indarrean dauden xedapenekin bat etorri eratu da.

60. artikulua

Bermea aukeratzea

Bermea eratzeko eskatzen zaion pertsonak 59. artikuluko 1. paragrafoan finkatutako berme-moduen artean aukeratu ahal izango du.

Halere, aukeratutako berme-modua dagokion aduana-erregimenaren funtzionamendu egokiarekin bateragarria ez bada, aduana-agintarietako berme hori ez onartzea izango dute. Aukeratutako berme-moduari epe jakin batean eusteko eskatu ahal izango dute aduana-agintarietako.

61. artikulua

Fidatzailea

1. 59. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako fidatzailea Erkidegoko aduana-lurraldean finkatutako beste pertsona bat izan beharko da. Bermea eskatzen duten aduana-agintarietako onespena beharko du fidatzaile horrek, non eta Erkidegoko zuzenbidean indarrean dauden xedapenekin bat etorri Erkidegoan kreditatuta dagoen kreditu-erakunde bat, finantza-erakunde bat edo aseguru-konpainia bat ez den.

2. Fidatzaileak konpromisoa hartu behar du, idatziz, aduana-zor bati dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoei eta gainerako kargei dagokien zenbateko bermatua ordaintzeko.

3. Proposatutako berme-mota edo fidatzailea ez onartzea daukate aduana-agintarietako, alderdi hauetakoren bat behar bezala bermatuta ez dagoela iritziz gero: ordainketa, finkatutako epea edota aduana-zorrari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta beste karga batzuen zenbatekoa.

62. artikulua

Berme orokorra

1. Jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituztenei bakarrik emango zaie 56. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako baimena:

a) Erkidegoko aduana-lurraldean finkatuta egotea;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) aduana- eta zerga-alorreko betekizun guztiak bete izana;

c) dagozkion aduana-erregimenak erabiltzea normalean, edo erregimen horiei dagozkien betebeharrak betetzeko ahalmenagatik aduana-agintarien ezagunak izatea.

2. Aduana-zerzengatik eta sor litezkeen beste karga batzuegatik berme orokor bat eratu beharra dagoenean, zenbateko murriztuko berme orokor bat erabili ahal izango dute operadore ekonomikoek, edo bermerik ez eratzeko baimena jaso ahal izango dute, honako irizpide hauek betez gero:

a) merkataritza-erregistroak eta, hala badagokio, garraio-erregistroak kudeatzeko sistema egokia izatea, aduana-kontrolak behar bezala egiteko moduan;

b) kaudimen frogatua izatea.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko honetako 1. eta 2. paragrafoari jarraiki baimenak emateko prozedura arautzen duten neurriak onartuko ditu Batzordeak.

63. artikulua

Bermeen erabilerari buruzko xedapen osagarriak

1. 2. eta 3. paragrafoak aplikatuko dira, erregimen berezien barruan aduana-zorrak sor litezkeen kasuetan.

2. 62. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritz bermerik ez eratzeko emandako baimenik ez zaie aplikatuko iruzurra gertatzeko arriskua handi dezaketela uste den merkantziei.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, neurri hauek onartuko ditu Batzordeak:

a) artikuluko honetako 2. paragrafoa aplikatzeko neurriak;

b) 62. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako zenbateko murriztuko berme orokorra erabiltzea aldi baterako debekatzeko neurriak;

c) egoera berezietan eta salbuespen gisa, berme orokorra erabiltzea aldi baterako debekatzeko neurriak, berme orokor baten barruan egonik, eskala handiko iruzurra osatzen dutela frogatutako merkantzien kasuan.

64. artikulua

Berme osagarria edo ordezkoa

Aduana-agintariak ikusten badute eraturako bermeak aduana-zorriari dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen eta gainerako kargen zenbatekoa finkatutako epean ordainduko dela bermatzen ez duela, bermatzeari utzi diola edo bermatzeko behar bestekoa ez dela, berme osagarria eratzeko edo jatorrizko bermea beste berme batekin ordezkatzeko (haiek nahi bezala) eskatuko diote 56. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako pertsonetako edozeini.

65. artikulua

Bermea liberatzea

1. Aduana-zerga edo beste karga batzuk ordaintzeko betebeharra amaitzean edo halakorik sortu ezin denean, aduana-agintariak berehala liberatuko dute bermea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Aduana-zerga edo beste karga batzuk ordaintzeko betebeharra zati batean amaitu bada, edo bermatutako zenbatekoaren zati bati dagokionez bakarrik sor badaiteke, zati batean liberatuko da eraturako bermea, interesdunaren eskariari erantzunez, dagokion zenbatekoak hori egitea justifikatzen ez duen kasuan izan ezik.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko hau aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

3. KAPITULUA

Eskubideak kobratzea eta itzultzea eta inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa barkatzea

1. atala

Inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa finkatzea, aduana-zorra jakinaraztea eta zorra sortzea

66. artikulua

Inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa finkatzea

1. Aduana-zorra sortu den edo, 55. artikulurekin bat etorritz, sortu dela erabakitzen den lekuko aduana-agintariak finkatuko dute ordaindu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa, beharrezko informazioa eskuratu eta berehala.

2. 27. artikuluan agindutakoa gorabehera, ordaindu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideengatik deklarazio-egileak finkatutako zenbatekoa onartu ahal izango dute aduana-agintariak.

67. artikulua

Aduana-zorra jakinaraztea

1. Aduana-zorra sortu den edo, 55. artikulurekin bat etorritz, sortu dela erabakitzen den lekuan finkatutako moduan jakinaraziko zaio zor hori zordunari.

Lehen lerrokadan aurreikusitako jakinarazpenik ez da egin beharko kasu hauetan:

a) inportazio- edo esportazio-eskubideen zenbatekoa behin betiko finkatu zain, eskubide baten moduko merkataritza-politikako behin-behineko neurri bat aplikatu denean;

b) ordaindu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa handiagoa denean 20. artikulurekin bat etorritz hartutako erabakian oinarrituta finkatutako zenbatekoa baino;

c) aduana-zorra ez jakinarazteko edo hura eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa baino zenbateko txikiagoan jakinarazteko jatorrizko erabakia, epaitegi baten erabakiz geroago baliogabetutako xedapen orokor batzuei jarraiki hartu bada;

d) aduana-arauei jarraiki, aduana-zorra jakinarazteko betebeharra kendu bazaie aduana-agintariei.

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko honetako bigarren paragrafoko d) idatz-zatia aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

2. Ordaindu beharreko inportazio- edo esportazio-eskubideen zenbatekoa aduana-deklarazioan adierazitako zenbatekoaren berdina bada, aduana-agintariak merkantziak jasotzea aduana-zorra zordunari jakinaraztearen baliokidea izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Artikulu honetako 2. paragrafoa aplikatzen ez denean, aduana-zorra zordunari jakinarazi beharko zaio aduana-agintariak eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa zehazteko moduan dauden egunetik hamalau eguneko epean.

68. artikulua

Aduana-zorraren mugak

1. Aduana-zor bat sortu denetik hiru urte igarotakoan, ezin izango da aduana-zorrik jakinarazi.
2. Aduana-zorra zigor-prozedura judizialak eragin dituen ekintza baten ondorioz sortu bada, hamar urtera handituko da 1. paragrafoan aipatzen den hiru urteko epea.
3. 23. artikuluekin bat etorriz, helegiterik aurkezten bada, artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan finkatutako epeak bertan behera geldituko dira helegite-prozedurak irauten duen bitartean, helegitea aurkezten den egunetik hasita.
4. 79. artikuluko 5. paragrafoari jarraiki, aduana-zor bati dagokion erantzukizuna berrezartzen bada, artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan finkatutako epeak bertan behera geldituko dira, 84. artikuluekin bat etorriz dirua itzultzeko edo barkatzeko eskaera aurkeztu zen egunetik hasi eta itzulketa edo barkatzeari buruzko erabakia hartzen den arte.

69. artikulua

Zenbatekoa hartzea

1. 66. artikuluan aipatutako aduana-agintariak eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa (artikulu honi jarraiki finkatua) hartu egingo dute, beren estatuko legeriarekin bat etorriz.

Lehen lerrokada ez da aplikatuko 67. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadan aipatutako kasuetan.

68. artikuluekin bat etorriz, aduana-agintariak ez dituzte hartu beharko dagoeneko zordunari jakinarazi ezin zaion aduana-zor bati dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoak.

2. Estatu kideek finkatuko dituzte inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa hartzeko modalitate praktikoak. Modalitate horiek desberdinak izan daitezke, aduana-zorra sortu zeneko baldintzak kontuan hartuta, zenbatekoak ordainduko diren ala ez seguru dakitenaren arabera aduana-agintariak.

70. artikulua

Zenbatekoa hartzeko unea

1. Merkantziak inportatzeko eskubideen salbuespen partzialeko aldi baterako inportazio-erregimenaz bestelako aduana-erregimen baterako onartzen bada merkantzien aduana-deklarazioa, edo onarpen horren eragin juridiko bera duen beste egintza bat, eta horren ondorioz aduana-zorra sortzen bada, eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa hartuko dute aduana-agintariak, merkantziak jaso eta hamalau eguneko epean.

Dena den, ordainketa bermatuta badago, kontabilitateko idazpen bakar batean jaso ahal izango da aduana-agintariak finkatutako epean (31 eguneko asko jota) pertsona bakar eta beraren alde emandako jasotzea izan duten merkantzia guztiei dagozkien inportazio- eta esportazio-eskubideen zenbateko osoa, epe hori amaitzean. Dagokion epea amaitu eta hamalau egunen buruan hartu beharko da zenbatekoa.

2. Eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa nahiz haiek jasotzeko modua arautzen dituzten zenbait baldintzarekin bat etorriz, merkantzien jasotzea egin daitekeenean, eskatu beharreko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa zehazten denetik edo eskubide hori ordaintzeko betebeharra finkatzen denetik hamalau eguneko epean hartu beharko da zenbatekoa.

Dena den, aduana-zorra eskubide baten moduan gauzatzen den merkataritza-politikako behin-behineko neurri bati badagokio, merkataritza-politikako behin betiko neurria hartzen duen Erregelamendua *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta bi hilabeteko epean hartuko da eskagarria den inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa.

3. Aduana-zorra 1. paragrafoan aipatu ez den arrazoiren batengatik sortzen bada, aduana-agintariak eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa zehazteko moduan eta dagokion erabakia hartzeko moduan daudenetik hamalau eguneko epean hartuko da zenbatekoa.

4. 3. paragrafoa *mutatis mutandis* aplikatuko zaio jaso beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoari, 1., 2. eta 3. paragrafoekin bat etorritz eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa hartu ez denean jasotzeko gelditzen den zenbatekoari, edo eskatu beharreko zenbatekoa baino gutxiago kontraitu denean.

5. 1., 2. eta 3. paragrafoetan kontrakzioa egiteko finkatutako epeak ez dira aplikatuko ustekabeko eta ezinbesteko kasuetan.

71. artikulua

Aplikazio-neurriak

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta kontratazioari buruzko arauak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritz onartuko dira.

2. atala

Inportazio- eta esportazio-eskubideen zenbatekoa ordaintzea

72. artikulua

Ordaintzeko epe orokorrak eta ordaintzeko epea etetea

1. Zordunek aduana-agintariak finkatutako epean ordaindu beharko dute 67. artikulurekin bat etorritz jakinarazitako aduana-zor bati dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa.

24. artikuluko 2. paragrafoan agindutakoa gorabehera, epe hori ezin izango da hamar egun baino luzeagoa izan, zordunari aduana-zorra jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita. 70. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadan finkatutako baldintzekin bat etorritz kontratazioak globalizatzen badira, zordunak zorra ordaintzeko duen epea finkatuko da 74. artikuluari jarraiki epea luzatu izan balitzaio baino epe luzeagoa ez izateko moduan.

Aduana-agintariak epe hori luzatu ahal izango dute zordunak hala eskatuta, eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa 27. artikuluan aipatutako jasotzearen ondorengo kontrola egitean finkatuz gero. 77. artikuluko 1. paragrafoan agindutakoa gorabehera, epe hori ez da luzatuko zordunak bere betebeharrari erantzuteko neurri egokiak hartzeko behar duen denbora baino gehiago.

2. Zordunak 74-77. artikuluetan finkatutako ordaintzeko bideetako bat erabiltzeko eskubidea izanez gero, bide horietarako finkatutako epearen edo epeen barruan egin beharko da ordainketa.

3. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta aduana-zor bati dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ordaintzeko epea eteteko baldintzak finkatzen dituztenak, kasu hauetan:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) 84. artikuluekin bat etorritik, eskubideak barkatzeko eskaera aurkeztuz gero;
- b) merkantziak dekomisatu, suntsitu edo Estatuaren esku utziz gero;
- c) aduana-zorra 46. artikuluan finkatutakoari jarraiki sortu eta zordun bat baino gehiago egonez gero,

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

Neurri horiek hartzeko garaian (eteteke epea bereziki), kontuan hartu behar da izapide guztiak betetzeko edo aduana-zorrari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa kobratzeko neurritzko epe bat.

73. artikulua

Ordainketa

1. Eskudirutan ordaindu behar da edo zorra kitatzeko indarra duen beste edozein bide erabiliz, estatu-mailako legeekin bat etorritik kredituak konpentsatzeko egindako doitzak barne.
2. Zorduna ez den pertsona batek ere egin dezake ordainketa.
3. Nolanahi ere, ordaintzeko emandako epea agortu aurretik, inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoaren zati bat nahiz zenbateko osoa ordaindu dezake zordunak.

74. artikulua

Ordainketa geroratzea

79. artikulua gorabehera, interesdunak hala eskatuta eta berme bat eratu eta gero, aduana-agintariak eskatu beharreko eskubideak ordaintzeko epea geroratu ahal izango dute, bide hauetakoren bat erabiliz:

- a) berezita, 70. artikuluko 1. paragrafoko lehen lerroarekin edo 70. artikuluko 4. paragrafoarekin bat etorritik hartutako inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbateko bakoitzari dagokionez;
- b) dena batera, 70. artikuluko 1. paragrafoko lehen lerroarekin bat etorritik hartutako inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbateko guztiei dagokienez, aduana-agintariak finkatutako epean (31 egun gehienez ere);
- c) dena batera, 70. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerroarekin bat etorritik behin bakarrik hartutako inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbateko guztiei dagokienez.

75. artikulua

Ordainketa geroraturako epeak

1. 74. artikuluari jarraiki ordainketa geroratzeko epea 30 egunekoa izango da.
2. Ordainketa 74. artikuluko a) idatz-zatiarekin bat etorritik geroratuz gero, zordunari aduana-zorra jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea.
3. Ordainketa 74. artikuluko b) idatz-zatiarekin bat etorritik geroratuz gero, globalizatorako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea. Globalizazio-epea osatzen duten egunen erdiari dagokion egun-kopurua kenduko zaio epe horri.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Ordainketa 74. artikuluko c) idatz-zatiarekin bat etorritik geroratu gero, dagokion merkantzien jasotzea egiteko finkatutako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea. Epe hori osatzen duten egunen erdiari dagokion egun-kopurua kenduko zaio epe horri.

5. 3. eta 4. paragrafoetan aipatutako epeetako egun-kopurua bakoitia bada, paragrafo horiei jarraiki 30 eguneko epeari kendu beharreko egun-kopurua kopuru haren azpiko lehen zenbaki bikoitiaren erdia izango da.

6. 3. eta 4. paragrafoetan aipatutako epeak aste naturalak badira, ordainketa geroratu zaien inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa, beranduenez, dagokion aste naturalaren hurrengo laugarren asteko ostiralean ordaindu beharra dagoela finkatu ahal izango dute estatu kideek.

Epe horiek hilabete naturalak badira, ordainketa geroratu zaien inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa, beranduenez, dagokion hilabete zibilaren hurrengo hilabeteko hamaseigarren egunean ordaindu beharra dagoela finkatu ahal izango dute estatu kideek.

76. artikulua

Aplikazio-neurriak

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta 109. artikularekin bat etorritik aduana-deklarazioa sinplifikatzen den kasuetan ordainketa geroratzeko arauak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

77. artikulua

Ordaintzeko beste bide batzuk

1. Aduana-agintariak ordainketa geroratuak egiteko beste bide batzuk erabiltzeko aukera eman behar diete zordunei, berme bat eratzeko baldintza betez gero.

Lehen lerrokadarekin bat etorritik beste bide horiek eskaintzen direnean, kreditu-interes bat kobratuko da inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoaren gainean. Kreditu-interesari dagokion tasa izango da Europako Banku Zentralak dagokion sei hilekoko lehen egun naturalaren aurretik egindako azkeneko birfinantzazio-eragiketari aplikatutako interes-tasa («erreferentzia-tasa») gehi % 1.

Ekonomia- eta diru-batasunaren hirugarren fasean parte hartzen duten estatu kideen kasuan, gorago aipatutako erreferentzia-tasa izango da estatu horietako banku zentralak finkatutako tasa baliokidea. Kasu horretan, indarrean dagoen erreferentzia-tasa hurrengo sei hilabeteetan aplikatuko da, dagokion sei hilekoko lehen egun naturalean hasita.

2. Bermerik ez eskatzea edo kreditu-interesik ez jasotzea erabaki ahal izango dute aduana-agintariak, zordunaren egoeraren ebaluazio dokumentatua egin eta gero, bermeak nahiz interesek zordunari arazo ekonomiko nahiz sozial larriak eragin diezazkiokeela ikusiz gero.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, 1. eta 2. artikulua aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak.

78. artikulua

Ordainketa nahitaez gauzatzea eta berandutze-interesak

1. Eskatu beharreko inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ez bada finkatutako epean ordaindu, dagokion estatu kideko legeriari jarraiki dauzkaten bide guztiak erabiliko dituzte aduana-agintariak zenbateko hori ordaintzen dela ziurtatzeko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta erregimen berezi baten barruan fidatzaileek dagokiena ordaintzen dutela bermatzeko arauak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

2. Berandutze-interesak aplikatuko zaizkio inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoari, ordaintzeko finkatutako epea bukatzen den egunetik ordainketa egiten den egunera arte.

Berandutze-interesengatik aplikatu beharreko tasa hauxe izango da: dagokion sei hilekoko lehen egun naturalaren aurretik egindako azkeneko birfinantzazio-eragiketa handiari Europako Banku Zentralak aplikatutako tasa («erreferentzia-tasa») gehi % 2.

Ekonomia- eta diru-batasunaren hirugarren fasean parte hartzen duten estatu kideen kasuan, gorago aipatutako erreferentzia-tasa estatu horietako banku zentralak finkatutako tasa baliokidea izango da. Kasu horretan, indarrean dagoen erreferentzia-tasa hurrengo sei hilabeteetan aplikatuko da, dagokion sei hilekoko lehen egun naturalean hasita.

3. 67. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki aduana-zor baten zenbatekoa jakinarazten denean, inportazio- eta esportazio-eskubideen zenbatekoaz gain, berandutze-interes bat ere jasoko da, aduana-zorra sortzen denetik jakinarazten denera arte. 2. paragrafoari jarraiki finkatuko da berandutza-interesa.

4. Berandutze-interesik ez jasotzea erabaki ahal izango dute aduana-agintariek, zordunaren egoeraren ebaluazio dokumentatua egin eta gero, interesik jasotzeak zordunari arazo ekonomiko nahiz sozial larriak eragin diezazkiokeela ikusiz gero.

5. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta aduana-agintariek berandutza-interesik ez jasotzea erabaki dezaketeneko kasuak (epeak eta zenbatekoak) finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

3. atala

Inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa itzultzea eta barkatzea

79. artikulua

Itzultzea eta barkatzea

1. Atal honetan finkatutako baldintzak gorabehera, inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa itzuli edo barkatu egingo da itzuli edo barkatu beharreko kopuruak zenbateko bat gainditzen badu, arrazoi hauek direla eta:

- a) inportazio- eta esportazio-eskubideengatik kobratutako zenbatekoa gehiegi izatea;
- b) merkantzia akastunak izatea edo kontratuko baldintzak ez betetzea;
- c) eskumeneko agintariek akatsen bat egitea;
- d) ekitatea.

Bestalde, inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ordaindu eta aduana-deklarazioa baliogabetzen bada, 114. artikulurekin bat etorritik, zenbateko hori itzuli egingo da.

2. Erabaki bat hartzeko eskumenari buruzko arauak betetzeko gero, aduana-agintariak bere konturazten badira 80., 82. nahiz 83. artikuluari jarraiki inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbateko bat itzuli edo barkatu

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egin daitekeela, 84. artikuluko 1. paragrafoan finkatutako epean, zenbateko hori itzuli edo barkatu egingo dute, beren kabuz.

3. Aduana-zorra jakinaraztea eragin zuen egoera zordunaren iruzur-saiakera batek eragin bazuen, ez da eskubiderik itzuliko edo barkatuko.

4. Eskubideak itzulita ere, aduana-agintariek ez dute interesik ordaindu beharko.

Dena den, eskubideak itzultzeko eskubidea erabakia hartu eta hiru hilabetera gauzatu ez bada, interesak ordaindu beharko dira, non eta epe hori ez betetzeko arrazoia aduana-agintariei leporatzekoa ez den.

Kasu horretan, hiru hilabeteko epea agortzen denetik eskubideak itzuli arte ordaindu beharko dira interesak. Interes-tasa 77. artikuluari jarraiki finkatuko da.

5. Eskumeneko agintariek eskubide batzuk okerki itzuli edo barkatu badituzte, hasierako aduana-zorra ordaindu beharko da atzera, 88. artikuluari jarraiki zor hori preskribatu ez bada.

Kasu horretan, itzuli egin beharko dira 4. artikuluko bigarren lerrokadari jarraiki ordaindutako interesak.

80. artikulua

Inportazio- eta esportazio-eskubideengatik kobratutako gehiegizko zenbatekoa itzultzea eta barkatzea

Inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa itzuli edo barkatu egingo da, hasieran jakinarazitako aduana-zorraren zenbatekoa handiagoa bada eskatu beharreko zenbatekoa baino, edo aduana-zorra 67. artikuluko 1. paragrafoko c) edo d) idatz-zatietan finkatutakoaren kontra jakinarazi bazaio zordunari.

81. artikulua

Merkantzia akastunak edo kontratuko baldintzak betetzen ez dituztenak

1. Aduana-zorraren jakinarazpena inportatzaileak atzera botatuko merkantziei badagokie (jasotzea egiterakoan, merkantzia haiek akatsak zituztelako edo inportatzeko kontratuko baldintzak betetzen ez zituelako), inportazio-eskubideen zenbatekoa itzuli edo barkatu egingo da. Jasotzea egin aurretik kaltetutako merkantziak merkantzia akastunen parekotzat hartuko dira.

2. Inportazio-eskubideak itzuli edo barkatzekotan, merkantziek erabili gabe egon behar dute, non eta akastunak ez diren edo kontratuko baldintzak betetzen ez zituzten egiaztatzeko erabili behar izan ez diren, eta Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo esportatu ez badira, betiere.

3. Esportatu beharrean, interesdunak hala eskatuta, merkantziak perfektionamendu aktiboko erregimenean sartzeko aukera emango dute aduana-agintariek, merkantziak suntsitzeko bada ere, edo kanpo-igarotzeko erregimenean edo aduanan nahiz zona frankoan gordetzeko erregimenean, bestela.

82. artikulua

Eskumeneko agintarien akats batengatik itzultzea edo barkatzea

1. 79. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokan eta 80., 81. eta 83. artikuluetan aipatutakoez bestelako egoeretan, itzuli edo barkatu egingo da inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa baldin eta, eskumeneko agintariek egindako akats baten ondorioz, hasiera batean jakinarazitako aduana-zorraren zenbatekoa eskatu beharrekoa baino txikiagoa bada eta baldintza hauek betetzen badira:

a) zordunak ezin izan du akats horretaz behar bezala jabetu;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) zorduna fede onez aritu da.

2. Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo dagoen herrialde edo lurralde bateko agintariek parte hartzen duten administrazio-lankidetzarako sistema bati jarraiki lehentasunezko tratua ematen bazaie merkantziei eta agintari haiek ziurtagiri bat luzatzen badute, baina ziurtagiri hori gaizki badago, zentzuz antzeman ezineko akastzat hartuko da hori, 1. paragrafoko a) idatz-zatiaren ondorioetarako.

Dena den, okerreko ziurtagiria luzatzea ez da akastzat hartuko ziurtagiri hori esportatzaileak okerka adierazitako ekintzetan oinarritzen bada, non eta ez den agerikoa ziurtagiria luzatu zuten agintariek bazekitela edo berez jakin behar zutela merkantziek ez zituztela betetzen lehentasunezko tratua izateko finkatutako baldintzak.

Zordunak fede onez jokatu duela ulertuko da, frogatzen bada, dagozkion merkataritza-eragiketak egiten ziren bitartean, ahaleginak egin zituela lehentasunezko tratua eskuratzeko baldintza guztiak betearazteko.

Zordunak ezin izango du esan fede onez aritu zela, baldin eta Batzordeak ohar bat argitaratzen badu *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean*, lehentasunezko tratua eskuratu duen herrialde edo lurraldeak lehentasun-hitzarmenak behar bezala aplikatu ez zituela pentsatzeko arrazoiak daudela esanez.

83. artikulua

Ekitateagatik itzultzea edo barkatzea

79. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadan eta 80., 81. eta 82. artikuluetan aipatutakoez bestelako egoeretan, inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa itzuli edo barkatu egingo da ekitatearen mesedetan, zordunari iruzurra egiteko ahaleginik edo ageriko zabarkeriarik leporatu ezin zaion egoera berezietan sortzen bada aduana-zorra.

84. artikulua

Eskubideak itzultzeko eta barkatzeko prozedura

1. 79. artikuluari jarraiki, eskubideak itzultzeko edo barkatzeko eskaerak epe hauetan aurkeztu beharko dira aduanan:

a) eskubide gehiegi kobratuz gero, eskumeneko agintariek akatsen bat eginez gero edo ekitatea lortu nahi izanez gero, hiru urte aduana-zorra jakinarazten den egunetik;

b) merkantziak akastunak badira edo kontratuko baldintzak urratzen badituzte, urtebete aduana-zorra jakinarazten den egunetik;

c) aduana-deklarazioa baliogabetzen bada, baliogabetzeari aplikatu beharreko arauetan finkatutako epea.

Lehen paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan zehaztutako epea luzatu egingo da, ezusteko nahiz ezinbesteko kasu baten ondorioz, eskatzaileak bere eskaera dagokion epearen barruan aurkezterik izan ez duela erakusten duten frogak aurkeztuz gero.

2. 23. artikuluari jarraiki, aduana-zorra jakinaraztearen aurka helegitea aurkezten bada, artikuluko 1. paragrafoko lehen lerrokadan zehaztutako epea eten egingo da, helegitea aurkezten den egunetik eta helegiteak iraute duen bitartean.

85. artikulua

Aplikazio-neurriak

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, atal hau aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak. Neurri horiei jarraiki, 184. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kudeaketa-

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

prozedurari jarraiki, Batzordeak inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa barkatzea nahiz itzultzea bidezkoa noiz den erabakitzeke eskumena noiz duen zehaztu beharko da, halaber.

4. KAPITULUA

Aduana-zorra amaitzea

86. artikulua

Amaitzea

1. 68. artikulua eta, epaile batek zordun bat kaudimengabea dela erabakiz gero, aduana-zor bati dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ez jasotzeari buruz indarrean dauden xedapenak alde batera utzi gabe, modu hauetakoren batean amaituko dira inportazioari nahiz esportazioari dagozkien aduana-zorrak:

- a) inportazio- eta esportazio-eskubideei dagokien zenbatekoa ordaintzean;
- b) 4. paragrafoa betez gero, inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa barkatzean;
- c) eskubideak ordaindu beharra dakarren aduana-erregimen baterako deklaraturako merkantziei dagokien aduana-deklarazioa baliogabetzean;
- d) inportazio- nahiz esportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten merkantziak dekomisatzean;
- e) inportazio- nahiz esportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten merkantziak konfiskatu eta, aldi berean edo geroago, dekomisatzean;
- f) inportazio- nahiz esportazio-eskubideak ordaindu behar dituzten merkantziak aduana-ikuskapen baten ondoren suntsitu edo Estatuaren esku uzten direnean;
- g) merkantziak desagertzearen nahiz aduana-legeriak agindutako betebeharrak urratzearen ondorioz merkantziak guztiz suntsitzen badira edo atzeraezineko moduan galtzen badira merkantzien beren ezaugarrien ondorioz, ezinbesteko nahiz ustekabeko kausen ondorioz edo aduana-agintarien jarraibideen ondorioz, idatz-zati honen ondorioetarako, merkantziak galdutzat joko dira atzeraezineko moduan, haiek erabiltzea ezinezkoa bada edozeinentzat;
- h) aduana-zorra 46. edo 49. artikuluei jarraiki sortzen bada eta baldintza hauek betetzen badira:
- i) aduana-zorra sortzea eragin zuen urraketak ez izatea eragin nabarmenik dagokion aduana-erregimenaren funtzionamendu egokian eta ez egotea iruzur egiteko saiakerarik,
- ii) merkantzien egoera erregularizatzeko behar diren izapideak geroago egitea;
- i) aduana-agintarien baimenarekin esportatzean garraio askerako eta eskubiderik ordaindu behar izan gabe izapidetutako merkantziak nahiz haien amaierako norakoa dela eta inportazio-eskubide murriztua ordaindu behar duten merkantziak;
- j) 45. artikuluekin bat etorriz sortu denean zorra eta artikulua horretan aipaturako lehentasunezko tratu arantzelarioa eskuratzeko egindako izapideak ezabatzean;
- k) artikulua honetako 5. paragrafoa betez gero, aduana-zorra 46. artikuluari jarraiki sortzen bada eta, aduana-agintarien aurrean merkantziak erabili edo kontsumitu ez direla behar bezala justifikatu eta gero, Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpora esportatzean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Dena den, 1. paragrafoko d) idatz-zatian aipatzen den moduan, merkantziak dekomisatu egiten badira, aduana-zorra ez dela amaitu ulertuko da aduana-urraketengatik aplikatu beharreko zigorreri dagokienez, baldin eta, estatu kide bateko legeriarekin bat etorritz, aduana-eskubideak edo aduana-zor bat egotea zigor haiek finkatzeko oinarritzat hartzen badira.

3. 1. paragrafoko g) idatz-zatiari jarraiki, amaitutzat ematen bada eskubide murriztuekin garraio askerako izapidetutako merkantzia batzuei nahiz haien amaierako norakoa dela eta inportazio-eskubide murriztua duten merkantzia batzuei dagokien aduana-zorra, Erkidegoz kanpoko merkantziatzat hartuko dira merkantzia haiek suntsitu eta gero gelditzen diren hondakin edo hondar guztiak.

4. Aduana-zorrari dagozkion inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa ordaintzeko ardura pertsona batek baino gehiagok badu, eta eskubide horiek barkatzen badira, eskubideak barkatu zaizkion pertsonari edo pertsonari dagokienez bakarrik amaituko da aduana-zorra.

5. 1. paragrafoko k) idatz-zatian aipatutako kasuan, aduana-zorra ez da amaituko iruzurra egiten saiatu diren pertsonari dagokienez.

6. Aduana-zorra 46. artikuluari jarraiki sortu bada, zor hori amaitu egingo da iruzurra egiteko saiakerarik egin ez eta iruzurraren aurka borrokatzen lagundu duten pertsonari dagokienez.

7. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, Batzordeak onartu egingo ditu artikuluko 2. paragrafoa aplikatzeko neurriak.

IV. TITULUA

ERKIDEGOKO ADUANA-LURRALDEAN SARTUTAKO MERKANTZIAK

1. KAPITULUA

Sarrera-deklarazio laburtua

87. artikulua

Sarrera-deklarazio laburtua aurkezteko betebeharra

1. Erkidegoko aduana-lurraldean sartutako merkantzien sarrera-deklarazio laburtua aurkeztu beharko da, aldi baterako inportatutako garraioen eta, garraio haien barruan egonik, Erkidegoko aduana-lurraldearen jurisdikziopeko urak edo aire-espazioa zeharkatu besterik egiten ez duten (eskalarik egin gabe) merkantzien kasuan izan ezik.

2. Aduana-legerian besterik dioen araurik egon ezean, sarrera-deklarazio laburtua merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartu aurretik aurkeztu beharko da eskumeneko aduanan. Sarrera-deklarazio laburtuaren ordezkari jakinarazpen bat aurkezteko aukera eman ahal izango dute aduana-agintariek, deklarazio laburtuko datuak operadore ekonomikoaren informatika-sisteman eskuratu ahal izanez gero.

3. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

a) artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatutakoez bestelako kasuak, sarrera-deklarazio laburtua noiz ez den aurkeztu behar edo deklarazio hori noiz egokitu daitekeen eta horretarako baldintzak aipatzearekin batera;

b) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartu aurretik sarrera-deklarazio laburtua aurkezteko edo eskuragarri uzteko gehienezko epea;

c) b) idatz-zatian aipatutako gehienezko epearen gaineko salbuespen eta aldaketei buruzko arauak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

d) sarrera-deklarazio laburtua zein eskumeneko aduanatan aurkeztu edo zein aduanaren esku utzi behar den eta arrisku-azterketak eta arriskuan oinarritutako sarrera-kontrolak zein aduanatan egin behar diren zehazteko arauak,

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira.

Neurri horiek onartzen direnean, hau hartu beharko da kontuan:

- a) gorabehera bereziak;
- b) neurri horiek nola aplikatu merkantzia-trafiko, garraibide eta operadore ekonomiko mota jakin batzuei;
- c) segurtasun-mekanismo bereziak finkatzen dituzten nazioarteko hitzarmenak.

88. artikulua

Aurkezpena eta erantzulea

1. Datuak elektronikoki tratatzeko teknikaren bat erabiliz aurkeztu beharko da sarrera-deklarazio laburtua. Informazio komertziala, portukoa edo garraioari buruzkoa erabili ahal izango da, sarrera-deklarazio laburturako behar diren xehetasunak jasotzen baditu.

Sarrera-deklarazioak paperean aurkezteko aukera emango dute aduana-agintariak, egoera berezietan, baldin eta datuak elektronikoki tratatzeko teknikaren bat erabiliz aurkeztutako sarrera-deklarazio laburtuei aplikatzen zaien arriskuen kudeaketa-maila bera aplikatu eta datuok beste aduana batzuekin trukatzeko eskakizunak betetzen badituzte deklarazio horiek.

2. Merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen dituen eta merkantziak lurralde horretan garraiatzearen gaineko erantzukizun guztia bere gain hartzen duen pertsonak aurkeztu beharko du sarrera-deklarazio laburtua.

3. 2. paragrafoan adierazitako pertsonari dagozkion betebeharrak gorabehera, sarrera-deklarazio laburtua honako hauek aurkeztu ahal izango dute haren ordezt:

- a) inportatzaileak, hartzaileak eta 2. paragrafoan aipatutako pertsonaren ordezt haren izenean edo haren kontura diharduen beste edozeinek;
- b) dagozkion merkantziak eskumeneko aduana-agintariari aurkezteko moduan edo aurkeztarazteko moduan dagoen edozein pertsonak.

4. Sarrera-deklarazio laburtua merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzeko erabilitako garraibidearen titularrak ez beste norbaitek aurkezten badu, titular horrek iritsi izanaren abisua aurkeztu beharko du eskumeneko aduanan. Ohar hori aurkeztu beharko da karga-agiri, bidalketa-orri edo karga-zerrenda gisa, sarrera-deklarazio laburtuan aipatutako merkantziak identifikatzeko xehetasun guztiak zehaztuz.

184. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat etorri, iritsi izanaren abisuan jaso beharreko datu guztiak zehaztuko ditu Batzordeak.

1. paragrafoa *mutatis mutandis* aplikatuko zaio paragrafo honetako lehen lerrokadan aipatutako iritsi izanaren abisuari.

89. artikulua

Sarrera-deklarazio laburtua zuzentzea

1. Sarrera-deklarazio laburtua aurkezten duenak hala eskatuz gero, aukera izango du deklarazioa aurkeztu eta gero deklarazio horretako datu bat edo gehiago zuzentzeko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Dena den, ezin izango da halako zuzenketarik egin, aduana-agintariak honakoren bat egin eta gero:

- a) merkantziak ikuskatzeko asmoa adieraztea deklarazio laburtua aurkeztu zuen pertsonari;
- b) aurkeztutako datuak zuzenak ez direla frogatzea;
- c) merkantziak aurkeztu ziren lekutik eramaten utzi izatea.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituzten neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta artikulua honetako 1. paragrafoko c) idatz-zatirako salbuespenak ezartzen dituztenak, eta bereziki xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

- a) merkantziak erretiratu eta gero zuzenketarik egiteko arrazoiak finkatzeko irizpideak;
- b) zuzendu ahal izango diren datuen xehetasunak;
- c) merkantziak erretiratu eta gero zuzenketa egiteko epea 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrolaren arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko da.

90. artikulua

Sarrera-deklarazio laburtuaren ordezkoko aduana-deklarazioa

Merkantzia batzuei dagokien aduana-deklarazioa 87. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako gehieneko epea agortu aurretik aurkeztu bada, sarrera-deklarazio laburtua aurkeztu behar ez izatea erabaki ahal izango du eskumeneko aduanak. Kasu horretan, sarrera-deklarazio laburturako behar diren datuak jaso beharko dira gutxienez aduana-deklarazioan. Aduana-deklarazioa 112. artikularekin bat etorritik onartzen den arte, sarrera-deklarazio laburtutzat hartuko da deklarazio hori.

2. KAPITULUA

Merkantziak iristea

1. atala

Merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzea

91. artikulua

Aduana-zaintza

1. Erkidegoko aduana-lurraldean sartutako merkantziak aduana-zaintzapean geldituko dira sartzen diren unetik, eta aduana-kontrolak egin ahal izango zaizkie. Hala dagokionean, behar bezala justifikatutako debekuak eta murrizketak ezarri ahal izango zaizkie, arrazoi hauen ondorioz, besteak beste: moraltasuna, ordena eta segurtasun publikoa; pertsona, animalia eta landareen osasuna eta bizitza babestea; ingurumena babestea; ondare artistiko, historiko eta arkeologikoa babestea, eta jabetza industrial eta komertziala babestea. Alderdi hauek kontrolatuko dira, halakoetan: aintzindari kimikoak, jabetza intelektualeko zenbait eskubide urratzen dituzten merkantziak eta Erkidegotik ateratzen den esku-dirua. Horrez gain, arrain-baliabideak kontserbatu eta kudeatzeko neurriak eta merkataritza-politikarako neurriak ere aplikatu beharko dira.

Zaintza horren pean geldituko dira merkantziak haien aduana-estatutua argitzeko behar den denbora guztian, eta ezin izango dira aduana-agintarien baimenik gabe eraman.

166. artikulua gorabehera, Erkidegoko merkantziak ez dira aduana-zaintzapean egongo haien aduana-estatutua argitu eta gero.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erkidegoz kanpoko merkantziak haien aduana-estatua aldatu edo birresportatzen nahiz suntsitzen dituzten arte egongo dira aduana-zaintzapean.

2. Aduana-zaintzapean dauden merkantzien titularrak edozein unetan ikuskatu ahal izango ditu merkantzia horiek eta haien laginak hartu ahal izango ditu, aduana-agintarien baimena eskuratu eta gero, sailkapen arantzelarioa, aduanako balioa edo aduana-estatutua argitzeko, bereziki.

92. artikulua

Leku egokira eramatea

1. Erkidegoko aduana-lurraldean merkantziak sartzen dituen pertsonak aduana-agintariak agindutako aduanara, agintari horiek erabakitako edo baimendutako beste edozein lekutara edo zona franko batera eramango dituzte merkantzia horiek luze gabe. Aduana-agintariak finkatutako bidea erabili beharko dute horretarako, agintari horiek finkatutako modalitateekin bat etorritik.

Zona franko batean sartu beharreko merkantziak itsasoz nahiz airez sartzekotan, zuzenean sartuko dira zona frankoan. Lurretik sartuz gero, berriz, ez dute Erkidegoko aduana-lurraldeko beste inongo lekutatik igaro beharko, estatu kide baten eta beste herrialde baten arteko lurreko mugaren ondoan dagoen zona frankoen kasuan.

Merkantziak aduana-agintariei aurkeztu beharko zaizkie 95. artikuluan agindutako moduan.

2. Merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartu ondoren, haiek garraiatzeaz arduratzen diren guztiek 1. paragrafoan aipatzen den betebeharra betetzeko ardura izango dute.

3. Erkidegoko aduana-lurraldean sartutako merkantzien parekotzat joko dira, oraindik lurralde horretatik kanpo egonda ere, estatu kide batek Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo dagoen herrialde edo lurralde batekin sinatutako hitzarmen bati jarraiki, estatu horretako aduana-agintarien kontrolpean egon daitezkeen merkantziak.

4. 1. paragrafoak ez du galaraziko xedapen bereziak aplikatzea gutun, postal nahiz inprimakiei eta beste euskarri batzuetan jasota dauden haien baliokideei, bidaiariak garraiatutako merkantziei, muga ondoko zonetan garraiatutako merkantziei edo hari bidez nahiz eragin ekonomiko apaleko beste edozein trafikoren bidez garraiatutakoei, aduana-zaintza eta aduana-kontrolak egiteko aukerak horren ondorioz oztopatzen ez badira behintzat.

5. 1. paragrafoa ez zaie aplikatuko, han egonik, Erkidegoko aduana-lurraldearen jurisdikziopeko urak edo aire-espazioa bertan eskalarik egin gabe zeharkatzen dituzten garraio bide eta merkantziei.

93. artikulua

Erkidego barruko aire- eta itsas zerbitzuak

1. 87-90. artikulua, 92. artikuluko 1. paragrafoa eta 94-97. artikulua ez zaizkie aplikatuko, Erkidegoko bi lekuren artean zirkulatuz, Erkidegoko aduana-lurraldetik aldi baterako bakarrik atera diren merkantziei, garraioa linea erregularreko hegazkinaz nahiz itsasontziz egin bada lerro zuzenean eta Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo, eskalarik gabe.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta paragrafo honetan linea erregularreko hegazkin eta itsasontzientzako arau bereziak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

94. artikulua

Egoera berezietan egindako lekualdatzeak

1. Ezinbesteko nahiz ustekabeko arrazoiak direla eta, 92. artikuluko 1. paragrafoan finkatutako betebeharra betetzerik ez badago, betebeharrak hori bete behar duen pertsonak edo haren izenean diharduen beste edozein pertsonak horren berri eman beharko die aduana-agintariei luze gabe. Ezinbesteko nahiz ustekabeko arrazoi horiek eragindako egoerak merkantzien galera osoa eragiten ez badute, merkantziak dauden leku zehatzaren berri eman beharko zaie aduana-agintariei.

2. Ezinbesteko nahiz ustekabeko arrazoiak direla eta, 92. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako itsasontzi edo aireontziek Erkidegoko aduana-lurraldean aldi baterako gelditu behar izan eta 92. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako betebeharra betetzerik ez badute, horren berri eman beharko die aduana-lurraldeei luze gabe itsasontzia edo aireontzia Erkidegoko aduana-lurraldean sartu duen pertsonak, edo haren ordezkari diharduen beste edozein pertsonak.

3. 1. paragrafoan aipatzen diren merkantziei eta itsasontzi eta aireontziei nahiz barruan dituzten merkantziei aduana-zaintza aplikatzeko eta bete beharreko neurriak finkatuko dituzte aduana-agintariak, 2. paragrafoarekin bat etorriz. Horrekin batera, eta behar izanez gero, geroago aduanan edo agintariok erabakitako edo baimendutako beste lekuren batean aurkezten direla bermatzeko neurriak hartuko dituzte, halaber.

2. atala

Merkantziak aurkeztea, deskargatzea eta aztertzea

95. artikulua

Merkantziak aduanan aurkeztea

1. Erkidegoko aduana-lurraldean sartutako merkantziak aduanan aurkeztu beharko dira dagokien aduanara, aduana-agintariak adierazitako edo baimendutako beste edozein lekutara edo zona frankora iritsi eta berehala. Pertsona hauek arduratuko dira merkantziak aurkezteaz:

a) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartu zituen pertsona;

b) merkantziak lurralde horretan beste inoren izenean edo ordezkari sartuz gero, pertsona hura;

c) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartu eta gero haiek garraiatzeko erantzukizuna hartu duen pertsona.

2. 1. paragrafoan adierazitako pertsonari dagozkion betebeharrak gorabehera, hauek aurkeztu ahal izango dituzte merkantziak, haren ordezkari:

a) merkantziak aduana-erregimen batean berehala sartzen dituen edozein pertsona;

b) gordailu-biltegien funtzionamendurako baimenaren titularra edo zona frankoan jardueraren bat egiten duen edozein pertsona.

3. Merkantziak aurkezten dituen pertsonak erreferentzia egin beharko die merkantziei buruz aduanan aurkeztu duen deklarazioari nahiz deklarazio laburtuari.

4. 1. paragrafoak ez du galaraziko xedapen bereziak aplikatzea gutun, postal nahiz inprimakiei eta beste euskarri batzuetan jasota dauden haien baliokideei, bidaiariak garraiatutako merkantziei, muga ondoko zonetan garraiatutako merkantziei, edo hari bidez nahiz eragin ekonomiko apaleko beste edozein trafikoren bidez garraiatutakoei, horren ondorioz aduana-zaintza eta aduana-kontrolak egiteko aukerak oztopatzen ez badira behintzat.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

96. artikulua

Merkantziak deskargatzea eta aztertzea

1. Merkantziak dauden garraibidetik beste garraibide batera aldatzeko edo handik deskargatzeko, aduana-agintarien baimena beharko da aldez aurretik, eta agintari horiek agindutako edo baimendutako lekuetan soilik egin ahal izango da.

Dena den, hur-hurreko arrisku baten ondorioz merkantzia guztiak edo batzuk berehala deskargatu behar izanez gero, ez da baimen hori beharko. Kasu horretan, horren berri eman beharko zaie aduana-agintariei berehala.

2. Aduana-agintariak merkantziak deskargatzeko eta bilgarriak kentzeko eskatu ahal izango dute edozein unetan haiek aztertzeko, eta haien laginak hartu edo dauden garraibideak aztertu ahal izango dituzte.

3. Aduanan aurkeztutako merkantziak ez dira aurkeztu diren lekutik eramango, aduana-agintariak horretarako baimenik eman ezean.

3. atala

Aurkezpenaren osteko izapideak

97. artikulua

Erkidegoz kanpoko merkantziak aduana-erregimen batean sartzeko beharra

1. 125., 126. eta 127. artikuluek alde batera utzi gabe, aduanan aurkezten diren Erkidegoz kanpoko merkantziak aduana-erregimen batean sartu beharko dira.

2. Besterik erabaki ezean, deklaraziogileak merkantziak zein aduana-erregimenetan sartzea nahi duen erabaki ahal izango du, merkantzia horien ezaugarriak, kopurua, jatorrizko herrialdea, norakoa nahiz bidalketa edozein direla ere.

98. artikulua

Aldi baterako gordeta utzitaz jotako merkantziak

1. Merkantziak aduana-deklarazio bat onartua izan zaion aduana-erregimen batean berehala sartzen ez badira edo zona franko batean sartzen ez badira, aduanan aurkeztutako Erkidegoz kanpoko merkantziak aldi baterako gordeta utzitako merkantziak direla ulertuko da, 151. artikuluekin bat etorritik.

2. 87. artikuluko 2. paragrafoan finkatutako betebeharra eta 87. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki hartutako neurriek finkatutako salbuespenak alde batera utzi gabe, aduanan aurkeztutako Erkidegoz kanpoko merkantziek sarrera-deklarazio laburtua ez dutela egiaztatuz gero, merkantzien titularrak berehala aurkeztu beharko du deklarazio hori.

4. atala

Igarotza-erregimen baten babespean ibilitako merkantziak

99. artikulua

Igarotza-erregimen baten barruan iritsitako merkantzientzako dispensa

92. artikulua, 1. paragrafoko lehen lerrokada kenduta, eta 95-98. artikuluek ez dira aplikatuko igarotze-erregimenean sartutako merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen direnean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

100. artikulua

Igarotze-erregimena amaitzean, Erkidegoz kanpoko merkantziei aplikatu beharreko xedapenak

96., 97. eta 98. artikulua igarotza-erregimen baten babespean garraiatzen diren Erkidegoz kanpoko merkantziei aplikatuko zaizkie, igarotza arautzen duten arau guztiekin bat etorriz, Erkidegoko aduana-lurraldeko norako aduanan aurkeztuak izan eta gero.

V. TITULUA

**ADUANA-ESTATUTUARI, MERKANTZIAK ADUANA-ERREGIMEN BATEAN SARTZEARI ETA MERKANTZIAK
EGIAZTATU, JASO ETA LAGATZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

1. KAPITULUA

Merkantzien aduana-estatutua

101. artikulua

Erkidegoko merkantzien aduana-estatutua aurreikustea

1. 161. artikuluan agindutakoa gorabehera, Erkidegoko aduana-lurraldean dauden merkantzia guztiek Erkidegoko merkantzien aduana-estatutua dutela aurreikusiko da, Erkidegoko merkantziak ez direla egiaztatu ezean.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituzten neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta honako xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

a) artikulua honetako 1. paragrafoan aipatutako aurreikuspena zein kasutan ez den aplikatuko;

b) Erkidegoko merkantzien aduana-estatutua zein merkantziak duten argitzeko bideak;

c) osorik Erkidegoko aduana-lurraldean eskuratutako merkantziek Erkidegoko merkantzien estatuturik izango ez duten kasuak kanpo-igarotzako, gordailutzako, aldi baterako inportazioko nahiz perfektionamendu aktiboko erregimen batean sailkatutako merkantzetatik eskuratzen badira,

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

102. artikulua

Erkidegoko merkantzien aduana-estatutua galtzea

Erkidegoko merkantziak Erkidegoz kanpoko merkantzia bihurtuko dira kasu hauetan:

a) Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen direnean, barne-igarotzari buruzko arauak edo 103. artikuluari jarraiki finkatutako neurriak aplikatzen ez badira;

b) kanpo-igarotzako, gordailutzako nahiz perfektionamendu aktiboko erregimen batean sartzen direnean, aduana-legeriak hala agintzen duen guztietan;

c) amaierako norakoari dagokion erregimen batean sartu eta ondoren Estatuaren esku utzi, suntsitu nahiz hondakin gisa amaitzen dutenean;

d) merkantzien garraio askerako izapide-deklarazioa baliogabetu egiten bada 114. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki jasotzea egin eta gero.

103. artikulua

Aduana-lurraldetik aldi baterako ateratzen diren Erkidegoko merkantziak

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta Erkidegoko merkantziek, aduana-erregimen baten babespean egon gabe, Erkidegoko aduana-lurraldeko bi lekuren artean eta aldi baterako lurralde horretatik kanpo haien aduana-estatutua aldatu gabe zirkulatzeko baldintzak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

2. KAPITULUA

Merkantziak aduana-erregimen batean sartzea

1. atala

Xedapen orokorrak

104. artikulua

Merkantziak aduanan deklaratzeko eta Erkidegoko merkantziak aduanan zaintzea

1. Aduana-erregimen batean (zona frankokoa izan ezik) sartzekoak diren merkantzia guztiak duten erregimenaren arabera dagokien aduanan deklaratu beharko dira.

2. Esportatzeko, Erkidegoko barne-igarotzarako nahiz perfektionamendu aktiboari dagokion erregimenerako deklaratzeko merkantziak aduana-zaintzapean geldituko dira, 1. paragrafoan aipatutako deklarazioa onartzen den unetik eta Erkidegoko aduana-lurraldetik atera, Estatuaren esku utzi, suntsituak izan edo aduana-deklarazioa baliogabetzen den arte.

105. artikulua

Eskumeneko aduanak

1. Erkidegoko legeriak besterik agindu ezean, estatu kideek erabakiko dute zein diren beren lurraldeko aduanen kokapena eta eskumenak.

Aduana horiek ordutegi ofiziala (zentsuzkoa eta egokia) dutela ziurtatu beharko dute estatu kideek, trafikoaren eta merkantzien ezaugarriak eta sartuko diren aduana-erregimena kontuan hartuta, nazioarteko trafiko-fluxua ordutegi horren ondorioz kaltetua edo oztopatua izan ez dadin.

2. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, eskumeneko aduanen zereginak eta erantzukizunak finkatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak, hauek bereziki:

- a) sarrerako aduana, inportazioa, esportazioa eta irteera;
- b) merkantziak aduana-erregimen batean sartzeko behar diren izapideak egiteaz arduratutako aduana;
- c) baimenak emateaz eta aduana-prozedurak ikuskatzeaz arduratutako aduana.

106. artikulua

Aduana-izapide zentralizatua

1. Beste aduana batean izapidetzeko aurkeztu diren merkantziei dagokien aduana-deklarazioa, deklarazioa aurkeztu duen pertsona finkatuta dagoen eskumeneko aduanan aurkezteko edo aduana horren esku uzteko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

baimena eman ahal izango diote aduana-agintariak pertsona horri. Kasu horretan, aduana-zorra deklarazioa aurkeztu den edo aduana-agintarien esku jarri den aduanan sortu dela ulertuko da.

2. Aduana-deklarazioa aurkezten edo eskuratzen zaion aduanak izapide guztiak egin beharko ditu deklarazioa egiaztatzeko, aduana-zorrei dagozkien inportazio- nahiz esportazio-eskubideen zenbatekoa biltzeko eta merkantzien jasotzea egiteko baimena emateko.

3. Merkantziak aurkezten diren aduanak aduana-deklarazioa eskuratu zaion aduanak behar bezala justifikatuta eskatutako azterketa guztiak egin beharko ditu, aduanan egin beharreko segurtasun-kontrol guztiez gain, eta merkantziak jasotzeko aukera emango du, aduanan jasotako informazioa kontuan hartuta.

4. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituzten neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

- a) 1. paragrafoan aipatutako baimena ematea;
- b) baimenak zein kasutan berrikusi behar diren;
- c) baimena emateko baldintzak;
- d) baimena emateko eskumena duen aduana-agintaria zein den;
- e) beste aduana-agintari batzuei egin beharreko kontsultak eta agintari horiei eman beharreko informazioa, hala badagokio;
- f) baimen bat eteteko nahiz indargabetzeko baldintzak;
- g) gaiarekin zerikusia duten eskumenerako aduanen egiteko eta erantzukizun zehatzak, egin beharreko kontrolei dagokienez bereziki;
- h) izapideak betetzeko modua eta horretarako epeak,

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

Neurri horiek alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan:

— paragrafo honetako c) idatz-zatiari dagokionez, estatu kide batek baino gehiagok parte hartzen badute, eskatzaileak operadore ekonomiko baimenduaren estatutua eskuratzeko 14. artikuluan finkatutako irizpideak betetzea,

— paragrafo honetako d) idatz-zatiari dagokionez, kontu-ikuskapenetan oinarritutako kontrolak egin ahal izateko, eta aduanari dagozkion ondorioetarako, eskatzailearen kontularitza nagusia zein lekutan egiten den edo non dagoen eskuragarri. Baimendutako jardueren zati bat behintzat leku horretan egin beharra dago.

107. artikulua

Aduana-deklarazio motak

1. Aduana-deklarazioa datuak elektronikoki tratatzeko teknikak erabiliz aurkeztu beharko da. Aduana-agintariak aukera emango dute aduana-deklarazioa deklarazio-egilearen kontularitza-liburuetan idazpen bat eginez egiteko, deklarazio-egilearen sistema elektronikokoan datu horiek ikusteko aukera eduki eta aduanen artean datu horiek trukatzeko baldintzak betez gero.

2. Aduana-legeriak hala agintzen badu, aduana-agintariak onartuko dute aduana-deklarazioa paperean, ahoz nahiz merkantziak aduana-erregimen batean sailkatzeko beste edozein egintzaren bidez egitea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko hau aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

2. atala

Aduana-deklarazio normalak

108. artikulua

Deklarazioen edukia eta egiaztagiriak

1. Aduana-deklarazioetan jaso beharko dira merkantziak sailkatzeko eskatutako aduana-erregimena arautzen duten xedapenak aplikatzeko datu guztiak. Bitarteko informatikoa erabiliz egindako aduana-deklarazioetan sinadura elektronikoa edo beste autentifikazio-bitartekoren bat erabili behar da. Paperezko deklarazioak sinatu egin behar dira.

184. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritz, aduana-deklarazioek bete beharreko zehaztapen guztiak finkatuko ditu Batzordeak.

2. Merkantziak sailkatzeko eskatutako aduana-erregimena arautzen duten xedapenak aplikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak aduana-agintarien esku jarri behar dira deklarazioa aurkezteko garaian.

3. Aduana-deklarazioa aurkezteko datuak elektronikoki tratatzeko teknikaren bat erabiliz gero, egiaztagiriak ere teknika berarekin erabiltzeko aukera emango dute aduana-agintariak. Aduana-agintariak ontzat hartu ahal izango dute agiri horiek aurkeztu beharrean, operadore ekonomikoaren informatika-sisteman jasota dauden datuetan sartzen uztea.

Dena den, deklarazio-egileak aldeztatik hala eskatuz gero, aduana-agintariak aukera eman ahal izango dute agiri horiek merkantzien jasotzea egin eta gero aurkezteko.

4. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, Batzordeak neurriak hartu ahal izango ditu artikuluko honetako 2-3. paragrafoak aplikatzeko.

3. atala

Aduana-deklarazio sinplifikatuak

109. artikulua

Deklarazio sinplifikatua

1. Artikulu honetako 2. eta 3. paragrafoetan finkatutako baldintzak betez gero, aduana-agintariak aukera emango dute merkantziak aduana-erregimen batean sartzeko deklarazio sinplifikatua aurkezteko, eta deklarazio horretatik kanpo utzi ahal izango dira 108. artikuluan aipatutako zenbait datu eta egiaztagiri.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta artikulu honetako lehen paragrafoan aipatutako baimena emateko baldintzak arautzen dituztenak, 1. artikuluko 184. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritz onartuko dira.

3. 184. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritz, Batzordeak neurriak hartu ahal izango ditu aduana-deklarazio sinplifikatuak bete beharreko zehaztapenak arautzeko.

110. artikulua

Deklarazio osagarria

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. 109. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki aurkeztutako deklarazio sinplifikatuen kasuan, deklarazio-egileak deklarazio osagarria aurkeztu beharko du, aduana-deklarazioa dagokion aduana-erregimenerako osatzeko behar diren gainerako datuak jasotzen dituena.

Deklarazio osagarria orokorra, aldirokoa nahiz laburpen-modukoa izan daiteke.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta paragrafo honetan aipatutako xedapenetarako salbuespenak finkatzen dituztenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

2. 109. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako deklarazio osagarria eta deklarazio sinplifikatua tresna bakar eta zatiezintzat hartuko dira, eta tresna horrek eragina izango du 112. artikuluari jarraiki egindako deklarazio sinplifikatua onartzen den egunetik aurrera.

Deklarazio sinplifikatuaren ordeztu, deklarazio-egilearen kontularitza-liburuetan idazpen bat egiten bada eta aduana-agintariei datuok ikusteko aukera ematen bazaie, merkantziak liburuotan jasotzen diren egunetik aurrera izango du eragina deklarazioak.

3. 55. artikulua ondo onartutako, aduana-deklarazioa aurkeztu zen lekuan aurkeztu beharko da baimenarekin bat etorritik aurkeztu beharreko deklarazio osagarria.

4. atala

Aduana-deklarazio guztiei aplikatu beharreko xedapenak

111. artikulua

Deklarazio-egilea

1. 110. artikuluko 1. paragrafoan agindutakoa gorabehera, aduana-deklarazioa egin ahal izango du deklaratu-tako merkantziari dagokien aduana-erregimena arautzen duten xedapenak aplikatzeko eskatzen diren dokumentu guztiak aurkeztu edo eskuragarri izan behar dituen edozeinek. Pertsona horrek berak aurkeztu edo aurkeztarazi ahal izango ditu merkantziak eskumeneko aduanan.

Dena den, aduana-deklarazioa onartzeko pertsona zehatz bati betebeharrak zehatz batzuk jartzen bazaizkio, pertsona horrek edo haren ordezkariak egin beharko du deklarazioa.

2. Deklarazio-egileak Erkidegoko aduana-lurraldearen barruan egon behar du finkatuta. Dena den, Erkidegoan finkatuta egoteko betebeharrak salbuetsita daude hauek:

— deklarazioa igarotzarako edo aldi baterako onartzeko aurkeztu duten pertsonak,

— merkantziak noizean behin bakarrik deklaratu dituzten pertsonak, aduana-lurraldeak hori justifikatutzat joz gero.

3. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta 2. paragrafoan aipatutako betekizuna ez betetzeko kasuak eta baldintzak finkatzen dituztenak.

112. artikulua

Deklarazioak onartzea

1. Kapitulu honetan finkatutako baldintzak betetzen dituzten deklarazioak berehala onartuko dituzte aduana-agintariek, baldin eta deklarazioan aipatzen diren merkantziak aduanan aurkeztu badira edo, aduana-agintariak erabakiarekin ados egonik, haien esku utziko badira, aduana-kontrolak egiteko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Deklarazioa deklarazio-egilearen kontularitza-liburuko idazpen moduan egiten bada, aduana-agintariak datu horiek eskuratzeko aukera izanik, deklarazioa onartuzat emango da merkantzien idazpena liburuetan egiten den unetik. Deklarazio-egilearen legezko betebeharrak eta aplikatu beharreko segurtasun- eta babes-kontrolak gorabehera, merkantziak aduana-kontrolak egitera aurkeztu edo kontrola egiteko prest jarri behar ez izatea erabaki ahal izango dute aduana-agintariak.

2. Artikulu honetako 110. artikuluko 2. paragrafoan edo 1. paragrafoko bigarren lerroan finkatutakoa gorabehera, merkantziak aurkeztutakoaz bestelako aduana batean aurkeztutako aduana-deklarazioak onartu egingo dira, aduana hark merkantziak aduana-kontrolak egiteko prest daudela egiaztatuz gero.

3. Besterik esaten ez bada, aduana-agintariak aduana-deklarazioa onartzeko data izango da merkantziak sartu nahi diren aduana-erregimena arautzen duten xedapenak aplikatzeko eta inportazioari nahiz esportazioari dagozkion bestelako izapideetarako erabili beharreko data.

4. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorriz, artikulu hau aplikatzeko neurriak finkatzeko neurriak hartuko ditu Batzordeak.

113. artikulua

Deklarazioak zuzentzea

1. Deklarazioa aduanan onartua izan eta gero, deklarazio horretako datu bat edo gehiago aldatzea izango du deklarazio-egileak, hala eskatu eta gero. Zuzenketak egin arren, deklarazioa ezin izango da hasiera batean han aipatutakoez bestelako merkantziatarako erabili.

2. Ezin izango da halako zuzenketarik egin, aduana-agintariak honakoren bat egin eta gero eskatzen bada:

- a) deklarazio-egileari merkantziak ikuskatu nahi dituztela jakinaraztea;
- b) aurkeztutako datuak zuzenak ez direla frogatzea;
- c) merkantzien jasotzea egin dadin baimentzea.

3. 2. artikuluko 184. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorriz onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta artikulu honetako bigarren paragrafoko c) idatz-zatian esandakoaren salbuespenak finkatzen dituztenak.

114. artikulua

Deklarazioak baliogabetzea

1. Deklarazio-egileak hala eskatuz gero, dagoeneko onartutako deklarazio bat baliogabetu ahal izango dute aduana-agintariak, kasu hauetan:

- a) merkantziak berehala beste aduana-erregimen batean sartuko direla egiaztatuz gero;
- b) gorabehera berezien ondorioz, merkantziak deklaratu zireneko aduana-erregimenean sartzea justifikatuta egoteari utzi diola egiaztatuz gero.

Nolanahi ere, aduana-agintariak merkantziak ikuskatu nahi dituztela jakinarazi badiote deklarazio-egileari, ez da deklarazioa baliogabetzeko eskaerarik onartuko, ikuskapen hori egin arte.

2. Ez da deklaraziorik baliogabetuko merkantzien jasotzea egin eta gero.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta paragrafo honetan aipatutako xedapen-erako salbuespenak finkatzen dituztenak.

5. atala

Beste sinplifikazio batzuk

115. artikulua

Azpipartida arantzelario desberdinetan jasotako merkantziei dagokien aduana-deklarazioa egiteko bidea erraztea

Bidalketa batean azpipartida arantzelario desberdinetako merkantziak baldin badaude eta, aduana-deklarazioa egiteari dagokionez, merkantzia horietako bakoitzak haien azpipartida arantzelarioen araberako neurrigabeko lana eta kostua eskatzen badu aplikatu beharreko inportazio-eskubideen zenbatekoaren aldean, deklarazio-egileak hala eskatuta, aduana-agintariak erabaki dezakete bidalketa guztiari inportazio- nahiz esportazio-eskubiderik altuena ordaindu behar duten merkantzien azpipartida arantzelarioa kobratzea.

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, artikulua hau aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

116. artikulua

Izapideak eta aduana-kontrolak sinplifikatzea

1. Kapitulu honetako 3. atalean jasotakoez gain, izapideak eta aduana-kontrolak sinplifikatzeko bide gehiago onartuko dituzte aduana-agintariak.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituzten neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

- a) 1. paragrafoan aipatutako baimenak ematea;
- b) baimenak berrikusteko kasuak eta aduana-agintariak haien erabilera kontrolatzeko baldintzak;
- c) baimena emateko baldintzak;
- d) operadore ekonomiko bati hasiera batean aduana-agintariak berek egin beharreko izapide jakin batzuk (inportazio- eta esportazio-eskubideen autokitapena, adibidez) egiteko eta aduanaren ikuskaritzapean kontrol batzuk egiteko baimena emateko baldintzak;
- e) baimenak emateko eskumena duen aduana-agintariaren identifikazioa;
- f) beste aduana-agintari batzuei egin beharreko kontsultak eta agintari horiei eman beharreko informazioa, hala badagokio;
- g) baimen bat eteteko nahiz indargabetzeko baldintzak;
- h) gaiarekin zerikusia duten eskumenerako aduanen egiteko eta erantzukizun zehatzak, egin beharreko kontrol-egitekiak bereziki;
- i) izapideak betetzeko modua eta horretarako epeak,

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Neurri horiek alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Erkidegoko aduana-lurraldean sartzen nahiz handik irteten diren merkantziak babesteko eta segurtasun-arrazoiengatik egin beharreko izapideak eta aduana-kontrolak,
- 25. artikuluko 3. paragrafoari jarraiki onartutako neurriak,
- paragrafo honetako d) idatz-zatiari dagokionez, estatu kide batek baino gehiagok parte hartzen badute, operadore ekonomiko baimenduaren estatutuari eutsiko zaio, 14. artikuluan finkatutako irizpideekin bat etorritz,
- paragrafo honetako e) idatz-zatiari dagokionez, kontu-ikuskapenetan oinarritutako kontrolak egin ahal izateko, eta aduanari dagozkion ondorioetarako, eskatzailearen kontularitza nagusia zein lekutan egiten den edo non dagoen eskuragarri. Baimendutako jardueren zati bat behintzat leku horretan egin beharra dago.

3. KAPITULUA

Merkantziak egiaztatu eta jasotzea

1. atala

Egiaztatzea

117. artikulua

Aduana-deklarazioak egiaztatzea

Onartutako aduana-deklarazioan jasotako datuak zuzenak direla egiaztatzeko, honako hauek egin ahal izango dituzte aduana-agintariak:

- a) deklarazioa eta egiaztagiri guztiak aztertu;
- b) deklarazio-egileari beste agiri batzuk aurkezteko eskatu;
- c) merkantziak ikuskatu;
- d) merkantzien laginak hartu haien analisisa nahiz azterketa zorrotza egiteko.

118. artikulua

Merkantziak aztertzea eta laginak hartzea

1. Deklarazio-egileak garraiatu beharko ditu, edo haren ardurapean garraiatu beharko dira, merkantziak aztertu behar diren eta haien laginak hartu behar diren lekuraino, eta azterketa nahiz laginketa egiteko egin beharreko manipulazio guztiak ere bere ardurapekoak izango dira. Deklarazio-egileak ordaindu beharko ditu horrek eragindako gastuak.
2. Deklarazio-egileak eskubidea izango du merkantziak aztertzen diren unean eta haien laginak hartzen diren unean bertan egoteko edo bere ordezkari bat bertan egoteko. Aduana-agintariak, arrazoi sendorik izanez gero, eskatu ahal izango dute deklarazio-egilea edo haren ordezkari bat bertan egoteko merkantziak aztertzean edo haien laginak hartzean nahiz azterketa eta laginketa egiteko behar den laguntza emateko.
3. Indarrean dauden xedapenekin bat etorritik eginez gero, aduana-agintariak laginak hartzeak ez du administrazioaren inolako kalte-ordainik ekarriko, nahiz eta azterketa edo analisisak eragindako gastuak administrazioak ordaindu behar izan.

119. artikulua

Merkantzien azterketa partziala egitea eta haien laginak hartzea

1. Aduana-deklarazio batean jasotako merkantzien zati bati bakarrik egiten bazaio azterketa edo zati baten laginak hartzen badira bakarrik, deklarazio berean jasotako merkantzia guztiei aplikatuko zaizkie azterketa partzial horren edo hartutako lagin horien emaitzak.

Dena den, azterketa partzialaren nahiz hartutako laginen azterketaren emaitzak deklaraturako gainerako merkantziatarako egokiak ez direla iritziz gero, beste azterketa bat egiteko nahiz beste lagin batzuk hartzeko eskatu ahal izango du deklarazio-egileak. Eskaera hori onartu egingo da merkantzien jasotzerik egin ez bada edo, merkantzien jasotzea eginda ere, merkantziak inola ere ez direla eraldatu frogatzen badu deklarazio-egileak.

2. 1. paragrafoaren ondorioetarako, aduana-deklarazio batean bidalketa-agiri bat baino gehiago jasotzen badira, haietako bakoitza deklarazio bereiztat hartuko da.

3. 184. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kudeatze-prozedurarekin bat etorriz, artikuluko 1. paragrafoari egindako azterketen emaitza desberdina izanez gero aplikatu beharreko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak.

120. artikulua

Egiaztapenaren emaitzak

1. Aduana-deklarazioaren egiaztapenaren emaitzak erabiliko dira merkantziak sartu behar diren erregimena arautzen duten xedapenak aplikatzeko.

2. Aduana-deklarazioa egiaztatzen ez bada, 1. paragrafoa aplikatuko da, deklarazioan jasotako datuak oinarritzat hartuta.

3. Aduana-agintariak egindako egiaztapenen emaitzek froga-indar bera izango dute Erkidegoko aduana-lurralde osoan.

121. artikulua

Identifikatzeko neurriak

1. Merkantziak identifikatzeko behar diren neurriak hartuko dituzte aduana-agintariak edo agintari horiek baimendutako operadore ekonomikoek, merkantziak deklaratu direneko aduana-erregimena arautzen duten xedapenak betetzen direla berresteko identifikazio hori egitea beharrezkoa den kasuetan. Identifikatzeko neurri horiek eragin juridiko berbera izango dute Erkidegoko aduana-lurralde osoan.

2. Aduana-agintariak edo haiak baimendutako operadore ekonomikoek bakarrik kendu edo suntsitu ahal izango dituzte merkantzetan nahiz garraiobideetan jarritako identifikazio-ikurrak non eta, ezusteko nahiz ezinbesteko arrazoen ondorioz, ikur horiek kentzea edo suntsitzea ezinbestekoa den merkantziak nahiz garraiobideak babesteko.

122. artikulua

Aplikazio-neurriak

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorriz, atal hau aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak.

2. atala

Jasotzea

123. artikulua

Merkantzien jasotzea

1. 117. artikulua gorabehera, merkantziak dagozkion erregimenean sailkatzeko baldintzak betetzen direnean, eta merkantziei inolako murrizketa edo debekurik aplikatu ez bazaie, merkantzien jasotzea egin dadin baimenduko dute aduana-agintariak, aduana-deklarazioko datuak egiaztatu nahiz haiek egiaztatu gabe onartuak izan bezain laster.

117. artikuluan aipatutako egiaztapena zentzuzko epe batean betetzerik ez badago eta egiaztapena egiteko merkantzia guztiak bertan egotea jada beharrezkoa ez bada, lehen lerrokada aplikatuko da, halaber.

2. Jasotzea behin bakarrik emango da deklarazio berean jasotako merkantzia guztietarako. Lehen lerrokadaren ondorioetarako, aduana-deklarazio batean bidalketa-agiri bat baino gehiago jasotzen badira, deklarazio bereiztat hartuko da haietako bakoitza.

3. Aduana-deklarazioa onartu duenaz bestelako aduana batean aurkezten badira merkantziak, merkantzien jasotzea egiteko beharrezko informazioa trukatu ahal izango dute aduana horiek, dagozkion kontrolak egitearekin batera.

124. artikulua

Aduana-zorrari nahiz bermea eratzeari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubidearen zenbatekoa ordaintzeari lotutako jasotzea

1. Merkantziak aduana-erregimen batean sartzean aduana-zor bat sortzen bada, merkantzia horien jasotzea egin ahal izateko aduana-zorrari dagokion inportazio- nahiz esportazio-eskubidearen zenbatekoa ordaindu beharko da aurrena, edo zor hori bere gain hartzen duen bermea eratu beharko da, bestela.

Dena den, hirugarren lerrokada gorabehera, lehen lerrokada ez zaio aplikatuko inportazio-eskubideen zati bat ordaindu behar ez izanik egindako aldi baterako onarpen-erregimenari. Merkantziak deklaritzen direneko aduana-erregimena arautzen duten xedapenekin bat etorritz, aduana-agintariak berme bat eratzeo eskatzen badute, berme hori eratu eta gero aukeratutako aduana-erregimenerako bakarrik onartuko da merkantzien jasotzea egitea.

2. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritz, artikuluko honetako lehen paragrafoko lehen eta hirugarren lerrokadei dagozkien salbuespenak finkatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak.

4. KAPITULUA

Merkantziak lagatzea

125. artikulua

Merkantziak suntsitzea

Horretarako arrazoi sendoak daukatenean, aduanan aurkeztutako merkantziak suntsitzeko agindu ahal izango dute aduana-agintariak, eta horren berri eman beharko diote merkantzien titularrari. Merkantzien titularrak ordaindu beharko du suntsitzearen kostua.

126. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aduana-agintariak hartu beharreko neurriak

1. Aduana-agintariak beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte (merkantziak konfiskatu eta saltzea edota suntsitzea barne) honako kasu hauetan:

a) Erkidegoz kanpoko merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzeari buruzko aduana-legeetan finkatutako betebeharren bat urratzen denean, edo merkantziak aduana-zaintzatik pasatzen ez direnean;

b) honako arrazoiren batengatik merkantzien jasotzea egin behar ez denean:

i) deklarazio-egileari egoztekoak diren arrazoiak direla eta, merkantzien azterketa ezin izan bada egin edo azterketa hori egiten ezin izan bada jarraitu, aduana-agintariak finkatutako epeetan,

ii) merkantziak eskatutako aduana-erregimenean sartzeko edo erregimen horretarako jasotzeko aurkeztu beharreko dokumentuak aurkeztu ez badira,

iii) inportazio- nahiz esportazio-eskubideak finkatutako epeetan ordaindu edo bermatu ez badira,

iv) merkantziek murrizpenik edo debekurik badute;

c) merkantziak ez badira aduanatik eraman zentzuzko epe batean, haien jasotzea onartu eta gero;

d) merkantzien jasotzea egin eta gero, jasotze hori egiteko baldintzak ez direla bete egiaztatuz gero;

e) merkantziak Estatuaren esku uzten direnean, 127. artikularekin bat etorritik.

2. Estatuaren esku utzitako, konfiskatutako eta dekomisatutako Erkidegoz kanpoko merkantziak aldi baterako gordetzeko erregimenean sartutako merkantziatzat hartuko dira.

127. artikulua

Merkantziak bertan behera uztea

1. Erkidegoz kanpoko merkantziak eta amaierako norakoari dagokion erregimenean sartutako merkantziak Estatuaren esku utzi ahal izango ditu erregimenaren titularrak edo, hala dagokionean, merkantzien titularrak, aduana-agintariak baimena jaso eta gero.

2. Merkantziak bertan behera uzteak ezin dio inolako gasturik eragin Estuari. Merkantziak suntsitzeko nahiz lagatzeko gasturik egonez gero, erregimenaren titularrak edo, hala badagokio, merkantzien titularrak ordaindu beharko ditu.

128. artikulua

Aplikazio-neurriak

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta kapitulu honen aplikazioari buruz dihardutenak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontroldun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira.

VI. TITULUA

GARRAIO ASKERAKO IZAPIDEA ETA INPORTAZIO-ESKUBIDEAK ORDAINTZEKO SALBUESPENA

1. KAPITULUA

Garraio askerako izapidea

450/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 145/1, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

129. artikulua

Aplikazio-eremua eta ondorioak

1. Garraio askerako izapideari dagokion erregimenean sartuko dira erkidegoko merkatuan sartu beharreko nahiz Erkidego barruan erabiltzeko edo kontsumitzeko Erkidegoz kanpoko merkantziak.
2. Hauxe dakar garraio askerako izapideak:
 - a) zor diren inportazio-eskubideak jasotzea;
 - b) beste karga batzuk jasotzea, hala badagokio, karga horiek jasotzeari buruz indarrean dauden xedapenekin bat etorritz;
 - c) merkataritza-politikako neurriak eta mugapen eta debekuak aplikatzea, aurreko fase batean aplikatu ez badira;
 - d) merkantziak inportatzeko aurreikusitako gainerako aduana-izapideak betetzea.
3. Garraio askerako izapideak Erkidegoko merkantzien aduana-estatua emango die Erkidegoz kanpoko merkantziei.

2. KAPITULUA

Inportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena

1. atala

Itzulerako merkantziak

130. artikulua

Aplikazio-eremua eta ondorioak

1. Interesdunak hala eskatuz gero, ez dute inportazio-eskubiderik ordaindu behar izango Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo Erkidegoko merkantzia gisa esportatuak izan eta gero, hiru urteko epearen buruan berriz ere Erkidegoan sartu eta garraio askerako izapiderako deklaritzen diren Erkidegoz kanpoko merkantziek.
 2. 1. paragrafoan aipatutako hiru urteko epea luzatu egingo da, baldintza berezirik egonez gero.
 3. Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo esportatu aurretik, itzulerako merkantziak garraio askerako izapidetuak izan badira inportazio-eskubide txikiagoarekin edo eskubideok ordaindu behar izan gabe amaierako norako berezia dutela eta, 1. paragrafoan aipatzen den eskubidea ez ordaintzeko aukera onartuko da, merkantzia horiek garraio askerako amaierako norako berberarekin izapidetuko badira soilik.
- Merkantziak garraio askerako izapidetuak izango diren amaierako norakoak berdina izateari uzten badio, inportazio-eskubidearen zenbatekoari kenduko zaio garraio askerako lehenbiziko izapidean jasotako eskubideei dagokien zenbatekoa. Jasotako eskubideak itzulerako merkantzien garraio askerako izapideari dagokiona baino gehiago badira, ez da dirurik itzuliko.
4. Merkantziek Erkidegoko merkantziei dagokien aduana-estatutua galtzen badute 102. artikuluko b) idatz-zatian agindutakoari jarraiki, eta geroago garraio askerako izapidetzen badira, artikuluko 1., 2. eta 3. artikuluko aplikatuko dira *mutatis mutandis*.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. Inportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena onartuko da, soilik, merkantziak esportatu ziren egoera berean berrinportatzen badira.

131. artikulua

Inportazio-eskubideen salbuespena onartuko ez den kasuak

130. artikuluan finkatutako inportazio-eskubideen salbuespena ez da aplikatuko kasu hauetan:

a) Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo perfektionamendu pasiboko erregimenean esportatutako merkantzien kasuan, baldintza hauetakoren bat gertatuz gero izan ezik:

i) merkantziak esportatu ziren egoera berean gelditzea,

ii) 134. artikuluekin bat etorritik onartutako arauak horretarako aukera ematea;

b) nekazaritza-politika bateratuari jarraiki onartutako neurriez baliatu diren merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo esportatuz gero, 134. artikuluari jarraiki onartutako arauak horretarako aukera ematen ez badute.

132. artikulua

Lehenago perfektionamendu aktiboko erregimenean zeuden merkantziak

1. Perfektionamendu aktiboko erregimenean sailkatuak izan eta gero, hasiera batean Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo birresportatutako produktu eraldatuei 130. artikulua aplikatuko zaie, *mutatis mutandis*.

2. Deklaraziogileak hala eskatuta, eta beharrezko informazioa aurkeztu eta gero, artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den merkantziak inportatzeko eskubideen zenbatekoa finkatuko da 53. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritik. Birresportazio-jakinazpena onartzeko data hartuko da garraio askerako izapiderako datatzat.

3. 130. artikuluan finkatutako inportazio-eskubideen salbuespena ez zaie aplikatuko 142. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatiarekin bat etorritik esportatutako produktu eraldatuei, ez bada bermatzen merkantziak perfektionamendu aktiboko erregimenean ez direla sailkatuko.

2. atala

Itsas arrantza eta itsasotik ateratako produktuak

133. artikulua

Itsas arrantzako produktuak eta itsasotik ateratako gainerako produktuak

36. artikuluko 1. paragrafoan adierazitakoa baztertu gabe, ondoren zehazten direnek ez dute inportazio-eskubiderik ordaindu beharko garraio askerako izapidetzen direnean:

a) Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko herrialde edo lurralde baten jurisdikziopeko uretatik estatu kide batean bakarrik matrikulatutako edo erregistratutako eta Estatu horren bandera daramaten ontziek ateratako itsas arrantzako produktuak eta gainerako produktuak;

b) fabrika-itsasontzien barruan, eta a) idatz-zatian zehaztutako baldintza berberetan, a) idatz-zatian aipatutako produktuetatik ateratako produktuak.

3. atala

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aplikazio-neurriak

134. artikulua

Aplikazio-neurriak

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta kapitulu honen aplikazioari buruz dihardutenak.

VII. TITULUA

ERREGIMEN BEREZIAK

1. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

135. artikulua

Aplikazio-eremua

Merkantziak ondoren zehazten diren erregimen berezien edozein kategoriatan sailkatu ahal izango dira:

- a) igarotza, barnekoa nahiz kanpokoak;
- b) gordetzea, merkantziak aldi baterako gordetzea, aduanan gordetzea eta zona frankoetan gordetzea barne;
- c) norako bereziak, aldi baterako inportazioa eta amaierako norakoa barne;
- d) perfektionamendua, aktiboa nahiz pasiboa.

136. artikulua

Baimenak

1. Aduana-agintarien baimena beharko da honako hauek egiteko:

— perfektionamendu aktibo nahiz pasiboko, aldi baterako inportaziorako nahiz amaierako norakoari dagokion erregimena erabiltzeko,

— merkantziak aldi baterako gordetzeko edo aduanan gordetzeko instalazioak ustiatzeko, non eta merkantziak gordetzeko instalazioetako operadorea aduana-agintaria bera ez den.

Baimenean zehaztuko dira aipatutako erregimenetako bat edo gehiago erabiltzeko eta merkantziak biltegitratzeko instalazioak ustiatzeko baldintzak.

2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzen dituzten neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:

- a) 1. paragrafoan aipatutako baimena ematea;
- b) baimenak zein kasutan berrikusi behar diren;
- c) baimena emateko baldintzak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- d) baimena emateko eskumena duen aduana-agintaria zein den;
- e) beste aduana-agintari batzuei egin beharreko kontsultak eta agintari horiei eman beharreko informazioa, hala badagokio;
- f) baimen bat eteteko nahiz indargabetzeko baldintzak;
- g) gaiarekin zerikusia duten eskumeneko aduanen egiteko eta erantzukizun zehatzak, egin beharreko kontrolei dagokienez bereziki;
- h) izapideak egiteko modua eta epeak. Neurri horiek guztiak, 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira.

Neurri horiek alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- a) paragrafo honetako c) idatz-zatiari dagokionez, estatu kide batek baino gehiagok parte hartzen badute, eskatzaileak operadore ekonomiko baimenduaren estatutua eskuratzeko 14. artikuluan finkatutako irizpideak betetzea,
- b) paragrafo honetako d) idatz-zatiari dagokionez, kontu-ikuskapenetan oinarritutako kontrolak egin ahal izateko, eta aduanari dagozkion ondorioetarako, eskatzailearen kontularitza nagusia zein lekutan egiten den edo non dagoen eskuragarri. Baimendutako jardueren zati bat behintzat leku horretan egin beharra dago.

3. Aduana-legeriak besterik ez badio, honako hauei emango zaie soil-soilik 1. paragrafoan aipatutako baimena:

- a) Erkidegoko aduana-lurraldean finkatutako pertsonari;
- b) eragiketarik ondo egiteari dagokionez, beharrezko segurtasuna ematen duten pertsonari, eta erregimen berezi batean sailkatutako merkantziengatik aduana-zorren bat nahiz bestelako kargak sortzen diren kasuetan, 56. artikularekin bat etorri bermea eraten duten pertsonari;
- c) aldi baterako inportazio-erregimenean nahiz perfektionamendu aktiboko erregimenean kasuan, merkantziak erabiltzen dituen edo erabiltzeko agintzen duen nahiz merkantziak eraldatzeko eragiketarik eginarazten dituen pertsonari, hurrenez hurren. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betetzeko onartu behar dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta paragrafo honetan aipatutako xedapenetarako salbuespenak finkatzen dituztenak.

4. Besterik esaten ez bada, eta 3. paragrafoan adierazitakoa osatzeko, 1. paragrafoan aipatzen den baimena eskuratzeko baldintza hauek bete behar dira ezinbestean:

- a) aduana-agintariak aduana-zaintza egin ahal izatea, jaso beharreko zenbatekoen aldean neurrigabea gertatzen den tresna administratiborik martxan jarri behar izan gabe;
- b) perfektionamendu-erregimenean sailkatzeko baimenak (baldintza ekonomikoak) ez kaltetzea Erkidegoko ekoizleen oinarritzko eskubideak.

Aurreko paragrafoko b) idatz-zatiaren ondorioetarako, Erkidegoko ekoizleen oinarritzko eskubideak kaltetzen ez direla ulertuko da besterik erakusten duen frogarik ez badago, edota aduana-legeriak baldintza ekonomiko horiek betetzat jotzen baditu.

Erkidegoko ekoizleen oinarritzko interesak kaltetuak izan daitezkeela erakusten duten frogak egonez gero, baldintza ekonomikoak berrikusiko dira, 185. artikuluari jarraiki.

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorri, honako alderdi hauek arautzeko behar diren aplikazio-neurriak onartuko ditu Batzordeak:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) baldintza ekonomikoen berrikusketa;

b) Erkidegoko ekoizleen oinarritzko eskubideak kaltetuak izan daitezkeen kasuak, merkataritza- eta nekazaritza-arloko neurriak kontuan hartuta;

c) baldintza ekonomikoak betetzat jotzen diren kasuak.

5. Baimenaren titularrak baimena eskuratu ondoren izandako edozein gorabeheraren berri eman behar die aduana-agintariei, gorabehera horiek baimenari eusteko baldintzetan nahiz baimenaren edukian eraginik izanez gero.

137. artikulua

Kontularitza-liburuak

1. Igarotza-erregimenean izan ezik, aduana-legeriak hala agintzen duenean, baimenaren titularrak, erregimenearen titularrak eta zona frankoetan merkantziak salerosteko nahiz merkantziak gordetzeko, lantzeko edo eraldatzeko jardueraren bat egiten duten pertsona guztiek kontularitza-liburuak osatu beharko dituzte, aduana-agintariak onartutako moduan.

Liburu horien bidez, aduana-agintariak dagokion aduana-erregimena zaindu ahal izan behar dute, dagokion erregimenean sailkatutako merkantziak identifikatzeari, haien aduana-estatutuari eta haien joan-etorriari dagokienez bereziki.

2. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta artikuluko honen aplikazioari dagozkionak.

138. artikulua

Erregimen bat azkentzea

1. Igarotza-erregimenean kasuan izan ezik, eta 166. artikuluan agindutakoa baztertu gabe, erregimen berezia azkenduko da erregimen batean sailkatutako merkantziak, edo produktu eraldatuak, ondorengo beste aduana-erregimen batean sartzen direnean, Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen direnean, hondakinik sortu gabe suntsitzen direnean edo Estatuaren esku uzten direnean, 127. artikulurekin bat etorritik.

2. Merkantziak atera eta iristeko aduanen esku dauden datuak alderatuta, prozedura behar bezala azkendu dela egiaztatzea dutenean, aduana-agintariak azkendu egingo dute igarotza-erregimena.

3. Aduana-agintariak behar diren neurri guztiak hartuko dituzte erregimen bat aurreikusitako baldintzetan azkendu ez deneko merkantzien egoera erregularizatzeko.

139. artikulua

Eskumenak eta betebeharrak besterentzea

Erregimen baten titularrak igarotza-erregimenaz bestelako erregimen batean sailkatutako merkantzien gainean dituen eskubide eta betebeharrak (guzti-guztiak nahiz batzuk bakarrik) erregimen horretarako finkatutako baldintzak betetzen dituen beste pertsona bati besterendu ahal izango dizkio, aduana-agintariak finkatutako baldintzetan.

140. artikulua

Merkantzien joan-etorria

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Igarotza-erregimenaz nahiz zona frankoari dagokion erregimenaz bestelako erregimen berezi batean sailkatutako merkantziak Erkidegoaren aduana-lurraldeko hainbat lekuren artean ibili ahal izango dira, baimenean nahiz aduana-legerian hori baimentzen den kasuetan.

2. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorriz, artikuluko hau aplikatzeko neurriak onartuko ditu Batzordeak.

141. artikulua

Ohiko manipulazioak

Aduanan gordetzeko erregimen batean, perfektionamendu-erregimen batean nahiz zona franko batean dauden merkantziei behar diren ohiko manipulazioak egingo zaizkie ondo kontserbatzeko, aurkezpena nahiz kalitate komertziala hobetzeko nahiz banatzeko edo birsaltzeko prestatzeko.

142. artikulua

Merkantzia baliokideak

1. Erregimen berezi batean sailkatutako ordez gordetzeko utzitako, erabilitako nahiz eraldatutako Erkidegoko merkantziak merkantzia baliokidetzat hartuko dira.

Perfektionamendu pasiboko esparruan, berriz, merkantzia baliokidetzat hartuko dira perfektionamendu pasiboko erregimenean sailkatutako Erkidegoko merkantzien ordez eraldatze-eragiketarik egiten zaizkien Erkidegoz kanpoko merkantziak.

Merkantzia baliokideek ordezkatzen dituzten merkantzien nomenklatura konbinatuko zortzi digituz osatutako kode bera izan behar dute, kalitate komertzial berekoak izan behar dute eta beste merkantzia haien ezaugarri tekniko berberak izan behar dituzte.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorriz onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta artikuluko honen hirugarren lerrokan esandakoaren salbuespenak finkatzen dituztenak.

2. Erregimenaren martxa ona bermatuz gero, aduana-zaintzari dagokionez bereziki, aduana-agintariak honako hauek baimenduko dituzte:

a) merkantzia baliokideak erabiltzea, igarotzeko, aldi baterako inportazioko nahiz aldi baterako gordetzeko erregimenaz bestelako erregimen berezi batean egonez gero;

b) perfektionamendu aktiboko erregimenaren kasuan, ordezkatzen dituzten merkantziak inportatu aurretik merkantzia baliokideetatik ateratako produktu eraldatuak esportatzea;

c) perfektionamendu pasiboko erregimenaren kasuan, ordezkatzen dituzten merkantziak esportatu aurretik merkantzia baliokideetatik ateratako produktu eraldatuak esportatzea.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorriz onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta aduana-agintariak aldi baterako inportatzeko erregimenean merkantzia baliokideak erabiltzea baimendu dezaketen kasuak finkatzen dituztenak.

3. Ezin izango da merkantzia baliokiderik erabili, kasu hauetan:

a) 141. artikulurekin bat etorriz egindako ohiko manipulazioak perfektionamendu aktiboko erregimenaren barruan egiten direnean;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) Erkidegoaren eta Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko zenbait herrialde edo lurralderen nahiz herrialde eta lurralde horien taldeen arteko lehentasunezko hitzarmen baten barruan, debekua finkatzen denean jatorri-proba bat luzatzen edo finkatzen zaien perfektionamendu aktiboko erregimenean eraldatutako produktuak fabrikatzeko erabilitako merkantzia ez jatorrizkoak inportatzeko eskubideak itzultzeko nahiz salbuesteko, edo

c) onura bidegaberen bat sortu baldin badaiteke inportazio-eskubideetan.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta merkantzia baliokideak erabili ezin diren beste kasu batzuk finkatzen dituztenak.

4. Artikulu honetako 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen den kasuan, eta eraldatutako produktuak perfektionamendu aktiboko erregimenaren barruan esportatzen ez badira esportazio-eskubideak ordaindu behar izanez gero, baimenaren titularrak bermea jarri beharko du ordaindu beharreko eskubideak ordainduko direla ziurtatzeko, baldin eta Erkidegoz kanpoko merkantziak 169. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako epearen barruan inportatzen ez badira.

143. artikulua

Aplikazio-neurriak

184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, titulu honetan araututako erregimenen funtzionamendurako neurriak onartuko ditu Batzordeak.

2. KAPITULUA

Igarotza

1. atala

Kanpo- eta barne-igarotza

144. artikulua

Kanpo-igarotza

1. Kanpo-igarotzako erregimenean, Erkidegoz kanpoko merkantziek Erkidegoko aduana-lurraldeko leku batetik bestera zirkulatu ahal izango dute, honako hauei aurre egin behar izan gabe:

a) inportazio-eskubideei;

b) gaiarekin zerikusia duten eta indarrean dauden beste xedapen batzuek agindutako beste karga batzuei;

c) politika komertzialeko neurriei, merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzea edo handik ateratzea galarazten ez badute.

2. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta Erkidegoko merkantziak kanpo-igarotzako erregimenean zein kasu eta baldintzetan jarriko diren finkatzen dutenak.

3. 1. paragrafoan aipatutako joan-etorria honela egin daiteke:

a) Erkidegoko kanpo-igarotzako erregimenaren babesean;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) TIR itunarekin bat etorritik, baldin eta:

i) Erkidegoko aduana-lurraldean amaitu den edo amaitzekoa den, edo

ii) Erkidegoko aduana-lurraldeko bi lekuren artean gertatzen bada, Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko herrialde edo lurralde batetik igarota;

c) ATA itunarekin / Istanbulerako itunarekin bat etorritik, igarotzeko joan-etorrien kasuan;

d) Renano manifestuaren babesean (Rhinen nabigatzeko itun berrikusiko 9. artikulua);

e) Ipar Atlantikoko Ituna (1951ko ekainaren 19an sinatua Londresen) sinatu zuten estatuen arteko itun-esparruan finkatutako 302. inprimakiaren (beren indarrean dagokien estatutuari buruzkoa) babesean;

f) posta-sistemaren babesean eta Posta Batasun Unibertsaleko ekintzekin bat etorritik, ekintza horiei jarraiki sortutako eskubide eta betebeharren titularrek garraiatzen badituzte edo haientzat garraiatzen badira merkantziak.

4. Kanpo-igarotza 140. artikuluan agindutakoa baztertu gabe aplikatuko da.

145. artikulua

Barne-igarotza

1. Barne-igarotzeko erregimenari jarraiki, Erkidegoko merkantziek Erkidegoko aduana-lurraldeko bi punturen artean zirkulatu ahal izango dute, Erkidegoaz kanpoko beste lurralde batetik igarota eta haien aduana-estatutua aldatu gabe, 2. eta 3. paragrafoetan finkatutako baldintzak betez gero.

2. 1. paragrafoan aipatutako joan-etorria modu hauetara egin daiteke:

a) Erkidegoko barne-igarotzeko erregimenaren babesean, nazioarteko hitzarmen bat sinatzeko aukera egonez gero;

b) TIR itunarekin bat etorritik;

c) ATA itunarekin / Istanbulerako itunarekin bat etorritik, igarotzeko joan-etorrien kasuan;

d) Renano manifestuaren babesean (Rhinen nabigatzeko itun berrikusiko 9. artikulua);

e) Ipar Atlantikoko Ituna (1951ko ekainaren 19an sinatua Londresen) sinatu zuten estatuen arteko itun-esparruan finkatutako 302. inprimakiaren (beren indarrean dagokien estatutuari buruzkoa) babesean;

f) posta-sistemaren babesean eta Posta Batasun Unibertsaleko ekintzekin bat etorritik, ekintza horiei jarraiki sortutako eskubide eta betebeharren titularrek garraiatzen badituzte edo haientzat garraiatzen badira merkantziak.

3. 2. paragrafoko b)-f) idatz-zatietan jasotako kasuetan, merkantziek Erkidegoko merkantziei dagokien aduana-estatutuari eutsiko diote, estatu hori baldintza jakin batzuetan finkatuta badago aduana-legerian finkatutako bitartekoekin bat etorritik. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta aduana-estatutu hori emateko baldintzak eta bitartekoak finkatzen dituztenak.

2. atala

Erkidegoko igarotza

450/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 145/1, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

146. artikulua

Erkidegoko igarotza-erregimenaren titularraren nahiz Erkidegoko igarotza-erregimenaren babesean zirkulatzen duten merkantzien garraiolariaren eta jasotzailearen betebeharrak

1. Erkidegoko igarotza-erregimenaren titularrak erantzukizun hauek izango ditu:

a) merkantziak inolako kalterik gabe aurkeztea eta merkantziak doazen aduanak eskatutako informazioa ematea, merkantzia horiek behar bezala identifikatzeko aduana-agintariak hartutako neurriak bete eta gero;

b) erregimenari buruzko aduana-xedapenak errespetatzea;

c) aduana-legeriak besterik ez badio, berme bat sortzea aduana-zorrari dagozkion inportazio- edo esportazio-eskubideen eta, indarrean dauden eta gaiarekin zerikusia duten beste xedapen batzuei jarraiki, merkantziek ordaindu beharreko bestelako kargen zenbatekoa ordainduko dela ziurtatzeko.

2. Aduana-legeriarekin bat etorritik, igarotza-erregimenean dauden merkantziak eta eskatutako informazioa norako-aduanan aurkeztutakoan amaituko dira igarotza-erregimena eta erregimenaren titularraren betebeharrak.

3. Merkantziak Erkidegoko igarotza-erregimenean daudela jakinik, merkantziak finkatutako epean eta inolako kalterik gabe aurkeztu beharko dituzte merkantziak onartzen dituzten garraiolari nahiz hartzaile guztiek, merkantzia horiek behar bezala identifikatzeko aduana-agintariak hartutako neurriak errespetatuz.

147. artikulua

Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko herrialde batetik zirkulatzen duten merkantziak, Erkidegoko kanpo-igarotzeko erregimenaren babesean

1. Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpoko herrialde batetik zirkulatzen duten merkantziei aplikatuko zaie Erkidegotik kanpoko igarotza-erregimena, baldintza hauetakoren bat betez gero:

a) nazioarteko hitzarmen batek horretarako aukera jasotzea;

b) lurralde horretatik igarotzean, Erkidegoko aduana-lurraldean luzatutako garraio-titulu bakarra erabiltzen bada.

2. 1. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako kasuan, Erkidegotik kanpoko igarotza-erregimenaren eragina eten egingo da merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo dauden bitartean.

3. KAPITULUA

Gordetzea

1. atala

Xedapen komunak

148. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Gordetzeko erregimenaren barruan, Erkidegoz kanpoko merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean gorde ahal izango dira, honako hauei aurre egin behar izan gabe:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) inportazio-eskubideei;
- b) gaiarekin zerikusia duten eta indarrean dauden beste xedapen batzuek agindutako beste karga batzuei;
- c) politika komertzialeko neurriei, merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean sartzea edo handik ateratzea galarazten ez badute.

2. Erkidegoko merkantziak aduanan gordetzeko erregimenean nahiz zona frankoko erregimenean sailkatu ahal izango dira esparru zehatzak arautzen dituzten aduana-legeei nahiz Erkidegoko legeei jarraiki, inportazio-eskubideak itzultzeko edo barkatzeko agintzen duen erabaki batez baliatu ahal izateko.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta Erkidegoko merkantziak aduanan gordetzeko erregimenean nahiz zona frankoko erregimenean zein kasu eta baldintzetan jarriko diren finkatzen dutenak.

149. artikulua

Baimen nahiz erregimenaren titularraren erantzukizunak

1. Baimenaren titularrak eta erregimenaren titularrak erantzukizun hauek izango dituzte:

- a) ziurtatzea aldi baterako gordetzeko erregimenean nahiz aduanan gordetzeko erregimenean sailkatutako merkantziak aduana-zaintzatik kanpo ez direla gelditzen;
- b) betearaztea aldi baterako gordetzeko erregimenean nahiz aduanan gordetzeko erregimenean sailkatutako merkantziak gordetzeak dakartzan betebeharrak;
- c) merkantziak aduanan gordetzeko nahiz aldi baterako gordetzeko biltegiak ustiatzeko baimenean jasotako baldintza partikularrak betetzea.

2. 1. paragrafoan agindutakoa gorabehera, baimena aduana-biltegi publiko bati buruzkoa bada, 1. paragrafoko a) nahiz b) idatz-zatietan finkatutako erantzukizunak soil-soilik erregimenaren titularrak bete behar izatea erabaki liteke.

3. Erregimenaren titularrak izango du merkantziak aldi baterako gordetzeko erregimenean nahiz aduanan gordetzeko erregimenean sailkatzeak dakartzan betebeharrak betetzeko erantzukizuna.

150. artikulua

Gordetze-erregimenaren iraupena

1. Merkantziak gordetze-erregimenean egoteko denborak ez du mugarik izango.

2. Halere, gordetze-erregimena amaitutzat jotzeko epe bat finkatu ahal izango dute aduana-agintariek, kasu hauetan:

- a) gordetegia aduana-agintariek ustiatzen dutenean eta, 151. artikuluari jarraiki, edozeinek erabil dezakeenean merkantziak aldi baterako gordetzeko;
- b) kasu berezietan, epe luzerako gordetako merkantzien ezaugarrien ondorioz, osasun publikorako, animalia eta landareen osasunerako nahiz ingurumenerako mehatxagarriak izan daitezkeenean.

3. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta 2. paragrafoan aipatutako kasuak finkatzen dituztenak.

2. atala

Aldi baterako gordetzea

151. artikulua

Merkantziak aldi baterako gordetegian uztea

1. Aduana-erregimen baterako besterik esaten ez bada, Erkidegoz kanpoko ondorengo merkantzia hauek haien titularrak aduanan aurkezten dituen unean, aldi baterako gordetzeko erregimenean aurkeztu dituela ulertuko da:

a) Erkidegoko aduana-lurraldean sartutako merkantziak, zuzenean zona franko batean sartzen direnak izan ezik;

b) zona franko batetik etorrira, Erkidegoko aduana-lurraldearen beste zona batean sartzen direnak;

c) kanpo-igarotzako erregimena amaitua duten merkantziak. Aduana-deklarazioa merkantziak aduanan aurkezten diren unean egin dela eta aduana-agintariak orduan onartu dutela ulertuko da.

2. Sarrera-deklarazio laburtua, edo haren ordezkotza-igarotza-agiria, aduana-deklaraziotzat hartuko da aldi baterako gordetzeko erregimenerako.

3. Aduana-agintariak berme bat eratzeko eskatu ahal izango diete merkantzien titularrei, edozein aduana-zorri dagozkion inportazio- edo esportazio-eskubideen zenbatekoa edo, indarrean dauden xedapenei jarraiki, sortu litekeen beste edozein karga ordaintzen dutela ziurtatzeko.

4. Edozein arrazoi dela eta, merkantziak ezin badira aldi baterako gordetzeko erregimenean utzi, aduana-agintariak merkantzia haien egoera erregularizatzeko behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte luze gabe. *Mutatis mutandis* 125., 126. eta 127. artikulua aplikatuko dira.

5. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, artikulua hau aplikatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Batzordeak.

152. artikulua

Merkantziak aldi baterako gordetzea

1. Aldi baterako gordetegi gisa baimendutako lekuetan gorde ahal izango dira bakarrik aldi baterako gordetzeko erregimenean dauden merkantziak.

2. 91. artikuluko 2. paragrafoan esandakoa alde batera utzi gabe, aldi baterako gordetzeko erregimenean utzitako merkantziei ezingo zaie dauden egoeran mantentzeko ezinbestekoak direnez kanpoko manipulazioak egin, eta ezin izango dira haien itxura edo ezaugarri teknikoak aldatu.

3. atala

Aduanako gordetegia

153. artikulua

Aduanako gordetegietan gordetzea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Aduanako gordetegian utzitako Erkidegoz kanpoko merkantziak aduana-agintariak erregimen horretarako baimendutako instalazio eta lekuetan (aurrerantzean «aduanako gordetegiak») gorde ahal izango dira, aduana-zaintzapean betiere.
2. Aduanako gordetegiak jende guztiaren esku egongo dira bertan merkantziak gordetzeko (aduanako gordetegi publikoen kasuan) edo merkantziak biltegitratzeko baimena duen titularrentzat (aduanako gordetegi pribatuen kasuan).
3. Aduanan gordetzeko erregimenean dauden merkantziak aduanako gordetegitik aldi baterako ateratzeko aukera egongo da. Ezinbestekoa gertatzen den kasuetan izan ezik, horretarako aduana-agintarien baimena eskuratu beharko da aurrena.

154. artikulua

Erkidegoko merkantziak, amaierako norakoa eta eraldaketa-jarduerak

1. Behar ekonomikoa badago, eta horrek aduana-zaintza arriskuan jartzen ez badu, aduana-agintariak honako jarduera hauek baimendu ahal izango dituzte aduanako gordetegian:
 - a) Erkidegoko merkantziak biltegitratzea;
 - b) perfektionamendu aktiboko nahiz amaierako norakoari dagokion erregimenean dauden merkantziak eraldatzea, erregimen horietarako finkatutako baldintzak betez gero.
2. 1. paragrafoan aipatutako kasuetan, merkantziak ez dira aduanako gordetegiko erregimenean sartuko.

4. atala

Zona frankoak

155. artikulua

Zona frankoak izendatzea

1. Erkidegoko aduana-lurraldeko zenbait eremu *zona franko* izendatu ahal izango dituzte estatu kideek. Zona franko bakoitzaren muga geografikoak finkatu eta sartu-irteteko lekuak zehaztuko dituzte estatuek.
2. Zona frankoak itxita egongo dira. Zona frankoen perimetroa eta sartu-irtenak aduana-zaintzapean egongo dira.
3. Aduana-kontrolak egin ahal izango zaizkie zona franko batean sartzen edo handik irteten diren pertsona, merkantzia eta garraiobideei.

156. artikulua

Zona frankoetako jarduerak eta eraikinak

1. Zona franko batean eraikinak eraikitzeko aduana-agintarien baimena beharko da aurrena.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Aduana-legeria betez gero, industria-, merkataritza- nahiz zerbitzu-alorreko era guztietako jarduerak baimenduko dira zona frankoen barruan. Jarduera horiek egiteko aduana-agintariei jakinarazi beharko zaie aurrena.

3. Aduana-agintariak 2. paragrafoan aipatutako jarduerak egiteko debeku edo muga batzuk jarri ahal izango dituzte, jarduera horietan erabiliko diren merkantzien ezaugarriak direla eta, edo aduana-zaintzaren beharren nahiz segurtasun-betekizunen ondorioz.

4. Aduanei buruzko xedapenak betetzeari dagokionez, behar besteko segurtasunik eskaintzen ez dutenei zona franko batean jarduera bat egitea galarazi ahal izango diete aduana-agintariak.

157. artikulua

Merkantziak aurkeztea eta erregimen batean sartzea

1. Zona franko batean sartutako merkantziak aduanan aurkeztu behar dira, eta aduana-izapideak bete beharko dituzte, kasu hauetan:

- a) Erkidegoko aduana-lurraldez kanpotik zuzenean sartzen badira zona frankoan;
- b) zona frankoko erregimenean sartzean amaitzen den aduana-erregimen batean sailkatuta badaude;
- c) inportazio-eskubideak itzultzea edo barkatzea dakarren erabaki batez baliatzeko helburuz sartzen badira zona frankoko erregimen batean;
- d) izapideok aduana-legeriaz bestelako legeria baten eraginez preskribatu badute.

2. Ez dira aduanan aurkeztu beharko zona frankoan 1. paragrafoan aipatutakoez bestelako baldintzetan sartutako merkantziak.

3. 158. artikulua dioena alde batera utzi gabe, zona frankoan sartutako merkantziak zona frankoko erregimenean daudela ulertuko da:

- a) zona frankoak onartzeko garaian, beste aduana-erregimen batean sailkatuta ez badaude behintzat;
- b) igarotza-erregimena amaitzen denean, hori gertatu eta berehala beste aduana-erregimen batean sartzen ez badira behintzat.

158. artikulua

Erkidegoko merkantziak zona frankoetan

1. Erkidegoko merkantziak zona franko batean sartu, biltegitatu, lekualdatu, erabili, eraldatu eta kontsumitu ahal izango dira. Kasu horietan, merkantziak ez dira zona frankoko erregimenaren barruan sartuko.

2. Interesdunak hala eskatuta, aduana-agintariak Erkidegoko merkantzien aduana-estatutuaren ziurtagiria emango dute, merkantzia hauentzat:

- a) zona franko batean sartzen diren Erkidegoko merkantziak;
- b) zona franko baten barruan eraldatuak izan diren Erkidegoko merkantziak;
- c) zona franko baten barruan garraio askerako izapidetutako merkantziak.

159. artikulua

Erkidegoz kanpoko merkantziak zona frankoetan

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Zona franko batean dauden bitartean, Erkidegoz kanpoko merkantziak garraio askerako izapidetu daitezke edo perfektionamendu aktiboko, aldi baterako inportazioko nahiz amaierako norakoari dagokion erregimenean sar daitezke, bestela, erregimen horietarako finkatutako baldintzetan betiere.

Kasu horietan, merkantziak ez dira zona frankoko erregimenaren barruan sartuko.

2. Hornigaiei nahiz horniketarako biltegitzeari aplikatu beharreko xedapenak alde batera utzi gabe, eta dagokion erregimena horretarako aukera ematen duen neurrian, artikuluko 1. paragrafoak ez du galaraziko, garraio askerako izapidetuak izan edo aldi baterako inportazio-erregimenean egonez gero, inportazio-eskubideak nahiz nekazaritza- edo merkataritza-politika komuneko neurriak aplikatu beharko ez litzaizkiekeen merkantziak kontsumitzea edo erabiltzea.

Erabilera edo kontsumo hori gertatuz gero, aduanan ez da deklaraziorik aurkeztu beharko garraio askerako izapidetuak izateko nahiz aldi baterako inportazio-erregimenean sartzeko.

Dena den, merkantzia horiek kontingente arantzelario bati edo gehienezko muga bati egotzi behar izanez gero, deklarazio hori aurkeztu beharko da.

160. artikulua

Merkantziak zona frankotik ateratzea

Aduanaz kanpoko beste esparru batzuetan indarrean dagoen legeriak dioena alde batera utzi gabe, zona franko batean dauden merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo esportatu nahiz birresportatu, edo lurralde horretako beste zona batean sartu ahal izango dira. 91-98. artikuluko Erkidegoko aduana-lurraldeko beste zona batean sartutako merkantziei aplikatuko zaizkie, *mutatis mutandis*.

161. artikulua

Aduana-estatutua

Erkidegoz kanpoko merkantziatzat hartuko dira zona franko batetik atera eta Erkidegoko aduana-lurraldeko beste zona batean sartzen diren edo aduana-erregimen batean sailkatzen diren merkantziak, 158. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den ziurtagiriaren bidez, nahiz Erkidegoko aduana-legerian aurreikusita dagoen eta merkantzien estatutua zehazten duen beste edozein agiriren bidez, merkantzia horiek Erkidegoko merkantzia-estatutua dutela frogatu ezean.

Dena den, esportazio-eskubideak eta esportazio-lizentziak aplikatzeari dagokionez, bai eta merkataritza- nahiz nekazaritza-politika komunaren barruan esportazioak kontrolatzeko neurriei dagokienez ere, merkantzia horiek Erkidegoko merkantziatzat hartuko dira, Erkidegoko merkantzien aduana-estatuturik ez dutela frogatzen ez bada behintzat.

4. KAPITULUA

Norako bereziak

1. atala

Aldi baterako inportazioa

162. artikulua

Aplikazio-eremua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Aldi baterako inportazio-erregimenaren barruan, Erkidegoz kanpokoak izanik birresportatzeko diren merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldean erabili ahal izango dira inportazio-eskubideak osorik nahiz partzialki ordaindu behar izan gabe, eta ez zaizkie honako hauek aplikatuko:

a) indarrean dauden beste xedapen batzuek agindutako beste karga batzuk;

b) merkataritza-politikako neurriak, Erkidegoko aduana-lurraldean merkantziak sartzea edo handik merkantziak ateratzea galarazten ez badute behintzat.

2. Aldi baterako inportazio-erregimena baldintza hauek betez gero erabili ahal izango da bakarrik:

a) merkantziei inolako aldaketarik egiteko asmorik ez izatea, haiek erabiliz gertatzen den balio-galtze normala izan ezik;

b) erregimenean sartutako merkantzien identifikazioa bermatu ahal izatea, non eta merkantzien ezaugarriak edo emango zaien erabilera direla eta, identifikatzeko neurririk ez izateak ez badu erregimen-gehiegikeriarik egiteko aukerarik ematen, edo, 142. artikuluan aipatutako kasuan, merkantzia baliokideentzako finkatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea badago;

c) erregimenaren titularra Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo finkatua egotea, aduana-legeriak besterik ez badio behintzat;

d) Erkidegoko aduana-legerian finkatutako eskubideak osorik nahiz partzialki ez ordaintzeko baldintzak betetzea.

163. artikulua

Merkantziak aldi baterako inportazio-erregimenean egoteko epea

1. Aduana-agintariek finkatuko dute aldi baterako inportazio-erregimenean dauden merkantziak noiztik aurrera birresportatu behar diren edo geroago beste aduana-erregimen batean sartu behar diren. Epe horrek baimendutako norakoa lortzeko adinakoa izan beharko du.

2. Merkantziak aldi baterako inportazio-erregimenean (norako berbera izanik eta baimenaren titular beraren erantzukizunpean) egoteko gehieneko epea 24 hilabetekoa izango da, merkantziak beste erregimen batean sartu eta, horri jarraiki, aldi baterako inportazio-erregimen batean berriro sartuta, erregimen hura amaituz gero ere.

3. Kasu berezietan, baimendutako norakoa ezin bada 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako epeetan bete, epe horiek behar beste luzatzea izango dute aduana-agintariek, baimenaren titularrak horretarako eskari arrazoitua aurkeztuz gero.

164. artikulua

Aldi baterako inportazio-erregimenean aurreikusitako egoerak

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta merkantziak aldi baterako inportazio-erregimenean zein kasu eta baldintzatan sartu ahal izango diren eta inportazio-eskubideak osorik nahiz partzialki noiz ez diren ordaindu behar izango finkatzen dutenak.

Neurri horiek onartzerakoan, nazioarteko hitzarmenak eta merkantzien ezaugarriak eta norakoa hartu beharko dira kontuan.

165. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aldi baterako inportazio-eskubidearen zenbatekoa, inportazio-eskubideen salbuespen partzialarekin

1. Aldi baterako inportazio-erregimenean inportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena duten merkantziengatik ordaindu beharreko inportazio-eskubideen zenbatekoa izango da merkantzia horiek garraio askerako izapidetuak izan balira ordaindu beharko luketen inportazio-eskubideen zenbatekoaren (merkantziak aldi baterako inportazio-erregimenean sartu ziren datan) % 3.

Zenbateko hori eskatu ahal izango da merkantziak aldi baterako inportazio-erregimenean inportazio-eskubideen salbuespen partzialarekin egondako hilabete bakoitzeko edo hilabete-zati bakoitzeko.

2. Inportazio-eskubidearen zenbatekoa ezin daiteke handiagoa izan merkantziak aldi baterako inportazio-erregimenean sartu ziren egunean merkantzia horiek garraio askerako izapidetu izan balira ordaindu beharko luketena baino.

2. atala

Amaierako norakoa

166. artikulua

Amaierako norakoari dagokion erregimena

1. Amaierako norakoari dagokion erregimenean, merkantziak garraio askerako izapidetu ahal izango dira, eskubiderik ordaindu behar izan gabe edo tasa txikiagoa ordaindu behar izanik, haien norako zehatzaren arabera. Merkantziak aduana-zaintzapean egongo dira.

2. Amaierako norakoari dagokion erregimenean, aduana-zaintza kasu hauetan bukatuko da:

a) merkantziak eskubiderik ez ordaintzeko edo tasa txikiagoa ordaintzeko eskubidea dakarren xedeetara bideratzen direnean;

b) merkantziak esportatu, suntsitu edo bertan behera uzten direnean, Estatuaren onerako;

c) merkantziak eskubiderik ez ordaintzeko edo tasa txikiagoa ordaintzeko eskubidea dakarrenaz bestelako xedeetara bideratu eta aplikatzekoak diren inportazio-eskubideak ordaintzen direnean.

3. Aplikatu beharreko araudiak etekin-koefiziente bat finkatuz gero, 167. artikulua *mutatis mutandis* aplikatuko zaio amaierako norakoari dagokion erregimenari.

5. KAPITULUA

Perfekzionamendua

1. atala

Xedapen orokorrak

167. artikulua

Etekin-koefizientea

Esparru zehatzak arautzen dituen Erkidegoko araudiak etekin-koefiziente bat finkatu ezean, aduana-agintarietara finkatuko dute perfekzionamendu-eragiketari dagokion etekin-koefizientea edo batez besteko etekin-koefizientea; eta, hala dagokionean, koefiziente hori finkatzeko modua ere zehaztuko dute.

450/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 145/1, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Etekin-koefizientea eta batez besteko etekin-koefizientea finkatuko dira perfektzionamendu-eragiketak egitean edo egitekoak direnean dagoen egoeraren arabera. Hala dagokionean, koefiziente hori egokitu egin ahal izango da, 18. eta 19. artikuluekin bat etorritz.

2. atala

Perfektzionamendu aktiboa

168. artikulua

Aplikazio-eremua

1. 142. artikuluan agindutakoa alde batera utzi gabe, perfektzionamendu aktiboko erregimenean, Erkidegokoak ez diren merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldearen barruan erabili ahal izango dira eraldaketa-eragiketa batean edo gehiagotan, merkantzia horiei honakoak aplikatu behar izan gabe:

a) inportazio-eskubideak;

b) indarrean dauden beste xedapen batzuek agindutako beste karga batzuk;

c) merkataritza-politikako neurriak, Erkidegoko aduana-lurraldean merkantziak sartzea edo handik merkantziak ateratzea galarazten ez badute behintzat.

2. Perfektzionamendu aktiboko erregimena konponketa eta suntsiketaz bestelako kasuetan erabili ahal izateko, eta ekoizpenerako laguntzak alde batera utzi gabe, erregimen horretan dauden merkantziak produktu eraldatueta identifikaizeko aukera egon behar du. 142. artikuluan aipatutako kasuan, erregimen hori erabili ahal izango da merkantzia balioakideentzako finkatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea badago.

3. 1. eta 2. paragrafoetan esandakoa osatuz, perfektzionamendu-erregimena beste merkantzia hauei ere aplikatu ahal izango zaie:

a) garraio askerako izapiderako finkatutako betekizun teknikoak betetzen dituztela bermatzeko eragiketak egingo zaizkien merkantziei;

b) 141. artikuluekin bat etorritz, ohiko manipulazio-eragiketak egin behar zaizkien merkantziei.

169. artikulua

Amaitzeko epea

1. Perfektzionamendu aktiboko erregimena amaitzeko epea finkatuko dute aduana-agintariak, 138. artikuluekin bat etorritz.

Epe hori Erkidegoz kanpoko merkantziak erregimenean sartzen diren egunean hasiko da eta eraldaketa-eragiketak egiteko eta erregimena amaitzeko behar den denbora hartuko da kontuan.

2. 1. paragrafoarekin bat etorritz finkatutako epea luzatzea izango dute aduana-agintariak, baimenaren titularrak eskaera arrazoitua aurkeztuz gero.

Hilabete, hiruhileko nahiz seiuhileko natural baten buruan hasitako epeak hurrengo hilabete, hiruhileko nahiz seiuhileko naturaleko azken egunean amaitzen direla zehaztu ahal izango da baimenean.

3. 142. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatiarekin bat etorritz egindako aurretiko esportazioen kasuan, aduana-agintariak zehaztuko dute Erkidegoz kanpoko merkantziak erregimenerako zein epetan aurkeztu behar diren. Dagozkion merkantzia balioakideetatik lortutako produktu eraldatueta esportazio-deklarazioa onartzen den egunean hasiko da epe hori.

170. artikulua

Aldi baterako esportatzea, geroago eraldatzeko

Aduana-agintariak baimenduz gero, perfektzionamendu aktiboko erregimenean dauden merkantzia guztiak nahiz batzuk eta produktu eraldatuak aldi baterako esportatu ahal izango dira, Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo eraldatuak izateko, perfektzionamendu pasiborako erregimenerako finkatutako baldintzekin bat etorri betiere.

3. atala

Perfektzionamendu pasiboa

171. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Perfektzionamendu pasiboko erregimenean, Erkidegoko merkantziak aldi baterako esportatu ahal izango dira Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo, eraldaketa-eragiketarak egiteko. Eraldaketa horietatik ateratako produktu eraldatuak garraio askerako izapidetu ahal izango dira, baimenaren titularrak edo, Erkidegoko aduana-lurraldean finkatuta egonik, titularraren baimena eskuratu duen beste edozeinek hala eskatuta, inportazio-eskubideak osorik nahiz zati batean ordaindu behar izan gabe, baimenean finkatutako baldintzak betez gero betiere.

2. Erkidegoko merkantziek ezin izango dute perfektzionamendu pasiboko erregimenean sartu, kasu hauetan:

a) esportatuz gero, inportazio-eskubideak itzuli edo barkatzen bazaizkie;

b) esportatu aurretik, beren amaierako norakoa dela eta, eskubideak salbuetsita edo eskubide murriztuarekin izapidetu badira garraio askerako, baina amaierako norako horren xedeak oraindik bete gabe badaude, non eta merkantzia horiei konponketa-eragiketarik ez zaien egin behar;

c) esportatuz gero, esportazioari lotutako itzulketa gertatu bada;

d) merkantzia horiek esportatzeagatik, aurreko c) idatz-zatian aipatutako itzulketez bestelako finantza-onurak aplikatzen bazaizkie, nekazaritza-politika komunari jarraiki.

3. 172. eta 173. artikuluetan aipatzen ez diren kasuetan, eta *ad valorem* eskubiderik ez dagoen kasuetan, Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo egindako eraldaketa-eragiketaren kostuaren arabera kalkulatu da inportazio-eskubideen zenbatekoa.

184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta kalkulu hori egiteko neurriak finkatu eta eskubide zehatzak aplikatu behar direneko kasuak arautuko dituztenak.

4. Inportazio-eskubideak osorik nahiz zati batean ez ordaindu ahal izateko, aduana-agintariak epea finkatuko dute aldi baterako esportatutako merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldera produktu eraldatu gisa berrinportatu eta garraio askerako izapideari dagokion erregimenean sartzeko. Baimenaren titularrak eskaera arrazoitua aurkeztuz gero, epe hori luzatu egin ahal izango da.

172. artikulua

Dohainik konpondutako merkantziak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Aduana-agintariek hala eskatuta frogatzen bada, berme batek ezarritako legezko nahiz kontratu bidezko betebeharrak bati jarraiki, merkantzien konponketa dohainik egin dela frogatuz gero, inportazio-eskubideak ordaintzetik guztiz salbuetsita egongo dira.
2. 1. paragrafoa ez da aplikatuko fabrikazio- edo material-akatsa merkantziak garraio askerako lehen aldiz izapidetutako anean jadanik baldin bazegoen.

173. artikulua

Truke-sistema estandarra

1. Truke-sistema estandarrari jarraiki, inportatutako produktu batek (aurrerantzean «ordezko produktua») produktu eraldatu bat ordezkatu ahal izango du, 2-5. paragrafoei jarraiki.
2. Aduana-elkarteek aukera emango dute truke-sistema estandarra aplikatzeko, merkantziak eraldatzeko eragiketa Erkidegoko merkantziak konpontzeari dagokionean; hain zuzen ere, nekazaritza-politika komunean nahiz nekazaritza-produktuak eraldatzetik sortutako merkantzia jakin batzuei aplikatu beharreko xedapen zehatzetan finkatutako neurriei dagozkenez bestelako merkantziak konpontzeari dagokionean.
3. Ordezko produktuek, nomenklatura konbinatuko zortzi digituko kode bera eduki, kalitate komertzial berekoa izan eta merkantzia akastunak aurreikusitako konponketa jaso izan balute izango zituzten ezaugarri tekniko berberak izan beharko dituzte.
4. Merkantzia akastunak esportatu aurretik erabili izan badira, ordezko produktuek ere aurretik erabiliak izan beharko dute.

Dena den, lehen paragrafoan finkatutako araua ez aplikatzea erabaki lezakete aduana-agintariek, ordezko produktua dohainik bidaltzen bada, berme batek ezarritako legezko nahiz kontratu bidezko betebeharrak bati jarraiki nahiz fabrikazio-akats bat edo akats material bat dagoelako.

5. Ordezko produktuei produktu eraldatuei aplikatu beharreko xedapen berberak aplikatuko zaizkie.

174. artikulua

Ordezko produktuen aurretiko inportazioa

1. Ordezko produktuak merkantzia akastunak esportatu aurretik inportatzeko aukera emango dute aduana-agintariek, haiek finkatutako baldintzetan eta merkantzien arduradunak hala eskatuta.
- Ordezko produktu bat aurretik inportatuz gero, 2. paragrafoarekin bat etorritik merkantzia akastunak esportatuko ez balira ordaindu beharko luketen inportazio-eskubidearen zenbatekora iristen den bermea eratu beharko da.
2. Merkantzia akastunak esportatzeko bi hilabeteko epea egongo da, aduana-agintariek ordezko produktuen garraio askerako izapidetutako deklarazioa jasotzen dutenetik.
 3. Kasu berezietan, merkantzia akastunak ezin badira 2. paragrafoan aipatutako epean esportatu, epe hori luzatu ahal izango dute aduana-agintariek, merkantzien arduradunak eskari arrazoitua aurkeztuz gero.

VIII. TITULUA

MERKANTZIAK ERKIDEGOKO ADUANA-LURRALDETIK ATERATzea

1. KAPITULUA

Aduana-lurraldetik ateratzen diren merkantziak

175. artikulua

Atera aurretik deklarazioa aurkezteko betebeharra

1. Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzekoak diren merkantziek handik atera aurretik deklarazioa aurkeztu beharko dute eskumeneko aduanan edo deklarazio hori aduanaren esku utzi beharko dute, merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik atera aurretik. Dena den, lehen paragrafoa ez zaie aplikatuko Erkidegoaren jurisdikziopeko urak nahiz Erkidegoko aduana-lurraldea bertan geldialdirik egin gabe zeharkatzen duten garraibideetan kargatutako merkantziei.
2. Erkidegotik atera aurretik deklarazioak forma hauetakoren bat izango du:
 - a) Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen diren merkantziek aduanan deklarazioa aurkeztea eskatzen duen aduana-erregimen batean badaude, aduana-deklarazioa aurkeztu beharko da;
 - b) 179. artikuluan aipatutako birresportazio-jakinazpena;
 - c) aduanan deklaraziorik egin edo birresportazio-jakinazpenik aurkeztu behar ez bada, 180. artikuluan aipatutako irteera-deklarazio laburtua.
3. Irten aurretiko deklarazioak, gutxienez, irteera-deklarazio laburturako behar diren datuak izango ditu.

176. artikulua

Aplikazio-neurri jakin batzuk finkatzen dituzten neurriak

1. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:
 - a) Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen diren merkantziek zein kasu eta baldintzetan ez duten irten aurretiko deklaraziorik aurkeztu behar;
 - b) irten aurretiko deklarazioa aurkeztu beharra noiz utz daitekeen bertan behera edo noiz egokitu daitekeen;
 - c) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik irten aurretik irten aurretiko deklarazioa aurkezteko edo prest edukitzeko epea;
 - d) c) idatz-zatian aipatutako epeari dagozkion salbuespenak eta aldaketak;
 - e) irten aurretiko deklarazioa eskumeneko zein aduanatan aurkeztu behar den edo zein aduanaren esku utzi behar den. Aduana horretan egingo dira arrisku-azterketak eta irteerari eta esportazioari dagozkion kontrolak, arriskuaren arabera; neurri horiek guztiak 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira.
2. Neurri horiek onartzen direnean, hau hartu beharko da kontuan:
 - a) gorabehera bereziak;
 - b) neurri horiek merkantzia-trafiko, garraibide eta operadore ekonomiko mota jakin batzuei ezartzea;
 - c) segurtasun-mekanismo bereziak finkatzen dituzten nazioarteko hitzarmenak.

177. artikulua

Aduana-zaintza eta irteera-izapideak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen diren merkantziak aduana-zaintzapean egongo dira eta aduana-kontrolak egin ahal izango zaizkie. Hala dagokionean, Erkidegoko aduana-lurraldetik atera behar duten merkantziak erabili beharreko ibilbidea eta bete beharreko epea finkatu ahal izango dute aduana-agintariek, 5. paragrafoari jarraiki hartutako neurriekin bat etorritik.

2. Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzekoak diren merkantziak aduanan aurkeztuko dira. Merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzeko lekuaren arabera dagokion eskumeneko aduanan aurkeztu beharko dira, eta irteera-izapideak aplikatuko zaizkie, adibidez:

a) inportazio-eskubideak itzultzea edo barkatzea, edo esportazio-itzulketak ordaintzea;

b) esportazio-eskubideak jasotzea;

c) beste karga batzuei buruz indarrean dauden xedapenei jarraiki egin beharreko gainerako izapideak;

d) debeku eta mugak aplikatzea, arrazoi hauen ondorioz, besteak beste: moraltasuna, ordena eta segurtasun publikoa; pertsona, animalia eta landareen osasuna eta bizitza babestea; ingurumena babestea; ondare artistiko, historiko eta arkeologikoa babestea, eta jabetza industrial eta komertziala babestea. Alderdi hauek kontrolatuko dira, halakoetan: aitzindari kimikoak, jabetza intelektualeko zenbait eskubide urratzen dituzten merkantziak eta Erkidegotik ateratzen den esku-dirua. Horrez gain, arrain-baliabideak kontserbatu eta kudeatzeko neurriak eta merkataritza-politikarako neurriak ere ezarri beharko dira.

3. Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen diren merkantziak aduanan aurkeztu beharko ditu honakoren batek:

a) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik esportatzen dituen pertsonak;

b) merkantziak lurralde horretatik esportatzen dituen pertsonak (haien izenean edo haien kontura jardunez) ordezkaturako pertsonak;

c) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik esportatu aurretik haiek garraiatzeko erantzukizuna hartu zuen pertsonak.

4. Irteerako jasotze-baimena eskuratzeko, dagozkion merkantziak sartu aurretik deklarazioa onartu zen unean zeuden egoera berberean atera beharko dute Erkidegoko aduana-lurraldetik.

5. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, artikuluko 1., 2. eta 3. paragrafoak aplikatzeko neurriak hartuko ditu Batzordeak.

2. KAPITULUA

Esportazioa eta birresportazioa

178. artikulua

Erkidegoko merkantziak

1. Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzekoak diren Erkidegoko merkantziak esportazio-erregimenean sailkatuko dira.

2. 1. paragrafoa ez zaie honako merkantzia hauei aplikatuko:

a) amaierako norakoari edo perfektionamendu pasiboari dagokion erregimenean dauden merkantziei;

b) barne-igarotzeko erregimenean dauden edo Erkidegoko aduana-lurraldetik aldi baterako ateratzen diren merkantziei, 103. artikulurekin bat etorritik.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, esportazio-erregimenean, amaierako norakoari dagokion erregimenean eta perfektionamendu pasiboko erregimenean sailkatutako merkantziei aplikatu beharreko esportazio-izapideak finkatzen dituzten neurriak onartuko ditu Batzordeak.

179. artikulua

Erkidegoz kanpoko merkantziak

1. Erkidegoz kanpokoak izan eta Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzekoak diren merkantziei birresortazio-jakinazpena erantsi behar zaie. Jakinarazpen hori eskumeneko aduanan aurkeztu behar da, eta dagozkien irteera-izapideak bete beharko dituzte merkantzia horiek.

2. *Mutatis mutandis* 104-124. artikulua aplikatuko zaizkio birresortazio-jakinazpenari.

3. 1. paragrafoa ez zaie honako merkantzia hauei aplikatuko:

- a) kanpo-igarotzako erregimeneakoak izanik, Erkidegoko aduana-lurraldea zeharkatu baino egiten ez dutenei;
- b) zona franko baten barruan edukiontziz aldatutako edo zuzenean zona franko batetik birresortatutako merkantziei;
- c) aldi baterako gordailutze-erregimeneakoak izanik, aldi baterako gordailuetarako baimendutako biltegi batetik zuzenean birresortatzen diren merkantziei.

180. artikulua

Irteera-deklarazio laburtua

1. Merkantziek Erkidegoko aduana-lurraldetik atera behar dutenean, eta aduana-deklaraziorik edo birresortazio-jakinazpenik behar ez bada, irteera-deklarazio laburtua aurkeztu beharko da eskumeneko aduanan, 175. artikulurekin bat etorritik.

2. Datuak tratatzeko bitarteko elektronikoa bat erabiliz egingo da irteera-deklarazio laburtua. Informazio komertziala, portukoa edo garraioari buruzkoa erabili ahal izango da, irteera-deklarazio laburturako behar diren xehetasunak jasotzen baditu.

3. Kasu berezietan, paperean aurkeztutako irteera-deklarazio laburtuak onartu ahal izango dituzte aduana-agintariak, datuak tratatzeko bitarteko elektronikoa bat erabiliz aurkeztutako irteera-deklarazio laburtuei aplikatzen zaien arriskuen kudeaketa-maila bera aplikatzen bazaie haiei ere, eta datuok beste aduana batzuekin trukatzeko baldintzak betetzen badituzte. Irteera-deklarazio laburtuaren ordez jakinarazpen bat aurkezteko aukera eman ahal izango dute aduana-agintariak, deklarazio laburtuko datuak operadore ekonomikoaren informatika-sisteman eskuratu ahal izanez gero.

4. Irteera-deklarazio laburtua honako hauek aurkez dezakete:

- a) merkantziak Erkidegoko aduana-lurraldetik ateratzen dituen edo merkantzia horien garraioaren gaineko erantzukizuna hartzen duen pertsonak;
- b) esportatzaile edo bidaltzaileak, edo a) idatz-zatian aipatutako pertsonak (haien izenean eta haien kontura jardunez) ordezkaturako beste edozein pertsonak;
- c) dagozkion merkantziak eskumeneko aduana-agintariari aurkezteko moduan edo aurkezteko prestatzeko moduan dagoen edozein pertsonak.

181. artikulua

450/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 145/1, 2008/6/4koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Irteera-deklarazio laburtua zuzentzea

Irteera-deklarazio laburtua aurkeztu eta gero, deklarazio horretako datu bat edo gehiago zuzentzea izango du deklaraziogileak, berak hala eskatuta. Halere, ezin izango da aldaketarik egin, baldin eta:

- a) aduana-agintariak merkantziak ikuskatzeko asmoa adierazten badiote deklarazio laburtua aurkeztu zuen pertsonari;
- b) aduana-agintariak frogatzen badute aurkeztutako datuak ez direla zuzenak;
- c) aduana-agintariak merkantzien irteera baimendu badute dagoeneko. 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik onartuko dira Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta artikuluko honetako bigarren letrakadako c) idatz-zatian esandakoaren salbuespenak finkatzen dituztenak.

3. KAPITULUA

Esportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena

182. artikulua

Aldi baterako esportazioa

- 1. 171. artikuluan agindutakoa alde batera utzi gabe, Erkidegoko merkantziak aldi baterako esportatu ahal izango dira Erkidegoko aduana-lurraldetik kanpo eta esportazio-eskubideak ordaintzeko salbuespena eskatu ahal izango dute. Horretarako, merkantziak berrinportatu egin beharko dira.
- 2. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, artikuluko hau aplikatzeko neurriak hartuko ditu Batzordeak.

IX. TITULUA

ADUANA-KODEAREN KOMITEA ETA AZKEN XEDAPENAK

1. KAPITULUA

Aduana-kodearen komitea

183. artikulua

Aplikazio-neurri osagarriak

- 1. 184. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozedurarekin bat etorritik, Batzordeak neurriak hartuko ditu estatu kideetako eta dagozkion Erkidegoko kideen aduana-sistema elektronikoko bateragarriak izateko, aduana-agintarien artean, aduana-agintarien eta Batzordearen artean eta aduana-agintarien eta operadore ekonomikoen artean datuak elektronikoki trukatzeko oinarritutako lankidetzaren bultzatzearen.
- 2. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko neurriak, Erregelamendua osatzen dutenak eta xehetasun hauek finkatzen dituztenak:
 - a) estatu kideei 20. artikuluko 8. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutakoez bestelako erabaki bat atzera botatu edo aldatzeko eskatzeko erabakiak zein kasutan hartu ahal izango dituen Batzordeak, erabaki haiek aduana-legeriaren barruan onartu eta eskumeneko beste agintari batzuen antzeko erabakiekin bat ez badatoz eta, ondorioz, aduana-legeriaren aplikazio uniformea arriskutan jartzen badute;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- b) beharrezkoa izan daitekeen edozein garapen-arau, Erkidegoak sinatutako nazioarteko hitzarmenen ondorioz, kodeko xedapenak egokitzea eskatzen duten konpromiso nahiz betebeharrak hartzen baditu Erkidegoak;
- c) kodearen aplikazioa sinplifika daitekeen beste kasu eta baldintza batzuk; 184. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorri onartuko dira.

184. artikulua

Komitea

1. Aduana Kodearen Komitearen («Komitea» aurrerantzean) laguntza izango du Batzordeak.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.
1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. paragrafoan finkatutako epea hiru hilabetekoa izango da.
3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.
1999/438/EE Erabakiko 4. artikuluko 3. paragrafoan finkatutako epea hiru hilabetekoa izango da.
4. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluko 1-4. paragrafoak eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da.

185. artikulua

Beste gai batzuk

Batzordearen ekimenari jarraiki edo estatu kide bateko ordezkari batek hala eskatuta, komite-buruak aztergai jarri ahal izango du aduana-legeriarekin zerikusia duen edozein gai, alderdi hauei dagokienez bereziki:

- a) aduana-legeria aplikatzeak eragindako arazoak;
- b) nazioarteko hitzarmenei jarraiki edo haien babespean eratu diren eta aduana-legeria aztergai duten komite, lan-talde eta talde berezietan Erkidegoak hartu beharreko jarrera.

2. KAPITULUA

Azken xedapenak

186. artikulua

Indargabetzea

Indarrrik gabe gelditzen dira 3925/91 (EEE), 2913/92 (EEE) eta 1207/2001 (EE) Erregelamenduak. Indarrrik gabe utzitako erregelamenduei egindako erreferentziak Erregelamendu honi egiten zaizkiola ulertuko da, eranskinean jasotako baliokidetzataulekin bat etorri.

187. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

188. artikulua

450/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 145/1, 2008/6/4koa)

Aplikazioa

1. 2008ko ekainaren 24tik aurrera aplikatuko dira: 1. artikuluko 3. paragrafoko bigarren lerrokada; 5. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokada, eta 2. paragrafoko lehenbiziko lerrokada; 10. artikuluko, 2. paragrafoa; 11. artikuluko, 3. paragrafoa; 12. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokada; 15. artikuluko 1. paragrafoa; 16. artikuluko 5. paragrafoa; 18. artikuluko 4. paragrafoa; 19. artikuluko 5. paragrafoa; 20. artikuluko 7., 8. eta 9. paragrafoak; 24. artikuluko 3. paragrafoko bigarren lerrokada; 25. artikuluko 3. paragrafoa; 28. artikuluko 3. paragrafoa; 30. artikuluko 2. paragrafoa; 31. artikuluko 3. paragrafoa; 33. artikuluko 5. paragrafoa; 38. artikulua; 39. artikuluko 3. eta 6. paragrafoak; 43. artikulua; 51. artikuluko 2. paragrafoa; 54. artikulua; 55. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokada; 56. artikuluko 9. paragrafoa; 57. artikuluko 3. paragrafoa; 58. artikuluko bigarren lerrokada; 59. artikuluko, 1. paragrafoko bigarren lerrokada; 62. artikuluko 3. paragrafoa; 63. artikuluko 3. paragrafoa; 65. artikuluko 3. paragrafoa; 67. artikuluko 1. paragrafoko hirugarren lerrokada; 71. artikulua; 72. artikuluko 3. paragrafoko lehenbiziko lerrokada; 76. artikulua; 77. artikuluko 3. paragrafoa; 78. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokada, eta 5. paragrafoa; 85. artikulua; 86. artikuluko 7. paragrafoa; 87. artikuluko 3. paragrafoko lehenbiziko lerrokada; 88. artikuluko 4. paragrafoko bigarren lerrokada; 89. artikuluko 2. paragrafoa; 93. artikuluko 2. paragrafoa; 101. artikuluko 2. paragrafoa; 103. artikulua; 105. artikuluko 2. paragrafoa; 106. artikuluko 4. paragrafoko lehenbiziko lerrokada; 107. artikuluko 3. paragrafoa; 108. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokada, eta 4. paragrafoa; 109. artikuluko 2. eta 3. paragrafoak; 110. artikuluko 1. paragrafoko hirugarren lerrokada; 111. artikuluko 3. paragrafoa; 112. artikuluko 4. paragrafoa; 113. artikuluko 3. paragrafoa; 114. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokada; 115. artikuluko bigarren lerrokada; 116. artikuluko 2. paragrafoko lehenbiziko lerrokada; 119. artikuluko 3. paragrafoa; 122. artikulua; 124. artikuluko 2. paragrafoa; 128. artikulua; 134. artikulua; 136. artikuluko 2. paragrafoko lehenbiziko lerrokada, 3. paragrafoko bigarren lerrokada, eta 4. paragrafoko laugarren lerrokada; 137. artikuluko 2. paragrafoa; 140. artikuluko 2. paragrafoa; 142. artikuluko 1. paragrafoko laugarren lerrokada, 2. paragrafoko bigarren lerrokada, eta 3. paragrafoko bigarren lerrokada; 143. artikulua; 144. artikuluko 2. paragrafoa; 145. artikuluko 3. paragrafoko bigarren lerrokada; 148. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokada; 150. artikuluko 3. paragrafoa; 151. artikuluko 5. paragrafoa; 164. artikuluko lehenbiziko lerrokada; 171. artikuluko 3. paragrafoko bigarren lerrokada; 176. artikuluko 1. paragrafoa; 177. artikuluko 5. paragrafoa; 178. artikuluko 3. paragrafoa; 181. artikuluko hirugarren lerrokada; 182. artikuluko 2. paragrafoa, eta 183. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak.

2. Gainerako xedapenak 1. paragrafoan aipatutako artikuluei jarraiki hartutako aplikazio-neurriak aplikatzekoak direnean aplikatu beharko dira. Aplikazio-neurriak 2009ko ekainaren 24an sartuko dira indarrean.

Aplikazio-neurriak indarrean sartu arren, paragrafo honetan aipatzen ez diren Erregelamendu honetako xedapenak 2013ko ekainaren 24an sartuko dira indarrean, beranduenez.

3. 30. artikuluko 1. paragrafoa 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Erregelamendu honetako elementu guzti-guztiak nahitaezkoak izango dira, eta zuzenean aplikatu beharko dira estatu kide guztietan.

Estrasburgon emana, 2008ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.- G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARČIČ

ANEXO

TABLAS DE CORRESPONDENCIAS

1. Reglamento (CEE) n° 2913/92

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 1	Artículo 4
Artículo 2	Artículo 1
Artículo 3	Artículo 3
Artículo 4	Artículo 4
Artículo 4, puntos 4 bis a 4 quinquies	—
Artículo 5	Artículos 11 y 12
Artículo 5 bis	Artículos 13, 14 y 15
Artículo 6	Artículo 16
Artículo 7	Artículo 16
Artículo 8	Artículo 18
Artículo 9	Artículo 19
Artículo 10	Artículo 16
Artículo 11	Artículos 8 y 30
Artículo 12	Artículo 20
Artículo 13	Artículos 25 y 26
Artículo 14	Artículo 9
Artículo 15	Artículo 6
Artículo 16	Artículo 29
Artículo 17	Artículo 32
Artículo 18	Artículo 31
Artículo 19	Artículos 116 y 183
Artículo 20	Artículos 33 y 34
Artículo 21	Artículo 33
Artículo 22	Artículo 35
Artículo 23	Artículo 36
Artículo 24	Artículo 36
Artículo 25	—
Artículo 26	Artículo 37
Artículo 27	Artículo 39
Artículo 28	Artículo 40
Artículo 29	Artículo 41
Artículo 30	Artículo 42
Artículo 31	Artículo 42
Artículo 32	Artículo 43
Artículo 33	Artículo 43
Artículo 34	Artículo 43
Artículo 35	Artículo 31
Artículo 36	Artículo 41

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 36 <i>bis</i>	Artículo 87
Artículo 36 <i>ter</i>	Artículos 5, 88 y 89
Artículo 36 <i>quater</i>	Artículo 90
Artículo 37	Artículo 91
Artículo 38	Artículos 92 y 93
Artículo 39	Artículo 94
Artículo 40	Artículo 95
Artículo 41	Artículo 95
Artículo 42	Artículo 91
Artículo 43	—
Artículo 44	—
Artículo 45	—
Artículo 46	Artículo 96
Artículo 47	Artículo 96
Artículo 48	Artículo 97
Artículo 49	—
Artículo 50	Artículos 98 y 151
Artículo 51	Artículos 151 y 152
Artículo 52	Artículo 152
Artículo 53	Artículo 151
Artículo 54	Artículo 99
Artículo 55	Artículo 100
Artículo 56	Artículo 125
Artículo 57	Artículo 126
Artículo 58	Artículos 91 y 97
Artículo 59	Artículo 104
Artículo 60	Artículo 105
Artículo 61	Artículo 107
Artículo 62	Artículo 108
Artículo 63	Artículo 112
Artículo 64	Artículo 111
Artículo 65	Artículo 113
Artículo 66	Artículo 114
Artículo 67	Artículo 112
Artículo 68	Artículo 117
Artículo 69	Artículo 118
Artículo 70	Artículo 119
Artículo 71	Artículo 120
Artículo 72	Artículo 121
Artículo 73	Artículo 123
Artículo 74	Artículo 124
Artículo 75	Artículo 126
Artículo 76	Artículos 108, 109, 110 y 112
Artículo 77	Artículos 107 y 108

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 78	Artículo 27
Artículo 79	Artículo 129
Artículo 80	—
Artículo 81	Artículo 115
Artículo 82	Artículo 166
Artículo 83	Artículo 102
Artículo 84	Artículo 135
Artículo 85	Artículo 136
Artículo 86	Artículo 136
Artículo 87	Artículo 136
Artículo 87 bis	—
Artículo 88	Artículo 136
Artículo 89	Artículo 138
Artículo 90	Artículo 139
Artículo 91	Artículos 140 y 144
Artículo 92	Artículo 146
Artículo 93	Artículo 147
Artículo 94	Artículos 62, 63, 136 y 146
Artículo 95	Artículos 136 y 146
Artículo 96	Artículo 146
Artículo 97	Artículo 143
Artículo 98	Artículos 143, 148 y 153
Artículo 99	Artículo 153
Artículo 100	Artículo 136
Artículo 101	Artículo 149
Artículo 102	Artículo 149
Artículo 103	—
Artículo 104	Artículo 136
Artículo 105	Artículo 137
Artículo 106	Artículos 137 y 154
Artículo 107	Artículo 137
Artículo 108	Artículo 150
Artículo 109	Artículos 141 y 143
Artículo 110	Artículo 153
Artículo 111	Artículo 140
Artículo 112	Artículo 53
Artículo 113	—
Artículo 114	Artículos 142 y 168
Artículo 115	Artículos 142 y 143
Artículo 116	Artículo 136
Artículo 117	Artículo 136
Artículo 118	Artículo 169
Artículo 119	Artículo 167
Artículo 120	Artículo 143

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 121	Artículos 52 y 53
Artículo 122	Artículos 52 y 53
Artículo 123	Artículo 170
Artículo 124	—
Artículo 125	—
Artículo 126	—
Artículo 127	—
Artículo 128	—
Artículo 129	—
Artículo 130	Artículo 168
Artículo 131	Artículo 143
Artículo 132	Artículo 136
Artículo 133	Artículo 136
Artículo 134	—
Artículo 135	Artículo 53
Artículo 136	Artículo 53
Artículo 137	Artículo 162
Artículo 138	Artículo 136
Artículo 139	Artículo 162
Artículo 140	Artículo 163
Artículo 141	Artículo 164
Artículo 142	Artículos 143 y 164
Artículo 143	Artículos 47 y 165
Artículo 144	Artículos 47, 52 y 53
Artículo 145	Artículos 48 y 171
Artículo 146	Artículos 143 y 171
Artículo 147	Artículo 136
Artículo 148	Artículo 136
Artículo 149	Artículo 171
Artículo 150	Artículo 171
Artículo 151	Artículo 171
Artículo 152	Artículo 172
Artículo 153	Artículo 171
Artículo 154	Artículos 173 y 174
Artículo 155	Artículo 173
Artículo 156	Artículo 173
Artículo 157	Artículo 174
Artículo 158	—
Artículo 159	—
Artículo 160	—
Artículo 161	Artículos 176, 177 y 178
Artículo 162	Artículo 177
Artículo 163	Artículo 145
Artículo 164	Artículos 103 y 145

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 165	Artículo 143
Artículo 166	Artículo 148
Artículo 167	Artículos 155 y 156
Artículo 168	Artículo 155
Artículo 168 <i>bis</i>	—
Artículo 169	Artículos 157 y 158
Artículo 170	Artículos 157 y 158
Artículo 171	Artículo 150
Artículo 172	Artículo 156
Artículo 173	Artículos 141 y 159
Artículo 174	—
Artículo 175	Artículo 159
Artículo 176	Artículo 137
Artículo 177	Artículo 160
Artículo 178	Artículo 53
Artículo 179	—
Artículo 180	Artículo 161
Artículo 181	Artículo 160
Artículo 182	Artículos 127, 168 y 179
Artículo 182 <i>bis</i>	Artículo 175
Artículo 182 <i>ter</i>	Artículo 176
Artículo 182 <i>quater</i>	Artículos 176, 179 y 180
Artículo 182 <i>quinqüies</i>	Artículos 5, 180 y 181
Artículo 183	Artículo 177
Artículo 184	—
Artículo 185	Artículos 130 y 131
Artículo 186	Artículo 130
Artículo 187	Artículo 132
Artículo 188	Artículo 133
Artículo 189	Artículo 56
Artículo 190	Artículo 58
Artículo 191	Artículo 56
Artículo 192	Artículos 57 y 58
Artículo 193	Artículo 59
Artículo 194	Artículo 59
Artículo 195	Artículo 61
Artículo 196	Artículo 60
Artículo 197	Artículo 59
Artículo 198	Artículo 64
Artículo 199	Artículo 65
Artículo 200	—
Artículo 201	Artículo 44
Artículo 202	Artículo 46
Artículo 203	Artículo 46

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 204	Artículos 46 y 86
Artículo 205	Artículo 46
Artículo 206	Artículos 46 y 86
Artículo 207	Artículo 86
Artículo 208	Artículo 47
Artículo 209	Artículo 48
Artículo 210	Artículo 49
Artículo 211	Artículo 49
Artículo 212	Artículo 50
Artículo 212 <i>bis</i>	Artículo 53
Artículo 213	Artículo 51
Artículo 214	Artículos 52 y 78
Artículo 215	Artículos 55 y 66
Artículo 216	Artículo 45
Artículo 217	Artículos 66 y 69
Artículo 218	Artículo 70
Artículo 219	Artículo 70
Artículo 220	Artículos 70 y 82
Artículo 221	Artículos 67 y 68
Artículo 222	Artículo 72
Artículo 223	Artículo 73
Artículo 224	Artículo 74
Artículo 225	Artículo 74
Artículo 226	Artículo 74
Artículo 227	Artículo 75
Artículo 228	Artículo 76
Artículo 229	Artículo 77
Artículo 230	Artículo 73
Artículo 231	Artículo 73
Artículo 232	Artículo 78
Artículo 233	Artículo 86
Artículo 234	Artículo 86
Artículo 235	Artículo 4
Artículo 236	Artículos 79, 80, y 84
Artículo 237	Artículos 79 y 84
Artículo 238	Artículos 79, 81 y 84
Artículo 239	Artículos 79, 83, 84, y 85
Artículo 240	Artículo 79
Artículo 241	Artículo 79
Artículo 242	Artículo 79
Artículo 243	Artículo 23
Artículo 244	Artículo 24
Artículo 245	Artículo 23
Artículo 246	Artículo 22

Reglamento (CEE) n° 2913/92	Presente Reglamento
Artículo 247	Artículo 183
Artículo 247 <i>bis</i>	Artículo 184
Artículo 248	Artículo 183
Artículo 248 <i>bis</i>	Artículo 184
Artículo 249	Artículo 185
Artículo 250	Artículos 17, 120 y 121
Artículo 251	Artículo 186
Artículo 252	Artículo 186
Artículo 253	Artículo 187

2. **Reglamentos (CEE) n° 3925/91 y (CE) n° 1207/2001**

Reglamento derogado	Presente Reglamento
Reglamento (CEE) n° 3925/91	Artículo 28
Reglamento (CE) n° 1207/2001	Artículo 39